1984 APIRILA-EKAINA JAKIN - 31 (BIGARREN ALDIA)

## aurkibidea

*Zenbaki honetan* ........ 3

**Drogak eta gizartea**

BASTIDA, M. ORKOLAGA, J.M.: Sarrera. Oinarrizko kontzeptuak. Drogen klasifikazioa ........ 6
ELKAR-LANEAN: Droga-kontsumoaren epidemiologia Euskal Herriko Komunitate Autonomoan ........ 12
ZIGANDA, N.: Droga Nafarroan ........ 23
LHANDE, D.: Droga Iparraldean ........ 30
ASKAGINTZA: Heroina-trafikoa Euskadin: inplikazio ekonomiko eta politikoak ........ 37
TOLOSA, M.: Toxikomanoaren nortasuna ........ 48
ASKAGINTZA: Drogarekiko atxekipena eta gizarte-egiturak ........ 54
VEGA, A.: Eskola drogaren aurrean ........ 62
SASTRE, J.: Toxikomanien tratamendua ........ 75

**Orain eta Hemen**

ETBren etorkizuna J.Caro Barojaren eskutik? – PNVko buruzagiak euskaraz ikasten – Komunikazioaren mundua pil-pil – Nora doa PNV? – ETB Nafarroan: Troiako zaldia – Euskal Kulturaren Batzarrea – Euskara, diskriminazioa eta legea – Euskadiko kale eta bideetan ibili – Tortura, berriro ........ 87

**Gaiak**

SAGARNA, A.: Eibarko eta Zorroagako Soziolinguistika Egunak ... 101
URIA, I.: Manex Erdozainzi ........ 120

**Liburuak**

TORREALDAI, J.M.: 1983ko erdal liburuak Euskal Herriaz ........ 127
KORTAZAR, J.: «Etiopia»ren estiloaz oharrak ........ 137
IDAZKARITZA: Jaso ditugu ........ 145

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaritza:**

joan mari torrealdai
I. a. bilbao (kazetaria)

**Idazkaritza eta administrazioa:**

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
Donostia – 13. Tel. (943) 27 17 13

**1984rako prezioak:**

| | *barruan* | *kanpoan* |
|---|---|---|
| ale arrunta | 500 pta. | 600 pta. (25 FF) |
| ale bikoitza | 700 pta. | 800 pta (45 FF) |
| ale extra | 1.000 pta. | 1.200 pta. (70 FF) |
| harpidetza | 1.500 pta. | 1.700 pta. (95 FF) |

**Jabegoa:** Anaidia. Arantzazu. **Lege–gordailua:** S.S. 25/1977. **ISSN:** 0211–495X.
**Fotokonposaketa:** Onena. Lasarte. **Inprimaketa:** Lizarra. Lizarra.

# ZENBAKI HONETAN

*Bigarren aldiko 31. zenbaki hau aurtengo bigarrena da.*

*Eskaintzen dizugun gai nagusiaren garrantzia eta gaurkotasuna ez dugu zertan azpimarra. Drogak gora eta behera, deklarazioak eta zifrak barra-barra ikusi ahal izan dituzu egunkarietan, eta non ez. Alarmismo eta deklarazio haundi-maundirik ez da falta hainbat aldiz, berauen oinarria eta helburua inoiz auzitan jartzeko moduan, gainera. Horregatik nahiago izan dugu, gure aldetik, zehazki eta osoki arazora hurbildu: bere konplexutasunean, egiazko zifrekin, salakuntzak zehaztuz, analisiak eginez. Drogaren arazoari mila modutara hel badakioke ere, gure eritziz erarik egokiena den aldetik hurbildu gatzaizkio, gizarte-arazo bezala kontsideratuz alegia. Drogak eta gizartea, gizartea eta drogak, dialektikoki planteatzen ditugu guk hemen. Zenbakia eratzeko, bestalde, drogaren munduarekin harremana eta zerikusia duen jendearengana jo dugu: psikiatra, gizarte-langile, abokatu, hezitzaile eta beste.*

*Bost ataletan banatu dugu azterketa.*

*Arazoan murgildu aurretik sarrera tekniko bat behar genuen, kontzeptuak argitzeko. Horixe egin digute Maite Bastidak eta Jon Mikel Orkolagak.*

*Alderdi soziologikoak osatzen du bigarren atala. Zertan den drogaren kontsumoa jakin nahi genuen, egunkarietako zifrak ez bait dira fidagarri sarritan. Inkesta epidemiologiko bat egina, eta ez-ezaguna, zela jakinik, Imanol Kerexetarengana jo genuen. Ez alferrik ematen ditugu hemen metodologia eta zifrak, drogaz droga, nahiz eta guretzat bereziki inportante*

*izan heroina eta kokaina. Nafarroako giroa ere ezagutu behar genuen, eta nola ez Iparraldekoa. Nafarroaren berri Nikolas Zigandak ematen digu, eta Iparraldekoa Dominique Lhandek.*

*Hirugarren atalean heroinaren trafikoa zertan den Euskal Herrian agertzen dugu: drogaren merkatua, sarea, interes politikoak eta ekonomikoak. Hori dena argitzea, Askagintza taldeari enkargatu genion.*

*Laugarren atalean, nori berea eman nahirik, drogazaletasunaren auzi honetan zer dagokion drogazaleari eta zer gizarteari, ikusi nahi izan dugu. Markos Tolosak drogazalearen nortasuna aztertzen du; eta Askagintzak, gizarte-egiturak.*

*Drogen aurrean gizarteak hartu ohi dituen bi jarrera aztertzen ditugu bosgarren atalean: prebentzioa eta terapia. Prebentzioaren alorrean eskola da Amando Vegaren aztergaia. Eta terapia dela eta, toxikomanoen tratamenduan erabiltzen diren metodoak eta egin diren experientziak azaltzen dizkigu Juan Sastrek.*

*Garbi erakusten du gainbegiratu honek drogen inguruko lan orokor bat dela hau. Hainbat eta hainbat alor eta arazo sakon premian gelditzen direla, esan beharrik ere ez dago. Lehen hurbiltzapen gisa antolatu nahi izan dugu zenbakia. Gerora izango dugu astirik eta betarik, beharko balitz, atal bakoitza monografikoki aztertzeko; adibidez, alkoholismoa, drogen trafikoa, kontsumoa, prebentzioa, terapia...*

Orain eta Hemen *sailean zorroztasunari eta kritikari ematen diogu txanda. Bere motzean, bada hor gai interesgarririk!*

Gaiak *sailean urte honen hasieran Eibarren eta Zorroagan ospatu ziren Soziolinguistika Egunen informazioa eta balantzea eskaintzen dizkigu Andoni Sagarnak. Manex Erdozainziren heriotza dela eta, Iñaki Uriak haren obrari buruzko lan bat prestatu du, guk* in memoriam *gisa aurkezten duguna.*

Liburuak *sailean Joan Mari Torrealdaik eta Jon Kortazarrek eskuhartzen dute. J.M. Torrealdaik 1983 urtean Euskal Herriaz edo euskal gaiez argitaraturiko liburuen fitxa bibliografikoa eskaintzen digu. Jon Kortazarrek, bere aldetik, B. Atxagaren* Etiopia-*ren estiloaz ohar batzu egiten ditu.*

Maite Bastida
Jon Mikel Orkolaga
Elkar–lanean
Nikolas Ziganda
Dominique Lhande
Askagintza
Markos Tolosa
Amando Vega Fuente
Juan Sastre

# DROGAK eta GIZARTEA

**Sarrera. Oinarrizko kontzeptuak. Drogen klasifikazioa**

Toxikomania, menpetasunak, tolerantzia. Arriskugarritasuna. Ondorio klinikoak.

**Droga-kontsumoaren epidemiologia E.H.ko Komunitate Autonomoan**

Inkestaren metodologia eta emaitzak kontsumoaz. Eztabaidarako ideiak.

**Droga Nafarroan**

Iruñea 1974-1984. Drogaren sarrera eta banakuntza.

**Droga Iparraldean**

Datuak, Estatuan eta Iparraldean. Ihardukiera, maila sozialean eta medikoan. Gogoeta batzu.

**Heroina-trafikoa Euskadin: inplikazio ekonomiko eta politikoak**

Sarrera. Heroinaren komertzializazioa Euskadin. Eztabaidarako ideiak.

**Toxikomanoaren nortasuna**

Ingurune soziala. Bereizgarri psikologiko eta sozialak.

**Drogarekiko atxekipena eta gizarte-egiturak**

Gizarte legala. «Roll» bat. Ongi pasatzea. Ghettoa. Isolamendua. Konklusioak.

**Eskola drogaren aurrean: egungo egoera eta perspektibak**

Hezkuntzaren porrota eta irtenbideak. Hezkuntzarako erizpideak.

**Toxikomanien tratamendua**

Psikiatria. Isolamendua. Mañin baserria. «Il progetto uomo». Gerora begira.

# Sarrera: Oinarrizko kontzeptuak. Drogen klasifikazioa.

**Maite Bastida**
**Jon Mikel Orkolaga**

## Sarrera

Gure gizartean drogen fenomenoa eguneroko gauza bihurtu zaigu. Eginkizun guztietan agertzen da: elkar–hizketetan, lagunartean, telebistan, filmeetan etab.

Badirudi drogen arazoak ustekabean harrapatu gaituela, arazo berria balitz bezala; baina ohartu behar dugu, berria drogen arazoaren zati berezi bat besterik ez dela, hau da: heroinaren arazoa. Hor bait dugu gure gizartean hain finkatua dagoen toxikomania nagusiena eta arazorik larrienak sortzen dituena: alkoholismoa, esan nahi dugu.

Nahiz eta zenbaki honen helburua drogazaletasun berrien arazoa adieraztea eta aztertzea izan, aurretik argi utzi nahi dugu, gure gizartean drogazaletasunik grabeena eta latzena alkoholismoa dugula, honek sortzen bait ditu osasun–, famili–, lan– eta gizarte–problema gehienak.

Alkoholaren arazoa ez da Euskal Herrikoa bakarrik, baizik eta influentzia judegu–kristau nagusia izan duten gizarte guztiena. Herrialde guzti hauentzat balio du alkoholari buruz esaten ari garenak.

Alkoholismoaz aparte, gizarte guzti hauetan, eta gurean ere bai, toxikomania «berriak» sortzen ari zaizkigu azken hogei urteotan. Nahiz eta beste herrialdeetan sortu, guregana iristen zaizkigu poliki–poliki.

Berriak al dira benetan? Drogen erabilpena edo kontsumoa historian zehar aztertuz gero, edozein gizartek betidanik erabili izan dituela azalduko zaigu.

Gure gizarteetan alkohola bezala, Ameriketako gizarteetan tabakoa edo koka edo haluzinagarriak erabili eta erabiltzen dira tradizionalki erlijiozko ritoetan. Musulman influentziako herrialdeetan, cannabis delakoaren familiako drogak erabiltzen dira droga sozial bezala. Asiako zenbait herrialdetan «opioa» da aspaldiko droga.

Ez dira, beraz, toxikomania berriak, gaur erabiltzen diren droga gehienek mende askotako historia bait dute. Non datza berritasuna? Estatu Batuetan, Vietnam–go gerra zela eta, gazte unibertsitarien artean sortu zen borroka–mugimendu kontestatario hartan, droga tradizionalaren aurka droga berriak erabiltzea hartu zen borroka–sinbolotzat, eta horrela hasi zen marihuana («belarra») erretzeko ohitura berria.

Gero anfetaminak, L.S.D. etab. erabili ziren; eta, azkenik, heroinaren arazoa agertu zen, droga erabiltzearen tranpan eror araziz hasieran hain atsegina zen mugimendua. Estatu Batuetan egindako eboluzio hau, urte batzutako atzerapenez, beste gizarte zibilizatuetara hedatu zen eta baita gure gizartera ere.

Euskal Herrian lehen haschich–kontsumitzaileak 1970etik aurrera ikusten ditugu. Harritzen gaituena Euskal Herrian, zera da: beste herrialdeetan polikiago egin den zabalpena, hemen bost–hamar urteko gauza izan dela, eta zabalpen arin honek ematen diola droga–arazoari, duen itxura dramatikoa.

## Oinarrizko kontzeptuak

**Droga:** Edozein substantzia, naturala zein sintetikoa, egoera psikikoa aldatzeko ahalmena duena eta pertsona batek erabiltzen duena aldaketa hau bilatu nahiz.

**Toxikomania:** Kondukta berezi bezala definitu behar da; pertsona batek bere asmo, nahi, ohitura eta bizitza substantzia bat erabiltzearen inguruan edo menpean antolatzen du. Honetatik be-

reizi beharra dago toxikomania faltsuak, hau da: edozein drogaren noiz–behinkako kontsumoak.

**Menpetasuna:** Drogek pertsonarengan sor dezaketen bi eratako lotura: psikikoa edo/eta fisikoa.

**Menpetasun psikikoa:** Drogazalearen adimena, gogoa eta indarra droga lortzera eta erabiltzera zuzendurik daudenekoa.

**Menpetasun fisikoa:** Drogazalearen gorputzak, metabolismoaren osagai bat gehiago bezala hartzen du droga, eta beharrezkoa bihurtzen zaio eguneroko funtzionamendurako. Droga falta zaionean, sintoma fisiko neketsuren bitartez adierazten du drogaren beharra: **abstinentzi–sindromea** izenez ezagutzen da egoera hau.

**Tolerantzia:** Zenbait drogaren efektuak gutxitu egiten dira denborarekin; eta, hasierako efektuak lortzeko, dosiak gehitu egin behar dira. Kontzeptu hauen garrantzi haundiagoa edo txikiagoa droga bakoitzarekin emango digute droga horren arriskugarritasuna.

## Drogen klasifikazioa

Drogak ikuspegi desberdinetatik klasifika daitezke: soziologiaren, arriskugarritasunaren edo ondorio klinikoen aldetik, adibidez.

Soziologiaren aldetik, bi talde handi bereiz ditzakegu: legeak onartuak eta legez kanpo daudenak. Lehenengoen artean, alkohola, tabakoa eta zenbait farmako edo sendagai ditugu. Bigarren taldea, horien kontsumoa despenalizatua egon arren, cannabis, L.S.D., heroina etab.ek osatzen dute.

Arriskugarritasunaren aldetik, O.E.M.ek (O.M.S.ek) lau taldeko sailkapena agertarazi zuen, lehen taldea arriskugarriena bezala hartuz eta laugarrena arriskugarritasun txikienekotzat, denak arriskutsuak izanik.

— *Lehen taldea:* Opioaren familia (morfina, heroina, kodeina, metadona, tilitrate, etab.).

— *Bigarren taldea:* Alkohola eta barbiturikoak (Optalidon, cibalgina, etab.).

— *Hirugarren taldea:* Kokaina eta anfetaminak.

— *Laugarren taldea:* Cannabis familia (Marihuana, haschich), L.S.D., Meskalina, etab.

Sailkapen honek adierazten digu, droga bat legez onartua egotea eta horren arriskugarritasuna ez datozela bat.

Ondorio klinikoen aldetik zaila da drogak zuzenki sailkatzea, zeren ondorioa desberdina izan bait daiteke noiz, non, nola eta zenbat erabiltzen den kontu. Hala ere, hiru talde nagusi bereiz daitezke:

A) **Estimulagarriak:** Psikismoa piztu edo esnatzen dutenak.

Estimulagarri nagusien artean, alde batetik kokaina eta bestetik anfetaminen familia ditugu. Kokaina produktu naturala da eta oraintsu ari zaigu hedatzen gure artean. Menpetasun psikikoa besterik ez du sortzen.

Anfetaminen familiakoak, sendagai sintetikoak dira. Talde honetan, anfetaminez aparte (Centramina, Dexedrina, etab.), gosea kentzeko erabili ohi diren sendagaiak ere sartzen dira (Minilip, Antiobes, Bustaid, etab.).

Hauek menpetasun psikikoa eta tolerantzia handia sor dezakete.

Estimulagarri txikien artean, hain erabiliak diren tabakoa, kafea eta tea aurkitzen ditugu. Menpetasun izugarria sortzen dute droga hauek, bere hedadura unibertsalak adierazten duenez.

B) **Depresoreak:** Psikismoaren indarra edo energia makaltzen edo lasaitzen duten drogak ditugu. Talde asko bereiz ditzakegu.

Alkohola, nahiz eta lehen efektua estimulagarria izan, talde honetan sartzen dugu bere ondorio loeragilearengatik. Menpetasun psikiko, fisiko eta tolerantzia handia sortzen du.

Opioaren familian dugu droga–talde arriskutsuena. Horietan substantzia naturalak (opioa, morfina), erdi–sintetikoak (heroina, kodeina) edo sintetikoak (metadona, tilitrate, etab.) bereiz ditzakegu. Guztiek menpetasun psikikoa, fisikoa eta tolerantzia oso handiak dituzte. Gaurregun, heroina dugu talde honetako drogarik erabiliena eta arazorik latzenak sortzen dituena.

Loeragileen taldean, barbiturikoak dira garrantzitsuenak; hauen kontsumoa oso arrunta da, etxekoandreen artean batez ere, «burukomina» kentzeko erabili ohi diren sendagai askotan aurkitzen bait dira (Optalidon, Cibalgina, Fiorinal, Dolviran, etab.). Dependentzia fisikoa, dependentzia psikikoa eta tolerantzia handia ematen dute.

Lasaigarrien taldeak (Valium, Txanxilium, Dapaz, Tepazepan, etab.) berez ez du toxikomani arazo handirik sortzen; baina zenbait gaztek akoholarekin nahastuz erabiltzen dituzte, efektu bereziak lortzeko.

C) **Psikodelikoak:** Talde honetako drogek pertzepzio–sistemak nahasten dituzte eta ilusio– eta haluzinazio–fenomenoak sor ditzateke.

Alde batetik, haluzinagarriak dauzkagu (L.S.D., Meskalina, etab.). Hauek ez dute benetako toxikomani arazorik sortzen, noiz–behinkakoa izaten bait da horien kontsumoa. Hala ere, batzutan ondorio lastimagarriak ekar ditzakete adimen–osasunarentzat.

Cannabisaren familian, hain ezagunak diren marihuana eta haschich («txokolatea») ditugu. Erre egiten dira, tabakoarekin nahastuz («porroa») eta menpetasun psikikoa besterik ez dute sortzen.

D) Azkenik, talde berezi bat aipatu nahi genuke: **Inhalanteena.** Talde honetan, egunero erabiltzen diren produktuak aurkitzen dira: margoak, kolak, gasolina, eterea, disolbatzaileak, etab. Haurren artean hedatzen ari da produktu hauen kontsumoa, erraza bait dute eskuratzea. Kontsumo hau oso kaltegarria izan daiteke nerbio–sistemarentzat.

*M.B. – J.M.O.*

---

***INTRODUCCION: CONCEPTOS BASICOS. CLASIFICACIONES DE LA DROGA***

**INTRODUCTION: NOTIONS ESSENTIELLES. CLASSIFICATIONS DE LA DROGUE.**

***El artículo comienza por señalar la novedad sólo relativa de la droga entre nosotros. La drogadicción más grave en Euskal Herria —y en las sociedades de influencia judeo–cristiana en general— es la del alcohol. Por otra parte en las diferentes áreas culturales se han dado históricamente diversas formas de toxicomanía. Respecto a Euskal Herria llama la atención la rapidez con que se ha difundido el consumo de las nuevas drogas a partir de 1970.***

***A continuación, después de aclarar algunos conceptos fundamentales (droga, toxicomanía, dependencia, psíquica y física, tolerancia), se acomete la clasificación***

*de las drogas desde tres perspectivas diferentes: 1) Clasificación sociológica: drogas legalizadas y prohibidas; 2) Clasificación mirando a su peligrosidad según la O.M.S.: cuatro grupos; 3) Clasificación desde los efectos clínicos que producen: A) Estimulantes; B) Depresores; C) Psicodélicos; D) Inhalantes.*

---

L'auteur de l'article commence par signaler la nouveauté, seulement relative, de la drogue parmi nous. La consommation de drogue la plus grave en Euskal Herria —et en général dans les sociétés d'influence judéo–chretienne— est celle de l'alcool. D'autre part, on retrouve historiquement dans les différentes régions culturelles des formes diverses de toxicomanie. En ce qui concerne Euskal Herria il est frappant de constater la rapidité avec laquelle s'est propagée la consommation de nouvelles drogues à partir de 1970.

Ensuite, une fois expliquées certains notions fondamentales telles que: drogue, toxicomanie, dépendance psychique et physique, tolérance, l'auteur entreprend la classification des drogues sous trois aspects différents: 1) Classification sociologique: drogues légalisées et interdites; 2) Classification selon leur danger d'après l'O.M.S.: quatre groupes; 3) Classification suivant les effets cliniques qu'elles produisent: A) Stimulants; B) Déprimants; C) Psychadéliques; D) Inhalants.

# Droga-kontsumoaren epidemiologia Euskal Herriko Komunitate Autonomoan

**Elkar-lanean**

Nahiz eta drogaren problema hau gaurkoa ez izan, gero eta talde gehiagori interesatzen zaio gaia, eta ez sanitatearen eremuan bakarrik, baita ekintza sozialaren eremu guztietan ere.

Osasun Mentalean asmatu den politika asistentziala nahiko desantolatua izan da. Honek, noski, bere ondorioa izan du toxikomaniaren laguntzan, eta, horregatik, ez bata eta ez bestea kontenplatzen dituzte, gaur arte, osasun–zerbitzu publikoek. Orain arte, Diputazioaren babespean dauden zentruetan tratatu izan dira gaiso psikikoak, baliabide aski mugatuekin. Badirudi gaitz hauen egoera aldatu nahian dabiltzala Euskal Herriko Komunitate Autonomoko (E.H.K.A.) Osasunketa eta Gizarte Segurantza Sailean.

Gure eritziz, mementu honetan beharrezkoak dira ikerketa epidemiologikoak, biderik egokiena bait dira eritasuneta osasun–egoera neurtzeko. Frekuentzi datuak eta eritasunen distribuzioa ez dira prebentzioaren eta asistentziaren oinarriak besterik; epidemiologiak eritasunen zergatia eta arriskurik handienean dauden pertsonak finkatzen laguntzen digu. Honelako ikerketarik gabe ez da posible, gure ustez,

osasunketaren planifikazioa eta antolaketa. Azkenik, ezinbesteko garrantzia du epidemiologiak problema baten tamaina neurtzeko.

Drogaren prebalentzia neurtzeko edozein populazio–taldetan, bi metodo desberdin erabil ditzakegu: 1) metodo epidemiologiko zeharkakoa: morbilitatea, mortalitatea, trafikoa, etab.; 2) metodo epidemiologiko zuzena: populazioaren mostra errepresentagarriak aztertzen dituena.

Guk hemen aurkezten dugun ikerketa hau, E.H.K.A.n egindako inkesta baten ondorioa da.

## Materialea eta metodoak

### Laginaren hautespena

Laginketaren unitatea 14 urtez gorako gizakia da, gizonezko nahiz emakumezkoa, E.H.K.A.n bizi dena. 1975 urteko udal–erroldea erabili dugu, bizilekua, adina eta sexua parametroen araberako lagin geruzatua lortzeko. Hau da laginaren tamaina: Araban, 500 pertsona, Gipuzkoan, 1.100 eta Bizkaian, 800.

Erabili dugun laginarekin lortutako konfidantzaren maila eta ziurtasuna hauek izan dira:

| | Konfidantza | Ziurtasuna |
|---|---|---|
| Araba | %95 | %4,4 |
| Gipuzkoa | %95 | %3,0 |
| Bizkaia | %95 | %3,5 |

Gure galdesorta 88 galderatakoa da, orijinala, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia eta Psikiatria saileko talde batek sortua.

De Lint–en erizpideei jaraiki, lau edale–maila finkatu ditugu:

1. Abstemioak.
2. Edale moderatuak: eguneko alkohol absolutuzko 80 zl. arte.
3. Edale gehiegizkoak: eguneko alkohol absolutuzko 80 zl.tik 150 zl.ra arte.
4. Alkoholiko susmagarriak: eguneko alkohol absolutuzko 150 zl. baino gehiago.

Drogaren kontsumoa, berriz, hiru taldetan banatu dugu:

1. Ohizkoa: bi aldiz edo gehiagokoa asteko.
2. Okasiozkoa: bi aldiz edo gehiagokoa hileko.
3. Esporadikoa: bi aldiz edo gehiagokoa urteko.

### Datuen tratamendu orokorra

Inkestetan jasotako datuak kodetu eta fitxa perforatuetara pasa ondoren, ordenadorez prozesatu ditugu Euskal Herriko Unibertsitateko Kalkulu–Zentruan. S.P.S.S. izeneko programa estatistikoa erabili dugu, horren 8. aldaeran.

## Emaitzak

Hona 2.000 inkesta hauetan azaldu diren daturik garrantzitsuenak.

### Alkohola

Eguneroko alkohol-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Abstemioak | 34,5 | 32,9 | 38,2 | 33,1 | 540.424 |
| Edale moderatuak | 59,3 | 53,4 | 47,7 | 52,0 | 849.004 |
| Edale gehiegizkoak | 10,7 | 11,2 | 10,4 | 10,8 | 176.332 |
| Alkoholiko susmagarriak | 1,4 | 2,5 | 3,6 | 2,5 | 40.817 |

Asteburuko alkohol-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Abstemioak | 26,0 | 26,3 | 32,5 | 28,3 | 462.054 |
| Edale Moderatuak | 52,3 | 49,4 | 46,6 | 49,4 | 806.554 |
| Edale gehiegizkoak | 14,7 | 15,5 | 13,9 | 14,7 | 240.007 |
| Alkoholiko Susmagarriak | 7,0 | 8,8 | 7,0 | 7,6 | 124.085 |

Bi taula hauetan ikus dezakegunez, asteburuetan gehitu egiten da kontsumoa. Fenomeno hau kultura anglo–saxoiaren *week–end drinkers*–ekin konpara dezakegu. Sexuaren arabera aztertuz, gizonezkoak emakumezkoak baino arrisku handiagoan daudela ikusten da eta arrisku hau alkoholiko susmagarri eta gehiegizkoen artean datzala.

### Alkohol-kontsumoa eta sexua

| | Proportzioak | |
|---|---|---|
| | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| Edale moderatuak | 1 | 1 |
| Edale gehiegizkoak | 8 | 1 |
| Alkoholiko susmagarriak | 10 | 1 |

Adinaren arabera, 31–40 urteetakoek arrisku handiagoa dute besteek baino. Asteburuetako kontsumoan asko igotzen da 14–20 urtekoena: pentsatzen dugu, baduela honek zerikusirik gazteek denbora librea pasatzeko duten aukerarekin.

## Cannabis

Taldeok adinez eta sexuz banatzen baditugu, hurrengoetan ageri den distribuzioa daukagu:

### Cannabis-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Esporadikoak | 12,1 | 11,8 | 8,4 | 10,8 | 176.332 |
| Okasiozkoak | 3,2 | 3,3 | 2,7 | 3,1 | 50.614 |
| Ohizkoak | 3,0 | 6,4 | 8,2 | 5,9 | 96.329 |

### Cannabis-kontsumoa eta sexua

| | Portzentaiak | |
|---|---|---|
| | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| Esporadikoak | 6,9 | 3,9 |
| Okasiozkoak | 2,3 | 0,8 |
| Ohizkoak | 4,3 | 1,6 |

### Canabis–kontsumoa eta adina

| | Portzentaiak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 14–20 | 21–25 | 26–30 | 31–40 | 40 baino gehiago |
| Esporadikoak | 3,2 | 2,8 | 2,2 | 1,9 | 0,7 |
| Okasiozkoak | 1,6 | 0,6 | 0,6 | 0,2 | |
| Ohizkoak | 2,7 | 1,8 | 1,0 | 0,4 | |

Kontsumoa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, maila guztietan; eta 40 urtetik gora ez da kontsumitzaile okasiozko eta ohizkorik ikusten.

## Kokaina

### Kokaina-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Esporadikoak | 0,8 | 2,8 | 1,5 | 1,7 | 27.756 |
| Okasiozkoak | 0,4 | 0,3 | 0,4 | 0,4 | 6.531 |
| Ohizkoak | 0,2 | 0,5 | 0,5 | 0,5 | 6.531 |

Kontsumo orokorra, beste bi probintzietan baino handiagoa da Gipuzkoan. Diferentziarik nabariena kontsumo esporadikoan dago.

E.H.K.A.ko kontsumoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino handiagoa da; eta 30 urtetik gora ez da kontsumitzaile okasiozko eta ohizkorik ageri.

## Haluzinagarriak

### Haluzinagarri-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Esporadikoak | 2,2 | 3,4 | 2,2 | 2,6 | 42.450 |
| Okasiozkoak | 0,2 | 0,8 | 0,9 | 0,6 | 9.800 |
| Ohizkoak | – | 0,2 | 0,5 | 0,2 | 3.300 |

Taulan ikusten denez, kontsumoa Gipuzkoan garrantzitsuagoa da beste probintzietan baino. Haluzinagarrien ondoriorik ezagunena haluzinazioak dira, hain zuzen; gure galdesortaren zati bat drogaren ondorioari buruzkoa da, eta, harrigarriro, kasu honetan jende oso gutxik izan ditu haluzinazioak substantzia hauek hartu ondoan. Pentsa dezakegu, beraz, drogaren azokan haluzinagarri bezala saltzen diren substantziak ez direla puruak, eta askotan ezta haluzinagarriak ere.

### Haluzinagarri-kontsumoa eta sexua

| Mailak | Proportzioak | | Portzentaiak | |
|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| Esporadikoa | 4 | 1 | 2,0 | 0,6 |
| Okasiozkoa | 1 | 2 | 0,2 | 0,4 |
| Ohizkoa | – | – | 0,2 | – |

Droga honetan eta okasiozkoen mailan bakarrik ikusten da emakumezkoen proportzio handiagoa. Adinari dagokionez, berriz, 14–20 urtetik gora ez da ikusten ohizko kontsumitzailerik E.H.K.A.an.

## Opiazeoak

### Opiazeo-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A. | |
| Esporadikoa | 1,2 | 1,2 | 0,6 | 1,0 | 16.327 |
| Okasiozkoa | – | 0,2 | 0,1 | 0,1 | 1.633 |
| Ohizkoa | 0,2 | 1,1 | 0,2 | 0,5 | 8.163 |

Gure laginaren arabera ez da heroinaz beste opiazeorik kontsumitzen. Kontsumitzaile ohizkoak 8.000 dira gutxi–gorabehera, eta horien artean ez dugu 25 urtetik gorako bat ere aurkitu. Sexua eta kontsumoa aztertuz, gizonezkoen aldeko diferentzia oso nabaria ikusiko dugu.

Zortzi mila pertsona horiek datu orientatiboa dira eta, estimazio puntuala baino lehen, portzentaiak ikustea komeni da, edo, bestela, interbalo–estimazioa egitea.

### Opiazeo-kontsumoa eta sexua

| Mailak | Portzentaiak | |
|---|---|---|
| | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| Esporadikoa | 0,6 | 0,4 |
| Okasiozkoa | 0,1 | – |
| Ohizkoa | 0,4 | – |

## Anfetaminak

### Anfetamina-kontsumoa

| Mailak | Portzentaiak | | | | Estimazio puntuala |
|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | Gip. | Bizk. | E.H.K.A | |
| Esporadikoa | 5,4 | 5,3 | 3,0 | 4,6 | 75.104 |
| Okasiozkoa | 1,6 | 1,7 | 1,0 | 1,4 | 22.858 |
| Ohizkoa | 1,4 | 1,4 | 1,4 | 1,4 | 22.858 |

Kontsumo hau, beste droga–motetan ez bezala, berdintsua da sexuen artean. Berrogei urtetik gorako pertsonen artean ere ageri da, eta ez bakarrik gazteen artean, legezkontrako drogetan gertatzen den bezala.

**Anfetamina-kontsumoa eta sexua**

| Mailak | Proportzioa | |
|---|---|---|
| | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
| Esporadikoa | 1,5 | 1 |
| Okasiozkoa | 2 | 1 |
| Ohizkoa | 1 | 1 |

## Eztabaida

Datuak aurkeztu ondoren, eztabaida labur bat egingo dugu, droga bakoitzaren zehaztasunak explikatuz.

Alkohol–kontsumoari buruz, edateko ohiturak aldatzen ari direla ikusten da: E.H.K.A.ko populazioak ez du eguneroko kontsumoa aitzina bezala egiten gaur, eta asteburuetakoa gehiegizkoa bihurtzen ari da. Emakumezkoen partizipazioa ere handitu egin da eta edari–mota pattarraren kontsumora mugitu da.

Cannabis–kontsumoa gauza arrunt bihurtzen ari da gero eta gehiago, eta gazteen artean garrantzi handiarekin.

Opiazeoen kontsumoa garrantzitsua da; trafiko–katearen maila bat da. Badirudi Estatu Espainoleko beste leku batzuetan baino zabalduagoa dagoela gurean, nahiz eta kontsumitzaileen berezitasunak berdintsuak diren edonon. Gure ikerketan azaltzen den datu interesgarri bat, kontsumitzen hasteko adinaren bataz–bestekoa da: beste drogena baino goiztiarragoa da, eta hori (beti gure laginean) droga–eskaladaren ideiaren aurka doa.

Kokaina–kontsumoa ez dago oso zabaldua mementu honetan, eta talde sozio–ekonomiko jakin batean ikusten da. Honek ez du ezer esan nahi, zeren, droga honen kontsumoa beste lekuetan bezala bilakatzen bada, drogarik erabiliena bihur bait daiteke. Azken urte hauetan horrelako aldaketa ari da ikusten zerbitzu askotan, eta gero eta kokainomano gehiago tratatzen dira.

Azkenik, eta datuak eman ez ditugun arren, psikotropoei buruzko kontsiderazio bat egingo genuke. Kontsumoa adin–talde guztietan ageri da, motibazioa eta kontsumo–modua bakarrik aldatzen direlarik. Zaharren artean errezeta ofizialaren bidez lortzen da; Gipuzkoan jarri den psikotropo–errezeta bereziak lagunduko du, noski, kontsumo hau kontrolatzen, eta beste lekuetan praktikan jarri beharko lukete.

## Ondorioak

Lehenengo esan behar duguna da, honelako ikerketarik ez dela E.H.K.A.an egin. Azken egun hauetan drogari buruz datu batzu agertu dira komunikabideetan: guk ez dugu datu horiekin zerikusirik, azalduak eta gureak oso antzekoak badira ere. Lan horretan ez dira explikatzen datuen iturburuak eta horiek lortzeko erabili den metodologia: gure ustez oso arriskutsua da, landa–lanik egin gabe, prebalentziazko datuak ematea. Ematen den informazioa ongi egiaztatua ez bada, nekez esango dugu egia, eta, horrela, ez dugu sekula irabaziko gaisoen eta populazioaren konfidantza. Gainera, gure ustez, Estimazio Puntuala datu orientatiboa da eta portzentaiarik edo/eta interbalo–estimaziorik gabe aurkeztea, alarma sortzeko inprezisioa besterik ez da.

Eskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 180. zenbakian (1983–XII–6), erabaki hau dator:

Azaroaren 28ko 261/83 Dekretoa, Sorgorgarrizalekerien aurkako Ekintzarako Sailarteko Batzordea Sortarazteari buruz.

Jaurtze–Batzordeak hartu duen erabakiaren arauera eta, alkoholaren eta sorgorgarrien egaripen handiaren ondorioz, Euskadiri gauzazko, gizarte eta ekonomiazko kalte larri bat ekartzen diola kontutan izanik; alde batetik, soziologiazko zioen aztertlanera eta bestetik neurri zehatz eta eraginkor batzuren egitamuketara zuzen dadin antolakidetutako ekintza bat beharrezkoa da.

Hori horrela, Osasunketa eta Gizarteseğurantza, Herrizaingo, Hezkuntza eta Kultura, eta Lehendakaritza–Sailburuen saloz eta, Jaurtze–Batzordeak 1983.eko Azaroaren 28an egindako bilkuran, zera

ERABAKITZEN DUT:

1. Atala.— 1. Sorgorgarrizalekerien aurkako Ekintzarako Sailarteko Batzordea sortaratzen da.

3. Atala.— Batzordeak, 6 hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko dizkio Jaurlaritzari bere ondorioak, eta haien artean honako hauek sartu beharko dira nahitaez:

a) Egaripenaren, gizarte–eraginaren, lan–istripuen, gaizkiletasunaren, ekonomia eta gizarte–gosteen eta beste eskualde edo herriekingo alderatzezko azterlanen (joeren) alderdi ezberdinetango gaurko egoera.

b) Sail ezberdinek eta bai beste herri–agintaritza batzuek ere, luzaro gabe hartu beharko dituzten ihardutze–neurriak.

c) Luzaro eta luzaro gabe, gaitzari aurrea hartze, sendatze eta berriz gaitzeko neurriak barnean eraman ditzan ihardutze–egitamua.

Guk geure datuak, neurketa–tresnak eta experientzia eskaintzen dizkiogu batzorde honi; datu hauek, batez ere, tendentzi eta intzidentzi ikerketak egiteko beharrezkoak direlakoan.

Ikerketa honetatik, ez ditugu orain arte frekuentziez beste datuak atera. Ikerketaren alde soziologikoa lantzen ari gara mementu honetan: artikulu honetan argitaratzea gustatuko zitzaigukeen, baina lan hauek oso zailak dira eta, garapen egoki bat lortzeko, laguntza asko behar da; une honetan, berriz, laguntza hori ez da inondik ageri.

Euskadiko lan orijinal eta bestetan egin gabea bazterturik edukitzea, tamalgarria da. Bizkaiko alkohol–kontsumoaren tendentziari buruz guk egindako lana ez da inon egin, edo, egina balego ere, ez dugu argitaldarietan ikusi.

Azken kontsiderazio hauek egin ondoren, geure lana eta laguntza eskaintzen diogu berriro «Sorgorgarrizalekerien aurkako Ekintzarako Sailarteko Batzordea»ri.

**Imanol Kerexeta Aierdi**
Gipuzkoako Foru Aldundia. Tolosako Adimen Osasunerako Zentrua

**Javier Ballesteros Rodríguez**
Euskal Herriko Unibertsitatea. Psikologia eta Psikiatria Saila

**Fernando Marquínez Bascones**
Bizkaiko Foru Aldundia. Kanpo–zerbitzu Psikiatrikoaren Zuzendaritza

**Migel Gutiérrez Fraile**
Arabako Foru Aldundia. Santiago Apóstol Hospitaleko Zerbitzu Psikiatrikoaren Zuzendaritza

**Iñaki Aranberri Miranda**
Droga Arazoen Koordinakundea

## *LA EPIDEMIOLOGIA DEL CONSUMO DE DROGA EN LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA*

## L'EPIDEMIOLOGIE DE LA CONSOMMATION DE DROGUE DANS LA COMMUNAUTE AUTONOME BASQUE

*Los datos que aporta la epidemiología del consumo de droga son necesarios tanto para su prevención como para su tratamiento asistencial. Son, además, importantes para medir la magnitud del problema. Los datos aquí aportados son fruto de una encuesta realizada en la Comunidad Autónoma Vasca.*

*En primer lugar se indican algunos datos técnicos sobre la muestra elegida para la encuesta, sobre el grado de confianza que merece là encuesta; se ofrecen además algunas precisiones sobre la clasificación de bebedores y de consumidores de droga utilizada en la encuesta.*

*Luego se ofrecen los resultados sobre el consumo de alcohol, cannabis, cocaina, alucinógenos, opiáceos, anfetaminas. En los diferentes cuadros se toma en cuenta especialmente la incidencia del sexo, de la edad, de la provincia. Estos resultados van seguidos de algunas observaciones sobre el consumo de cada una de las drogas.*

*Los autores de la encuesta cierran su trabajo subrayando la necesidad de datos bien contrastados, para evitar informaciones alarmistas y no perder la confianza de la población de los enfermos, y ofrecen su colaboración al Gobierno vasco.*

---

Les données apportées par l'épidémiologie de la consommation de drogue sont nécessaires autant pour la prévention que pour le traitement médical de ce mal. En outre elles sont importantes pour mesurer l'ampleur du problème. Les données ici reccueillies sont le résultat d'une enquête réalisée dans la Communauté Autonome Basque.

En premier lieu sont indiquées certaines données techniques sur l'échantillon choisi pour l'enquête, sur le degré de fiabilité de celle–ci; d'autre part des précisions sont données sur la classification de buveurs et de consommateurs de drogue utilisée dans l'enquête.

Ensuite, on trouve les résultats sur la consommation d'alcool, cannabis, cocaïne, hallucinogènes, opiacés, amphétamines. Les différents tableaux tiennent compte spécialement de l'incidence du sexe, de l'âge, de la province. Ces résultats sont suivis de quelques observations sur la consommation de chacune des drogues.

Les auteurs de l'enquête achèvent leur travail en soulignant la nécessité de données bien contrastées pour éviter des informations alarmistes et ne pas perdre la confiance de l'ensemble des malades et de la population en général. Enfin, ils offrent leur collaboration au Gouvernement basque.

# Droga Nafarroan

**Nikolas Ziganda**

«Tximak luze, ideiak labur» (Antoine Michel Ponnaref). 68 eta 69ko mugidetatik urratutako, eta lortu gabeko Paradisu Terrenalaren antsia haien ajea bizi du 120.000 biztanleko Iruñea zaharrak, 1974ekoak. Komuna libertarien eta lizeo eta produkzio–zentruak hartzearen nostalgia. Klandestinitatean, partidu berriak eratzen dira, Seminarioan·bokazio berankorrak sortzen, militatu egiten du jendeak eta «antifaxismo» kontzeptua ezartzen da, hiriko mugidari koherentzia ematen diona. Zenbait sektore anarkistatan, barrikada eta porrua tartekatzen dira. Erreberi jarrera orokor baten aurrean aurkitzen gara.

Langile– eta estudiante–mobilizazio handiak: Authi–ko greba, Potasas–ekoa, Puig Antich hil dute legalki. Elizak Humanismorantz bir–zuzentzen du bere norabidea: Base–-ko Komunitateak, ekintza politikorako azpiegiturak; askok eta askok utzi egiten dute sotana.

Haschish–merkatu klandestinoa kontsumitzaileek berek asetzen dute, Moro–tik edo Andalus–tik.

**1975**

Portugalgo Iraultza. Txiki, Otaegi eta beste hiru antifaxistaren fusilaketak. Diktadorea hil.

**1976**

Indultuak, Amnistiaren aldeko Borroka. Mugimendu nazionalista aurrera doa, goraka, sakoneko identifikazioa bilakatzen da, sustraietakoa, eta egoeraren arabera egiten da lan: Hazte–krisiak ETAn. «Gora gu ta gutarrak», «Todos aprendemos euskara». Marxismo leninista.

Hein berean, atzerriratuen itzultzearekin batera, botika–gai eta opioaren aurren deribatuak hasten da kontsumitzen sektore txiki eta erre bat. Formula berrien bilaketa dator, sentsazio eta pertzepzioen bidez ideatzea. LSDren gorakada. Edukin berritzailez betetzen dira drogak. Probokatzen duten psikopatologiak liluratu egin gaitu psikologo, psikiatra eta profesionalak. Gehixeago edo gutxixeago, edonor ausartzen da anfetaminak edo azidoak probatzera. Intoxikazioz betetako koadro batzu agertzen dira, eta Gurutze Gorriko alkolismo–dispentsarioan jasotzen dituzte batez ere.

Kanutuak, bestalde, hedatzen ari dira. Errebindikazio–ideologiaz betetzen dira eta, dialektikoki, haien errepresio–pasioa sortzen dute. Izu–epe baten aurrean gaude. Dispentsarioan ama atsekabetuei egiten zaie kasu, gaztetxoak bere burua urkatzeko ideiekin agertzen dira, komisariek informazioa eskatzen dute. Porruak, esannahiz beteta, liluratu egiten ditu kaleak.

Modernizatu egin dira anfetaminak eta barbiturikoak, heroina ere agertzen hasten da, Pentazozinak eta Sosegón izenekoa erabiltzen dira jada; beranduxeago Tilitratea sartu zen. Opiazeoak Europatik jaisten dituzte kontsumitzaileek berek. Gainerako drogak erraz lortzen dira farmaziatan lapurtutako edozein errezetaz, edota sendagileari eskatutakoaz, edota botikari eskuzabalak emandakoaz.

**1977**

Lehen hauteskunde politikoak igaro ondoren, jaitsi egiten dira langile–mobilizazioak. Bronka nazionalista hor mantentzen da: Askatasunaren Ibilaldia, Amnistiaren aldeko astea. Cano akabatu dute Caldereria kalean. Altsasuko Mahaia sortu da. Erreberi jarrera.

79.eraino iraungo du egoera honek. Udal–etxe eta Foru–Diputaziorako hauteskundeak pasa ondoren, militantzi krisi sakon bat ematen da. Eliza Katolikoak mistika aldera jo du, Espiritu Santuaren aldera: Komunitate karismatikoak, erlijio Ideal goren bat... Paternalismoaren eragina berrartzen dute: Etsipena, Malko–bailara. Haren ekintza bikoitza da eta humanismo marxistaren kontra egiten du eraso, nahiz eta arestian hari hurbildu. Hein berean, *Ez dok amairu*–koak eta hauen jarraitzaileak baztertuak daude jada; baita Serrat eta Pako Ibáñez ere; eta Lux Zine kluba itxi dute. Kalean Katmandu–z hitzegiten da, Ying Yang eta Zen–ari buruz. (UCDren diagramaren analogia). Lurpeko lehen komiki ofiziala («Sanfermines 78») kaleratu da, edizioa agortu gabe. Ugaldu egin dira porruak, hegan egiten da eta ahaztu. Heroinaren hastapenetako abiarazle haiek egunero behar dute, eta, ondorioz, Europatik eta batzutan Indiatik (Thailandiarretik), gastuak kitatzeko eta kontsumorako lain dakarte. Trapitxeoa nabarmen gertatzeko moduan hasia da, aurreneko «tiroi»ekin batera.

Urte hauetan, aldez aurretik sekula bizi izan gabeko historia batekin egin du topo Iruñea zaharrak; eta, hasiera batean, egoerari harriduraz erantzuten diola ikusiko dugu, gertatzen dena ukatu nahian; gero nahastua egongo da, noraezean eta bere onetik aterata ekingo dio desordenatuki. Asentatuago gero, joera ordenatuago batzutan antolatuko da. Aurrerago lortuko ahal du arazoa aztertzea!

## 1978

Psikopatologian *anomia* izena erabiltzen hasi dira. Zera definitu nahi da: ezarritako helburuak onartzen dituzten, baina horiek lortzeko arauak desobeditu behar dituzten pertsonen egitura sozial bat. Hau da, helburuen eta hauek lortzeko arauen arteko haustura. Orduan, gizarteak eredutzat jarritako helburuak betetzeko, gizarte horren berorren arau ondradu, onargarri etab. deituak desobeditu behar dira.

Eroetxea birplanteiatzen da, lotura bikoitzaz hitzegiten. Jarrera patologikoa, ingurunearen beharren eta norberaren barren arteko arazo ez–konszientearen adierazle bezala hartzen hasten da. Sintomaren mamia bilatzen da.

San Ferminetan, German akabatu dute. Harriak tira eta kanutoak erre. Tira eta erre. Denok gaude.

78.a da eta gure Alkoholismo-Zerbitzuan heroinazaleak agertzen dira «mono»ak dauzkatela. Hiri barnean kokatutako Alkolismo- eta Toxikomani Zerbitzu paraleloan, Gurutze Gorriarenean, etengabe jasotzen dira patologia ezberdinek eta edozein drogak eragindakoak, ama-fantasmetatik hasi eta heroinaren abstinentzi sindromeetaraino. Lehenengo aldiz ikusten ditugu nahasmendu--eldarniozko eta banaketazko koadroak, eta psikosi endogenoetatik desberdinduriko diagnostikoetara behartzen gaituzte. Diagnosi-lan honek, multzo subkultural, periferiko eta batasun handiko bat erakusten digu, harreman erraz eta toleranteen itxura ematen duena. *Junkie*-a topatu dugu, Burroughs irakurri, eta honen inguruan, merkatua itota daukaten komikien hizkerak isladatzen duen bizimodu-mota bat eratzen da.

## Gero

Nahiz eta Lizarran, Tafallan, Tuteran... Iruñetik kanpoko herrietan oraindik ere bizirik iraun, nazio– eta klase–mugidak desegituratuz joan dira. Sortasun zabaldu bat dago, *laissez faire, laissez passer* bat, mugida sozial eguneroko eta puntualetara zuzentzen da erreberi jarrera.

LSDa amore ematen hasten da, *haschish*–a aurrera doa eta heroina era berean. Distribuzio–bideak egituratu gabe daude oraindik eta autojestio moduko batez dihardu merkatuak.

Sozialki, fenomenoaren aurrean, «mugimenduen enbata»ren antzeko egoera batean bizi gara. ETAren ekintza irrazional batzu, geureak, epaileenak, dendarienak, auzoenak, gurasoenak... Zerbait egitera behartuak gaude, hiri patxarosoaren sistema zartatu egin da eta dardar egiten du.

Gehiago sartzen dira gure Eroetxe–Zerbitzuan, Klinika Partikularrak erabiltzen dira, Seguritate Sozialeko medikuak ere tartean sartzen dira, gurasoak batzordetan biltzen dira, Probintziako Gartzelak ez du sekula hainbat preso eduki, nahasketa sortzen dute Osasunaren aurkako delituez egin juizioetako lehen peritajeek. Kaosa iritsi da, Iruñea zaharreko zibilizazio burges–txikia kolokan dago... Iraultzailea ote heroina? Atzo barrikadak zeuden tokietatik, Nabarreria Burgoa, Caldereria, Curia, Del Carmen kaleak, ezin ibili gaur, *junkie*–ak egin dira horien jabe eta arriskutsua da hortik agertzea.

Espezializatu egin gara; bidaiak kanpora doaz, Beterara, Bar-

tzelonara, Madrilera. Kongresuetan aztertu egiten da fenomenoa, zatika begiratu eta ikuspegi batetik hipotesizatu. Gurasoen batzordeak, eragindakoen elkarteak dira jada, izen eta guzti: Zandueta, Larraingoa. Herri–koordinakunde bat eratzen da ekintzei orden pittin bat emateko. Auzo–Elkarteak, Legegizonak, gazte–taldeak, profesional–mota diferenteak horko partaide bilakatzen dira. Majistratuekin jartzen da harremanetan, sendagileekin, eta gartzelako asistente sozialekin. Patriarka–renak datoz. Prebentzio–programak hasten dira prestatzen, asistentziarenak maila guztietan, rehabilitazioa. Hiritarren jarrera aldatu nahian egiten da lan.

Diskurtso honetan parte duen bestea, bestalde, sozializatu egin da: hasierako errito–girotik eta autoabastezimendutik, piramidean egituraturiko merkatu mailakatu batetara pasa gara. «Hautsa», garai batean «zaldi» deitua, Amsterdam–etik dator gehienbat; pasatzen dutenak, ez–konsumitzaileak, «gito» edota sudaka bezala ageri dira («bestea, atzerritarra da gaiztoa», beti). «El Víbora»ko *junkie*–ak eta mangiak desagertu dira. Konsumitzailea ni izan naiteke, edo hi, Los Caídos hartako Zona Nazionaleko ume pijo hori, edota Eroskin lan egiten duen kurrela bat. Aurreneko lana aurkitu ez duen langabetua, Txantreakoa, edota San Jorgen bizi den emigrantea. Moto Mendi edo Lancelot bezalako taberna ilun misterio erromantikoz betetako haietan «zaldia» (oraindik ere erabiltzen da argotean) bila dezakezu, edozein auzotako edozein taberna edo kafetegitan.

Organizatu egin gara. Organizatu egin dira.

Arazo indibidualak («nortasun heldugabeak dira, itxaropen gabekoak, erromantiko berriak») leku egin dio arazo kolektiboari: «giza alienazioaren adierazle da», «biktimak dira, Sistemaren ondorio eta honentzat baliagarri». Haur eta gazteen jarrera eta motibazioei buruzko inkestak zabaltzen dira. Zaindu egiten dira eskolumeak, «arrisku handiko giza multzoak» definitzen. Eztabaidatu egiten dugu Anomia kontzeptua.

Iruñetik kanpoko herri aktiboak, desenkanto politikoa hasia dago, inbaditu egin ditu produktuak eta hain ondo organizatutako hiriburura jotzen dute jakinminez.

Egoeraren aurka punta–puntan dabiltzanak ondo antolatuta egituratzen dira. Orekatu egin da sistema. Kontsumitzaile bakoitzaren ezaugarrien araberako sendatze–aurrikuspenak egin ditzakegu jadanik. Gero eta antz handiagoa dute heroinazaleek eta alkoholzaleek. Alkoholiko Anonimoen antzeko elkarteak sortzen hasten dira toxikomano ohiak. Patriarkak, «Ordenu Sozialaren

zaintzaile» zaharra gogoratzen digu. «Zulatzen» den gizona itsusi geratzen da pertsona bezala eta gaisotu egiten da. Teknika konduktisten eta analitikoen zaparradak datoz, ahaztu egiten dira gizakiaren «orain eta hemen»go sufrimenduak. Lortu da gizabanakoaren psikiatrizazioa. Drogatu egiten dira gizabanakoak, Estatua indartu.

OHO 8.eko neskakoxkorrak noiz aterako, zeletan dago Sacré Coeur–eko atarian abrigo griseko gizona. Kubataz karga–karga egindako hippy zahar bat egiteko dagoen 68ko iraultzaz ari da... Irrati piratetan, bietan, Barricada eta Motos entzuten da. Amelin–-en azken zenbakia kaleratu da.

**Datuak**

— Heroinari atxekien kopurua: 1.500/2.000 (%0,3tik 0,5era laginen arabera).

— Heroinaren konsumoko prebalentzia: 18 urte.

— Mailarik goreneko hiriguneak: Iruñea, Altsasu, Tuterako merinaldea (Kalagorri).

— Mafiak: bi suposatzen dira.

— Instituzionalizatu gabeko drogak erabiltzen hasteko modan hasiera–adina: 15 urte.

— Iruñeko drogen koordinakundearen tel.: 11 15 98. Gaurregun rebisioan, hasieran ezarritako helburuak bete ondoren.

— Laguntza Publikoa: Alkohol– eta droga–zerbitzua (Gurutze Gorriaren tel.)

Alkohol– eta droga–zerbitzua (Hosp. Psikiatrikoa)

— Laguntza partikularrak eta subentzionatuak: ANTOX, ZANDUETA, ELORZ.

— Beste zenbait laguntza partikular: CUN, Elizondoko klinika.

Euskaratzailea: **Iñaki Uria**

*N.Z.*

## *INTERACCIONES DE LAS DROGAS EN NAVARRA*

## INTERACTIONS DES DROGUEZ EN NAVARRE

*El autor ha elaborado este artículo sobre la experiencia personal acumulada en el entorno pamplonés, respecto al fenómeno de la droga.*

*Se refiere a la evolución sufrida por la sociedad de Pamplona desde 1974 hasta hoy. Describe la euforia revolucionaria, las movilizaciones de trabajadores y nacionalistas, el aire de los ambientes eclesiales, etc. que se podía respirar hacia 1974, y el desencanto y la desmovilización a partir de 1978.*

*Informa asímismo sobre cómo se introduce el consumo de las diversas drogas, cómo se procura la droga el drogadicto (en un principio autoabastecimiento; hoy distribución en un mercado piramidalmente organizado). Señala también las diversas reacciones de la sociedad, de los padres de los afectados por la droga, de los estamentos más o menos oficiales, de los responsables sanitarios.*

*El artículo se cierra con unos datos precisos sobre el número, la edad de los heroinómanos, la edad en que se inicia en el consumo e información sobre los servicios asistenciales públicos y privados de Pamplona.*

---

L'auteur a élaboré cet article en se basant sur l'expérience personnelle accumulée dans la zone de Pampelune sur le phénomène de la drogue.

Il se refère à l'évolution subie par la société de Pampelune de 1974 jusqu'à nos jours. Il décrit l'euphorie révolutionnaire, les mobilisations de travailleurs et nationalistes, l'air de renouveau des milieux ecclésiaux, etc. que l'on pouvait respirer vers 1974, puis le désenchantement et la démobilisation à partir de 1978.

Il informe aussi sur la façon dont sont introduites les différentes drogues, comment se procure la drogue le toxicomane (dans un premier temps, il s'agit d'un auto–approvisionnement; aujourd'hui on a affaire à la distribution dans un marché pyramidalement organisé). Il signale aussi les diverses réactions de la société, des parents de drogués, des instances plus ou moins officielles, des responsables sanitaires.

L'article s'achève par des données précises sur le nombre d'héroinomanes, leur âge, l'âge où l'on commence à consommer la drogue, ainsi que des renseignements concernant les services d'aide publics et privés de Pampelune.

# Droga Iparraldean

**Dominique Lhande**

*Etude de la toxicomanie au Pays Basque Nord* deitu ikerlana egin berri dugu, frantsés estatuarekin konparaketak eginez, ikusteko zertan dagoen eta nora doan drogaren fenomenoa orokorki Ipar Euskal Herrian. Estatistiketarik abiatu gara, nahiz ez diren aurki errazak, ez eta ere beti fidagarriak. Gero gure datuak zehaztu beharrez ikertu dugu zer oihartzun aurkitu duen fenomeno horrek gure eskualde honetako osasun– edo gizarte–lanetan diharduten erakunde edo zerbitzuetan.

Bi maila horietan egin dugun ikerlanari esker, orain hemen eskain dezakegu gure egoeraren analisia alde batetik eta interpretazio baten proposamena bestetik.

Aitor dezagun gure lan hau hurbilketa bat besterik ez dela. Hona ezen nola jokatu garen.

— Lehen urrats bezala, Justizia–ko ministeritzak eta Baiona–ko auzitegi nagusiak eskaintzen dituzten estatistikak kontsultatu ditugu. Eskutaratu ditugu ere Osasuna–ren ministeritzako estatistikak eta lekuko bai Pariseko epaile eta administrari zenbaitek prestatu txosten bereziak. Dokumentu horiek orok hein bat argitu digute bidea.

— Bigarren urratsa izan da, gure Kostalde honetan drogaren problematikari interesatu zaizkion pertsona batzuekin solastatzea. Ez ditugula oro mintzatu ahal izan erran behar ote dugu?

Puntu hau zehaztu nahi dugu bada: toxikomaniaz ari garela bakarrik eta ez tabakoaz ez alkoholaz. Bestalde, Kostaldeaz mintzo gara Euskal Herri Barneaz baino zehazkiago, barnekaldean ohizko balore egituratzaileek bait diraute oraino gazteen artean, gure ustez bederen. Azkenekotz, Baionatik Hendaiarako tartean bizi direnen artean ez ditugu bereizi kanpotiarrak, hots Euskal Herrikoak eta besteak, etorkinak.

# 1. Datuak

## 1.1. «Justizia»ren datuak

Erakunde gaztigatzaileen zenbakiak ikertuz, ez dugu ez zuzen eta zehatz neurtuko droga fenomenoaren egoera, baina haren itxura eta bilakaera orokorra bederen hauteman dezakegu.

### 1.1.1. Estatu–mailan

1960az geroz nabari da, jendarmek eta poliziak bahitu dituzten drogazaleen kopurua goiti doala; adibidez: 1968an izan dira 207 galdekatze; 1982an, 22.146, hau da: %58,59 gehiago.

«Galdekatze» diogularik, adierazten dugu, pertsona bat poliziak gelditu duela eta gero edo bere bide utzi edo auzitegietara bidali; adibidez: 1971n, poliziak galdekatuetarik 339 bere bide utzi dira, eta 1.063 auzitegietaratu; 1980an, poliziak galdekatuetarik 2.216 bere bide utzi dira, eta 4.038 auzitegietaratu.

Hurbilagotik ikusiz, ohartzen gara gaztigu–kasuak desberdinak direla:

| urteak | 1971 | 1973 | 1975 | 1978 |
|---|---|---|---|---|
| erabilpena | 304 | 561, h.d. %32 | 933, h.d. %36 | 1.711, h.d. + %42 |
| trafikoa | 292 | 398, h.d. %22 | 440, h.d. %17 | 986, h.d. + %24 |
| erabilpena + traf. | 444 | 696, h.d. %39 | 786, h.d. %30 | 1.726, h.d. + %43 |
| aduanako hutsak | 146 | 191, h.d. %11 | 221, h.d. %9 | 437, h.d. + %11 |

### 1.1.2. Eskualde–mailan

Estatu–mailan ez bezala, gure eskualde honetan zenbakiak aldatzen dira, baina ez asko goititzen; adibidez: 1971n egin galdekatzetan, 2 pertsona bere bide utzi dira, eta 15 auzitegietaratu, 1980an egin galdekatzetan, 4 pertsona bere bide utzi dira, eta 47 auzitegietaratu.

Goititze horren berezitasunak hurbilagotik ikus daitezke:

| urteak | 1971 | 1973 | 1975 | 1978 |
|---|---|---|---|---|
| erabilpena | 0 | 0 | 0 | 0 |
| trafikoa | 0 | 2 | 8 | 21 |
| erabilpena + traf. | 2 | 18 | 7 | 5 |
| aduanako hutsak | 5 | 12 | 2 | 0 |

Ikusten denez, frantses estatuari konparatu–ta, Baionako auzi–barrutian Justizia–ko ministeritzako datuen arabera, drogaren erabilpen– eta trafiko–problemek ez dute garrantzi handirik.

## 1.2. «Osasuna»ren datuak

Aitzineko datuak argi ditzakegu orain Osasunaren ministeritzako zehaztasunekin.

### 1.2.1. Estatu–mailan

Drogazaleen artean emakumezkoen kopurua gero eta gorago doa, nahiz drogazaleak artatzen diren etxeetara emakumezko gutxi agertu. Bestalde, gero eta gazteago ere dira drogazaleak (16–20 urte) eta langabeek gainditzen dituzte lizeoetako ikasleak eta unibertsitariak.

### 1.2.2. Eskualde–mailan

Askoz ere gizonezko gehiago badugu galdekaturik emakumezko baino, eta hauek baino gogotikago sartzen dira artatzeko etxe

berezietan. Drogazale horiek gazte–gazteak dira maizenik (16–20 urte) eta gehienak langabezian daudenetarik.

Hiri batetik bestera desberdintasunak nabari dira bai drogazaleen bai artatzen direnen kopuruan. Hala nola, Baionan da gaitza hedatuenik, hor bait ditugu ere aurkitzen *grands ensembles* deitu bizitegi metatuak. Miarritzen eta Donibane Lohitzunen ez da hein berean sartua gure iduriko. Eskolak txikiago dira, ohiturak finkoago eta elizaren itzala menturaz indartsuago. Hendaiako hiriak, aldiz, muga–mugan izanez, problema bereziak ukan ditzake drogarekin.

## 2. Ihardukiera

Dezagun, bada, erran nola iharduki gaur hemen drogaren fenomenoari bai maila sozialean bai mediku–sailean.

### 2.1. Maila sozialean

Hor dugu alde batetik, nork edo nork, bere kabuz, han edo hemen eman dezakeen urratsa eta eskukaldia. Hor da gero batasun berezien, Miarritzeko A.R.I.T. eta Hendaiako *Hirekin* bezalakoen lana.

A.R.I.T.en *(Association pour la Recherche et l'Information sur les Toxicomanes)* helburuak hauek dira:

— Gaitzari ahalaz aitzindu eta gaitzak joak bere gain hartu

— Jendea ahalaz argitu eta eskolatu

— Ikerlanak bultzatu.

Helburu horien mugan ari dira lanean lau edukatore eta mediku psikiatra bat. Badabiltza karriketan, ostatuetan, jolastegietan, hots: olgeta– edo josteta–toki guztietan. Bestalde, bulego bat zabaldurik daukate, drogazaleei eta hauen etxekoei irekia dagoena eta psikoterapiazko arta batzuentzat egokia dena.

*Hirekin* batasunak, berriz, lan egin nahi du bakarrik Hendaiako hiriaren mugetan. Hein bereko hirien problema berdinak dituzke Hendaiak, baina menturaz berezitasun zenbaitekin: behin,

mugan aurkitzen da, eta, mugaz bestaldean errazki eskuratzen omen delakoan droga, gazte asko horra bil daiteke.

Mainu–toki bait da ere Hendaia, udatiarren artean etor daiteke drogazale ezezagun anitz; eta jakinez gero nola drogazaleak lagunen ondotik ibiltzera ekarriak diren, eta nola gazteak errazki elkarretaratzen diren, horrelako jende–nahasketarik aurkitzen ez den hirietan ez bezalako arriskuak daude hemen.

Kezkagarriago oraino, gure ustez, Hendaiarrentzat Espainiako parlamentuak hartu berri duen erabakia: droga guztien erabilpena zilegiztatu bait du Espainia guztian. Hendaiar gazteek alabaina mugaren bestaldean droga hartzen ahalko dute engoitik errazki. Erabaki horren ondotik, bestalde, urruneko drogazaleek Hendaiara hurbildu nahiko dute, bai bait dakite hortik edozein «topo» edo autok Donostiara laster eraman ditzakeela.

Horrela nabari diren lanjer berrien aitzinean, badirudi lan onik egin dezakeela oraino Hendaian berean *Hirekin* batasunak.

### 2.2. Mediku–sailean

Drogazaleak behar du lehenik bere drogatik higuindu eta gero bere psikoterapia onartu. Lan hori egiten da gure eskualdeko etxe berezi askotan: Baionako ospitalean, Larresoro edo Bellevue–ko zerbitzuetan, klinika zenbaitetan.

## 3. Gogoeta batzu

Xehetasun eskas horietarik landa, bizpalau gogoeta egin daitezke: Gure Kostalde hau lanjerretik urrun dagoen xoko berezia ote dugu? Estatu–mailan gertatzen dena ikusita, aitor dugu Baionako auzi–barrutian beste molderik dugula orainokoan: Bazter orotan zenbaki guztiak batean goiti doazelarik, hemen gora–beheraka gabiltza bilakaera baten barnean. Gure Kostaldea mainu–toki dugu bada eta ere mugalde. Bi baldintza hauek drogaren erabilpena eta trafikoa emenda zezaketen.

Drogaren erabilpena eragin zezaketen beste faktore batzu aipa ditzakegu oraino: Hor ditugu Ameriketako, Ingalaterrako eta

Australiako «surf»zaleak, *haschich*–a erraz darabiltenak: Mundu zabaleko hondartza guztien itzulia egiteko behar duten dirua droga–trafikoak ematen diela, jakina omen da. Bestalde, Hego Euskal Herrian dituen problema politiko guztiekin poliziak aski lan duela bait dirudi, drogaren eta drogazaleen ondotik ibiltzeko ez duke gero gogo handirik, polizia horrek berak. Erran ere dugu, bestalde, drogaren erabilpena bera zilegiztatu dutela Espaini aldean.

Nondik dator, beraz, hein bat apala izatea Ipar Euskal Herrian toxikomania?

Lehenik, baserriko biziari hurbil dago oraino hemengo jendea. Hiri handietako bizimoldea ez da hona heltzen. Kostaldeko hiriak berak hiri txikiak ditugu; hein oneko hiriak.

Bigarrenekorik, bilakaera urri honi esker, ohizko zenbait balore ongi zaindu ditugu, hala nola familiakoak, gutartean hain garrantzitsuak! Gure eskualdeko drogazaleak berak nolabait loturik daude oraino beren familiari: familiari jazarri zaizkio, baina familiarekiko lokarriak ez dituzte gehienetan hautsi nahi.

Ez dugu bizkitartean zeren erran, drogaren problemarik ez dugula Iparraldean. Begiak ireki behar ditugu; zenbakietarik ageri da, hemen ere sartzen ari zaigula. Hemen ere hiritartzea aitzina doa eta honekin nahitaez gizartearen aldaketa. Hein bat gainditu gero, badakigu, bestalde, fenomeno asko bat–batean azeleratzen dela. Horra zergatik argitze, lasaitze eta eskolatze politika bat beharrezko den aitzinetik, gero etorriko diren gaztigu zein sendagailuek ez bait dute aldatu den gizona berrituko.

Euskaratzailea: **P. Xarritton**

*D.L.*

---

### *LA DROGA EN EUSKADI NORTE*

### LA DROGUE EN EUSKADI NORD

*La autora da cuenta del «Etude de la toxicomanie au Pays Basque Nord» elaborado sobre Estadísticas oficiales del Estado Francés y sobre los datos aportados por personas interesadas en el problema de la droga en la zona costera del País Vasco Norte. El estudio se limita a las toxicomanías, se prescinde del tabaco y del alcohol, y se centra en la zona costera.*

*Los datos aportados proceden de «Justicia» y de «Sanidad». Se refieren más concretamente a las detenciones, seguidas o no de procesamiento, por tráfico de droga, por consumo, o por ambos motivos, a nivel de Estado y de región en los años 70.*

*A continuación se indica cómo se está haciendo frente a este problema a nivel social y médico. Se enumeran la actividad de A. R. I. T. (Association pour la Recherche et l'Information sur les Toxicomanes) en Biarritz y Hirekin en Hendaya, zona particularmente vulnerable a la difusión de la droga dada su situación fronteriza.*

*Por último se enumeran los factores que favorecen la difusión en mayor grado de lo que se ha dado y las circunstancias sociológicas que le ponen freno.*

---

L'auteur fait état de l'«Etude de la toxicomanie au Pays Basque Nord» élaborée sur des statistiques officielles de l'Etat français et sur les données apportées par des personnes intéressées au problème de la drogue sur la Côte Basque en Euskadi Nord. L'étude se limite aux toxicomanies, elle ne tient pas compte du tabac et de l'alcool et concerne la zone côtière.

Les données apportées proviennent du domaine judiciaire et sanitaire. Elles ont trait plus précisément aux détentions, suivies ou non de mise en accusations, pour trafic de drogue, pour consommation, ou pour les deux raisons, au niveau de l'Etat et de la région dans les années 70.

Puis l'auteur parle des moyens utilisés pour faire face à ce problème au niveau social et médical. Elle décrit l'activité exercée par A.R.I.T. (Association pour la Recherche et l'Information sur les Toxicomanes) à Biarritz et par *Hirekin* à Hendaye, zone particulièrement vulnérable à la diffusion de la drogue étant donné sa situation frontalière.

Finalement elle énumère les facteurs qui favorisent la diffusion de la drogue à un niveau superieur à celui déjà existant, ainsi que les circonstances sociologiques qui freinent cette diffusion.

# Heroina-trafikoa Euskadin: Inplikazio ekonomiko eta politikoak

Askagintza

## Sarrera

Legezkontrako drogen gaiaz, oro har —eta are heroinarenaz, honen inguramendu bereziagatik— mintzatzerakoan, alderdi ezezagun edo, gutxienez, ustekabekoekin egiten badugu topo, arazoa irristakorrago bihurtzen da haren komertzializazioa edo legezkontrako trafikoa arakatu nahi denean, edo horretan dabiltzan interes ekonomikoei eta aginteak lor dezakeen errentabilitate politiko ikaragarriari begira jartzean, milaka pertsona bait dabil bere burua desegiteaz beste eginkizunik gabe. Gertakari ebidenteen aurrean aurkitzen gara askotan: datu–faltaz, zuzenean froga ezin daitezkeen gertakarien, baina horrenbestez beren baliozkotasuna galtzen ez dutenen aurrean. Gure lan hau, hortakoz, ezin aurkez dezakegu burutu eta dogmatikotzat, alderantziz baizik. Eskura daukagun bakarra, hausnarketarako oinarri batzu jartzea da eta, inoiz, geure eritzia agertzea heroina–trafikoarekin loturiko faktore ekonomiko eta politikoez.

Begi–bistako gertakari batetatik abiatuko gara: 1977az geroko opiazeo–kontsumoan eman den gorakadatik. Elite

batek kontsumitzen zuen heroina arlo guztietan banatzen da, horren kontsumoa alarmagarri izatera iritsi delarik (populazio osoaren %0,5ek kontsumitzen duke gaurregun). Klase sozial guztietara iritsi da, nahiz —ikusiko dugu— ondorio desberdinak izan bakoitzean, eta ez dago, dirudienez, banaketa-prozesu hori eteteko kezkarik batere (1978an 30 detentzio gertatu ziren trafikoa, edukitzea edo, gehienetan gazteen, kontsumoagatik), ez inolako kontzientzia sozialik gaiaren garrantziaz.

Beti bezala, maila ia gaindiezinetara iristean bakarrik hasten dira kontsumo horren kausei buruzko hausnarketak. Drogari atxekiak, batzuentzat, droga-kontsumoan hastera arrazoi pertsonalen batengatik predisposaturiko pertsonak dira: biziosoak lirateke, gaiso psikikoak, inadaptatuak, gaizkileak... berek nahita iritsi direnak drogamenpetasunera. Besteek uste dute, heroina-merkatuaren hedakuntzaren arrazoiak ez daudela egoera pertsonaletan, baizik eta aginte politikoak eta trafikari handiek ederki planifikaturiko operazio bati zor zaizkiola, horretan elkartzen direlarik trafikotik lorturiko irabazi handiek sortutako interes ekonomikoa eta Estatuaren interes politikoa, gure herriaren sektore potentzialki iraultzaile bat desegiteko modu erosoa aurkitu duena horretan. Hala ere, gertakariek errealitate konplexuagoa eskaintzen digutela pentsatzen dugu guk: maila pertsonal, politiko, sozial eta ekonomikoko faktoreak elkartzen dira hor, eta horiek aztertzen saiatuko gara gero.

Aitzin urrats bezala, interesgarri eritzi diogu, labur bada ere, bi experientzia historikoren aipamena egiteari, nabaria izan bait da bietan droga-merkatuaren hedakuntzaren eta interes ekonomiko-politikoen arteko erlazioa: opioaren komertzializazioa Txinan eta kokarena Hegoameriketan dira experientziok.

## Opioaren komertzializazioa Txinan

Opiomanoen herri bezala aurkeztu izan zaigu Txina: oso zabalduak daude erretzaileen eta lobelar-zelaien irudiak, eta ezagunak dituzke irakurleak. Haatik, ez da beti horrela izan: txinoek ez zuten lobelarraren lantzea ez opioaren kontsumoa ezagutu, harik eta Java okupatua zuten holandarrek Formosa irla kolonizatu zuten arte, opioz kutsaturiko tabakoa erretzeko ohitura javarra hara inportatuz. Hala eta guztiz ere, XVII. mendearen erdi-aldera debekatu egiten da Txinan tabako-kontsumoa, eta 1729an expreski galeraziko da opio-kontsumoa, portugaldarrek ahaleginak egin arren hura sartzeko.

Inperio Ingelesa jo dezakegu opio-kontsumoa Txinan masiboki ezartzearen erantzule zuzen eta behin-betikotzat. Indiaren kolonizazio ingelesaren garaian,

*East Indian Company* eraiki zuten britainiarrek, eta honek lehenik bertakoen artean hedatu zuen lobelar–lanketa eta opio–kontsumoa, etekin handiak lortuz. Beren esku–lana desegiten ari zirela ohartzean, kontsumoa Txinara exportatzen hasten dira, Gobernu Britainiarrak monopolizaturiko enpresa bezala kontsideratuz opioaren negozioaren ustiapena.

Txinako Gobernua ekintza hauen kontra jarri zen; baina deus gutxi egin zezakeen, opio–kaxak portu txinarretan lurreratzen zituzten itsasuntzi ongi babestu eta armatuen kontra. Txinarren protesta guztiek Gobernu ingelesaren ezaxolarekin egiten zuten topo; egoera honen agergarri bat, Komunen Ganbara britainiarrak 1838an harturiko erabakia da, «Indietako konpainiaren opioari buruzko monopolioarena bezalako sarrera–iturri hain garrantzitsu bat abandonatzea desegokia» litzatekeela dioena.

Txinaren protesta aspergarriak isilerazteko, inperio britainiarrak bere *Pax*–a ezarri nahiko du eta, trebeki probokaturiko gerra baten ondoren, Hong–Kong okupatuko. 1857an, berriro, indar koaligatu europarrak «zibilizazioa, askatasuna eta egiazko erlijioa» babestera joango dira, Canton militarki hartuz. Azkenik, 1860an, merkataritzan libreki onarturiko salgai bezala ezartzen da Txinan opioa; baina, hori bai, txinarrak behartuz misiolari kristauak toleratu eta are onartzera.

Opio–negozioaren interes ekonomikoak eta inperialismo britainiarra (ikusi dugunez, Gobernuaren monopolioa bait zen) egoki elkartzen dituen operazio honen ondorioak begi–bistan daude: 1871–1872 epean, 7.700.000 liberatako sarrerak eskura zizkion opioaren merkataritzak altxortegi britainiarrari, inperioaren zutabe ekonomikoetarik bat izanik. Paraleloki, 1850ean 2 milioi opiomano edukitzetik 1878an 120 milioi baino gehiago edukitzera pasako ziren txinarrak.

Azken tratatua 1860an zinatu ondoren bakarrik erabaki zuen Gobernu txinarrak opio–lanketa liberalizatzea, hiritarrek salgai atzerritarra kontsumi ez zezaten. 1936ko Japoniako gerrakoan, opioa morfina eta horoinatan transformatzeko laborategiak jarri zituzten japoniarrek. Azkenik 1949an, iraultza bitartean opioaren lantzaile eta negoziatzaile handiek Thailandia eta Birmaniako mugetara ihes egingo dute: leku hauek, loberlar–lanketaren eta heroina–fabrikazioaren munduko zonarik garrantzitsuenetakoak dira gaurregun.

## Kokaren kontsumoa Hego–Ameriketan

Txinan opioarekin gertatzen zen bezala, herri hego–amerikar asko ohizko koka–kontsumitzaile bezala aurkeztu izan zaizkigu, kontsumo–maila altu batean, gainera. Kultura prekolonbino askok ezaguna zuen koka, ordea, zeremonia erlijiosoetan bakarrik erabiltzen zen eta haren kontsumoa aginte politiko eta erlijiosoa zeuzkan elite batera mugatua zegoen. Inoiz sari bezala ematen zuten hauek, baina beti ere textuinguru mistiko–erlijioso erabat zehaztu batean egiten zen kontsumoa.

Konkistatzaile espainolak iritsi ondoan, eta kokaren propietate estimulagarriak ezagutu ondoan, haren erabilera jeneralizatu egingo da langileen artean, eta, XVI. mendearen erdiaz gero, meategi– eta plantazio–jabeek diru bezala erabiliko dute. Datu interesgarri bat: elizak debekatua zeukan arren koka–kontsumoa, Cuzco–ko apezeriak hamarrenak (zerga) ezarri zizkion substantzia honen salerosketari.

Gaurregun, eta batez ere kokaren eratorkina den kokaina aurkitu eta komertzializatuz gero, nabaria da, eta komunikabideetan hainbat iruzkin sortzen dituena, koka–trafikarien presentzia herri produzitzaile askotako gobernuetan, edo aginte

politikoko pertsonaien eta trafikari handien arteko lotura argia. Gobernu–aldaketak, Estatu–kolpeak, politikarien hilketak... bata bestearen ondoren doaz, azpian kokaren negozio izugarria daukatela.

## Heroinaren komertzializazio–motak Euskadin

Esan dezakegu, heroina–kontsumoa, intzidentzia sozialaren mailan, 70eko hamarkadako lehen urteetan hasi zela gure herrian. Nolanahi ere den, lehen kontsumitzaileok benetako elitetzat dauzkagu. Hippie–mugimenduak eta batez ere Estatu Batuetatik, Ingalaterratik eta Holandatik etorritako korronte kontrakulturalak eragindako sektoreak ziren. Batzuk «droga bigun» deitzen dituztenen kontsumoaren ondoren iristen ziren heroinara, sentsazio berrien eta experimentazioaren bila; eta, askotan egitura edo gizarte errefusatuei buruzko ezadostasuna edo erreberia agertzeko bidea zen hori, balio berriak aurkitu nahian.

Gehienak ekonomikoki pribilegiatuak ziren, edo giro kultural elitistetakoak, eta ezin esan daiteke aldi horretan trafiko–sare antolatu bat zegoenik Euskadin. Londres edo Amsterdam–era joaten ziren lagun–taldeen artean lortzen zen heroina; beren kontsumorako behar zutena eta bidai gastuak kitatzeko pixkaren bat ekartzen zuten. Ez dago, beraz, inolako antolamendurik trafikoari dagokionean. Beste datu garrantzitsua: substantzia kontsumitua purutasun–maila altukoa zen.

Sarreran genioenez, 1976–77 urteetan eman zen *boom*–a heroinaren hedakuntzan. Nola gertatu zen? Hainbat zirkunstantzia izan behar da kontutan.

Lehen kontsumitzaile asko adikto bilakatzen da. Hippie, bakezale, konformagaitz, gizarte berriarekiko itxaropentsuari, askotan, *junkie* etsi eta fatalista darraikio, hauts zuriaren erabat menpekoa, bere atxekipena mantentzeko adikto berriak behar dituena, merkatua zabaldu behar duena. Amsterdam eta Londresako bidaiak, saltzeko heroina gehiago inportatzeko okasio bihurtzen dira, adikto izaten jarraitzeko. Jolas–leku berriak (pub eta gisakoak) merkatu–gune egokiak dira. Legezko drogen banaketa–zentruetako batzu heroina–trafikoaren tapagailu gertatu dira; bestetan, toleratu egiten da trafiko hori. Ez dugu esan nahi gisa honetako establezimendu guztiak derrigor heroinaren banaketa–zentru direnik, baina bai horietako asko koartada aproposa gertatu dela.

Absurdua litzateke toxikomanoak hartzea heroina–trafikoaren Euskadiko hedakuntzaren lehen eragile eta erantzuletzat. Garai hartan, ez zen toxikomanoen errekuperazio– eta tratamendu–zentrurik aipatzen, nahiz eta 60. urteetan jadanik legez onartua egon toxikomanoentzako zentru espezializatuak sortu beharra; noski, ez ziren sortu.

Toxikomano haietako asko, heroina inbertsio–mota bat bezala hartzen zutenen tresna bihurtu ziren poliki–poliki: industriari, merkatari, kafetegi– eta pub–en jabeena, itxuraz gisa honetako negozioak finantzatzen ari ziren pertsonena. Askotan bihurtzen ziren horiek bidai finantzatzaile (orain Thailandiara egiten dira, batez ere 1977az gero), heroinaren negozioak sortzen duen irabazi sineskaitz eta batere arriskurik gabeak eraginda. Kasurik gehienetan, eskrupulu–gabeko tratalariek gidaturiko engranaje baten pieza bezala erabilitako toxikomanoek egiten zituzten bidaiak.

Poliki–poliki antolatuz doaz, inortxok ere oztopatu gabe, heroinaren banaketa–bideak, eragilerik nagusienak gure herrian dituen «etxeko» trafiko batetaz ere mintza gaitezkeen arren. Non eta nola inbertitu aztertzen da, zein leku izango diren egokienak merkatua finkatzeko, lehenik zein substantzia sartuko den heroinari bide emateko (merkatu– eta trafiko–terminotan, *haschish*–a eta azidoak erabili izan dira heroinarako sarbide bezala. Droga hauen kontsumoak, gizabanakoaren mailan, heroina kontsumitzera eramaten ez badu ere derrigor, heroina–kontsumitzailerik gehienak beste drogetatik, legezko nahiz legezkontrako, abiatu izan dira).

Gero eta gehiago adulteratzen da heroina, irabaziak proportzio harrigarritan biderkatuz. Hona datu bat: merkatuan normalean eskaintzen den heroinak, gehienez, ere, %8 edo 9ko purutasuna du, enparatua eranskin–elementu adulteratzaileak izanik.

Eta oraindik burutu ez den operazio bat hasten da. Errazegia litzateke, heroina langile– eta bazter–zonetan bakarrik banatu zela esatea, herri eta auzo gatazkatsuetan, ezarritako sistemaren aurka borrokatzen zen biztanle–kopuru handikoetan. Hori egia izanik, egia da baita, une berean, giro ekonomikoki ahaltsuko eta erdiko klaseko gazteetan ere sortu zirela adikto berriak.

Ia analiza–ezina da zergatik bihur daitekeen bat *junkie*, eta askoz errazago determina daiteke zergatik ez den bat toxikomano (eragingarriak, itxaropena, bizi–projektua... izatea). Ez dagokio lan honi horiek analizatzea. Hala ere, heroinari atxekien ugaltze etengabea erraztu eta are eragin zuten, eta oraindik ere egiten duten, zirkunstantantzietako batzu kontutan hartu beharra daukagu.

Ez da gehiegikeria, gure ustez, euskal gizartea giro bikaina izan dela eta dela esatea azken urteotan gertaturiko heroinaren sarrera masiborako. Batetik, gure gazte askok errefusatu egin ditu edo, gutxienez, auzitan jarri ditu balore tradizional guztiak: *familia*, modernotasun guztiak gora–behera, kideak apenas komunikatzen diren erakunde hierarkizatu segitzen duena; *eskola*, gizarte konpetitibo eta kontsumistan integratzeko prestaera–zentru bezala; *lana*, kasurik gehienetan esklabutza ekonomikoa iraunerazten duen bide bezala, atseginik batere eskaini gabe; dibertsioak, komunikazio--moduak... dena jartzen da auzitan eta neurri handian errefusatzen. Zer dago ordainetan?

Zorionez, gure herrian asko dira arazo hauei erantzuten saiatzen direnak, ezarritako egitura sozialak eta, zehazkiago, daukagun eredu politiko eta ekonomikoa aldatzeko borroka etengabean, honela gure bizimoduaren errefus–jarrera ugariak bideratuz eta zentzu positiboan aldatuz; itxaropen eta bizi–projektu berriak ekarriz.

Egoera okertuz joan da, sistemak zirkulua itxi ahala. Krisi ekonomikoak, zeinen ondorioak gure gizartearen sektorerik marjinatu eta ahulenetan isladatzen bait dira, subsistentzi eta lan–zailtasun hainbat ekarri ditu, batetik, eta, bestetik, aginteak ahal adina sostengatzen duen ideologia bat hedarazten du. Kontsumismoa, insolidaritatea, gure bizitza frustratzailetiko ihesa arau nagusitzat hartzea, oraina kezkarik gabe bizitzea, ihesa aisiaren eta dibertsioaren oinarri bezala: «balore» guztiok eta, batez ere, etorkizun argirik ez ikustea direla medio, drogaren eskaintzak gero eta jarraitzaile gehiago aurkitu ditu, batez ere etorkizunaren ateak gehien isten zaizkien gazteen artean. Horregatik da egia, heroina–kontsumoak afektatuenak baliabiderik eskasenetako klase sozialetako gazteak izatea, langile– eta bazter–zonetakoak, eta leku hauek izatea gaurregun kontsumoa gehien kontzentratzen dutenak.

Bestalde, jakina da erdiko nahiz goiko klase sozial bateko heroina–kontsumitzaile batek askoz baliabide gehiago izango dituela eskura, bai terapeutikari eta bai lan–posibilitateei dagozkienetan, langile–klaseko batek baino. Hauetako gehienen trajektoria gurpil etengabe bat da: kalea–komisaldegiak–gartzela–kalea... Gutxitan eten da soka hau.

Zirkunstantzia hauek explikatzen dute heroinaren hedakuntza masiboa «marjinalenak» dei genitzakeen zonetan gertatu izana. Heroina, hala ere, hain marjinalak ez diren zonetara ere iritsi zen, ia une berean. Errenteriak, Hernanik, Goierrik, Urolaldeak (Gi-

puzkoan) duela urte batzu ezagutu zuten heroinaren inbasioa. Testigantza guztien arabera, inolako eragozpenik gabe, libertate osoan iritsi zen. Trafiko–operazioak inor tartekatu gabe gertatzen ziren, eta hala gertatzen dira orain ere gehienetan. Zona guzti horiek berezitasun bat zuten amankomunean: borrokazaletasun berezia edo, bestela esan, ezarritako aginteari aurre emanez, gizarte berri bat lortzen saiatzen zen gazte (eta ez hain gazte, jakina) asko egotea, aginteak integratu gabeko eta haren aurkako erreberi mota guztiez baliatzen ziren gazteak. Noski, arrisku bat ziren horiek, eta horiek ez–ezik, baita marjinatuenak erakartzeko izan zezaketen posibilitatea era.

Esan dugunez, eta hau frogatua dago, inork eragotzi gabe hedatu zen heroina. Eragotzi, esan dugu; zer egiten dute urteotan erakundeek, trafikarien ekintzari dagokionean? Sarrerakoan aipatu dugu datu garrantzitsu bat: 1978 hartuz heroina gure herrian hedatzeko giltzarritzat eta ikusiz 30 atxiloketa bakarrik izan zirela trafikoagatik —horietako gehienak ez trafikari, baizik endredamakila eta kontsumitzaileak zirelarik— argi dago zigorgabe dihardutela finantzatzaile, merkatu–estrategiaren planifikatzaile eta, hitz batean, trafikari handiak. Urtetan iraun duen konstantea da. Gehinez ere, trafikari «etxeko» banaka batzu atxilotu eta espetxera dituzte, munta eskasekoak gehienak, trafikoaren sareei inola ere eraso gabe. Zigorgabetasun errezelagarri baino errezelagarriago honen ondoan, estatu–aparatuko kideen, teorikoki jokabide hauen errepresioaz arduratzen direnen, eta trafikarien arteko konexioak (ustezkoak, noski) daude.

Gaurregun, merkatuan dabilen droga–kantitatearen %0,8 irrigarri bat bahitzen da. Egunkari madrildar ezagun batek duela hilabete zioenez, Poliziak bahituriko drogaren %50 gutxienez berriro merkatura itzultzen da. Hurrenez–hurren doaz datuak: komisaldegitik epaitegirako bidean desagertzen diren droga–kantitateak, poliziek, kolaborazioaren truke, toxikomanoei egiten dizkieten droga–eskaintzak...

Azken lau urteotan trafiko–sareak finkatu direla, esan dezakegu. Trafiko–sareak aipatzean, ez gara erakunde bakar batek gidatzen duela esaten ari: lehenago «etxeko» izendatu dugunarekin batera, mafiaren erakundeek kontrolatzen dutena dago. Mafiako bideak ez dira orain agertu: aipatu dataz gero, gutxienez, harekin erlazionaturiko pertsonak trafikatzen ari direla baieztatzeko daturik badago. Eta logikoa da, Estatu osoko kontsumorik altueneko zonan gaudela eta eragozpenik gabe ihardun ahal izan dutela pentsatzen badugu. Heroinaren bideak, Donostiak eta Bilbok oina-

rrizko lekua dutelarik horretan, eginak daude eta, azken datuen arabera, droga–trafikoaren ondoan arma–trafiko inportantea dagoela esan dezakegu. Bat–batean, modu onean lor daitekeen arma–piloa agertu da trafiko–bide ohizkoetan. Nabaria da Mafiaren eskuak hor daudena, eta ustekabeko ondorioak izan ditzake honek. Erdi–mailako trafikarien aurka ia deus egiten ez den bezala, Mafiari lotuek ez dute batere trabarik arkitu; eta, alarmismoan erori gabe ere, esan dezakegu, ihesa eta nonbaitetik «zintzilik» egoteaz beste irtenbiderik eskaintzen ez duen gizarte honetan, beren buruak desegiten dituzten milaka gazte horiek nekez garaituko dugun suntsipen–maila batera eramango gaituzte.

## Eztabaidarako ideiak

Batzuek, agian, usteko dute presuntzio gehiegi dagoela artikulu honetan; besteek, aldiz, gertakariak areago doazela pentsatuko dute. Argi azaldua dugu geure asmoa eta, inork izen propio edo gertakari konkreturik eza sumatu badu, diogun, ez dugula sentsazionalismoan erori nahi izan, baizik eta gertatuaz pentsabide batzu eskaini. Hausnarketa eragin dezakeen zenbait ideia konkretatu nahi genuke, bukatzeko:

— Trafikoaz mintzatzea, merkatua gidatzen eta planifikatzen duten erantzuleez mintzatzea da: maila internazionaletan kontrolatzen da gaurregun merkatu hori, baina badute lekurik tokian tokiko beste indarrek ere. Planifikazio hori egina dago Euskadin, hedakuntz eta sendotasun–maila alarmagarrietan egina ere.

— Heroinaren hedakuntz prozesua Euskadin aztertzerakoan, horretan lagungarri izan diren eta elkar–lotuak dauden faktoreetako bat ere ezin dezakegu bazter, hots: indarrean dauden egitura ekonomikoak, politikoak, ideologikoak, sozialak, eta kontsumitzaile eta hauen inguruneko faktore pertsonalak.

— Heroinaren merkatua gure herrian finkatu ahala, maila politikoan Estatuak aldaketa formal batzu egin ditu, ezarririko sisteman integratzeko tresna berriak sortuz eta aginteari kontrajarritako jarrera guztiak isolatuz edo, behintzat, horretan saiatuz. Bi fenomeno hauek batera gertatu izana kasualitate huts bezala aztertzea errealitatea deformatzea litzateke, trafikoaren errepresioaz arduratu beharko luketen erakundeen jokabidea ezagutu ondoren: heroina ez al da biztanleriaren sektore baten,

bestela beste hautapenak asumituko lituzkeen gazteriaren integrazio– eta suntsipen–faktore? Kontsumitzaile berriak ez dira behialako elitekoak. Askoz goiztiarragoa da iniziazio–adina, gazteek beren nortasuna garatzeko astirik apenas izan dutenekoa. Erreberi arrastoak ere baino lehenago iristen zaie heroina, eta ezarritako ordenuari aurka egin diezaioketen gazteen arriskua askoz lehenago ezabatzen du Estatuak.

— Berez nabarmentzen den ondorioa da, hortakoz, ezarritako agintearen eta heroina–merkatari handien interesen konbergentzia.

Euskaratzailea: **Jose Antonio Aduriz**

*Askagintza*

---

***EL TRAFICO DE HEROINA EN EUSKADI: IMPLICACIONES ECONOMICAS Y POLITICAS***

**LE TRAFIC D'HEROINE EN EUSKADI: IMPLICATIONS ECONOMIQUES ET POLITIQUES**

*Entre los aspectos desconocidos de la drogadicción son particularmente oscuros los referentes a la comercialización y al tráfico ilegal. En este artículo se afrontan los factores de orden político, social y económico del boom del consumo de opiáceos a partir de 1977.*

*La connivencia entre la expansión de la droga y los intereses económicos y políticos se ilustra con dos ejemplos históricos:*

*A) La comercialización del opio en China. China, considerada como país de opiómanos, ha sido víctima de las presiones y maniobras políticas y militares del colonialismo europeo (Holanda, Portugal y especialmente Inglaterra) en cuanto al consumo y cultivo del opio. China era un país que a mediados del siglo XVII prohibía el tabaco y en 1729 el consumo de opio. A consecuencia de la guerra del opio admite la comercialización libre del opio en 1860. El comercio del opio será uno de los pilares económicos del imperio británico. Entretanto China, de 2 millones de opiómanos en 1850 pasa a tener más de 120 millones en 1878. En 1949, tras la revolución, los grandes cultivadores y negociantes del opio huyen a Thailandia y Birmania, actualmente los centros de heroína más importantes del mundo.*

*B) El consumo de la coca en Sudamérica. La coca, cuya comercialización implica hoy ingentes intereses económicos capaces de provocar cambios de Gobierno, Golpes de Estado, asesinatos políticos, en las culturas precolombinas era consumi-*

*da por una élite reducida y en un contexto religioso. Sólo con la llegada de los conquistadores se generalizó su consumo.*

Evolución de las formas de comercialización de la heroína en Euskadi

*Los primeros años 70 la comercialización de la heroína se realiza mediante grupos de amigos que se desplazan a Londres o a Amsterdam. La heroína es de una gran pureza.*

*En 1976–1977 tiene lugar el boom de la heroína. Entre sus factores hay que señalar los primeros consumidores convertidos en adictos, pero sobre todo industriales, comerciantes, propietarios de cafeterías y pubs que consideran la heroína como una forma de inversión. Estos financian viajes de toxicómanos a Thailandia. Todavía se trata de un tráfico casero. La heroína se adultera cada vez más.*

*La crisis cultural, el rechazo de los valores tradicionales (familia, escuela, trabajo, etc.), crisis económica, paro, consumismo constituyen el caldo de cultivo para la introducción masiva de la heroína, sobre todo en las zonas más marginadas y obreras. La heroína se expande sin impedimento alguno, con toda libertad, especialmente en zonas en que la juventud está menos integrada en el sistema y es más combativa. Esta impunidad va acompañada de conexiones entre policía y traficantes.*

*Hoy día las redes de tráfico se han consolidado. Y junto al tráfico de droga se ha establecido un importante tráfico de armas. Es la larga mano de la mafia.*

*El artículo acaba refiriéndose a la planificación organizada del mercado de droga con responsables a nivel internacional, pero también local; a la heroína como factor de integración y destrucción de la juventud, a la convergencia de intereses entre el poder establecido y los grandes negociantes de la heroína.*

---

Parmi les aspects inconnus de la consommation de la drogue ceux concernant la commercialisation et le trafic illégal sont particulièrement obscurs. Cet article traite des facteurs d'ordre politique, social et économique du boom de la consommation d'opiacés à partir de 1977.

La connivence entre l'expansion de la drogue et les intérêts économiques et politiques est illustrée par deux exemples historiques: la commercialisation de l'opium en Chine et celle de la coca en Amérique du Sud.

A) *La commercialisation de l'opium en Chine.* La Chine, considérée comme un pays d'opiomanes, a été victime des pressions et des manoeuvres politiques et militaires du colonialisme européen (la Hollande, le Portugal et spécialement l'Angleterre) quant à la consommation et la culture de l'opium. La Chine a été un pays qui au milieu du XVII$^{e}$ siècle a interdit le tabac et en 1729 la consommation

de l'opium. A la suite de la guerre de l'opium elle admet la commercialisation libre de l'opium en 1860. Le commerce de l'opium sera un des piliers économiques de l'empire britannique. Entre-temps, le nombre d'opiomanes en Chine passe de 2 millions en 1850 à plus de 120 millions en 1878. En 1949, après la révolution, les grands cultivateurs et négociants de l'opium fuient en Thaïlande et en Birmanie, actuellement, centres de l'héroïne parmi les plus importants du monde.

B) *La consommation de la coca en Amérique du Sud.* La coca, dont la commercialisation implique aujourd'hui d'énormes intérêts économiques capables de provoquer des changements de gouvernement, des coups d'état, des assassinats politiques, était consommée dans les cultures précolombiennes par une élite réduite et dans un contexte religieux. Ce n'est qu'avec l'arrivée des conquistadores que sa consommation s'est généralisée.

*Evolution des formes de commercialisation de l'héroïne en Euskadi.* Au début des années 70 la commercialisation de l'héroïne se réalise par l'intermédiaire de groupes d'amis qui se déplacent à Londres ou à Amsterdam. L'héroïne est d'une grande pureté.

En 1976–77 a lieu le boom de l'héroine. Parmi ses facteurs il faut signaler les premiers consommateurs qui se sont adonnés à cette drogue, mais surtout des industriels, des commerçants, des propriétaires de snacks et de pubs qui considèrent l'héroïne comme une forme d'investissement. Ceux-ci financent (aux toxicomanes) des voyages en Thaïlande. Il s'agit encore d'un trafic à petite échelle. L'héroïne est de plus en plus adultérée.

La crise culturelle, le refus des valeurs traditionnelles (famille, école, travail, etc.), la crise économique, le chômage, la consommation poussée à l'extrême constituent le bouillon de culture idéal pour l'introduction de l'héroïne, surtout dans les zones les plus marginalisées et ouvrières. L'héroïne s'étend sans aucune entrave, en toute liberté, spécialement dans les zones où la jeunesse est moins intégrée au système et plus combative. Cette impunité est accompagnée de connexions entre la police et les trafiquants.

Aujourd'hui les reseaux du trafic se sont consolidés et à côté du trafic de la drogue est apparu un important trafic d'armes. C'est la longue main de la maffia.

La fin de l'article se refère à la planification organisée du marché de la drogue avec des responsables au niveau international, mais aussi au niveau local; a l'héroïne comme facteur récupérateur et de destruction de la jeunesse; à la convergence d'intérêts entre le pouvoir établi et les grands négociants de l'héroïne.

# Toxikomanoaren Nortasuna

**Markos Tolosa**

Gaiari lotu aurretik, zehaztasun batzu: Lehen–lehenik, nortasunari buruz dugun kontzepzioari dagokiona. Izan ere, hitz honekin aditzera eman nahi dena, indibiduoaren ezaugarri diren eta bakar eta bakan egiten duten koalitate heredatu eta bereganatuak dira, Fromm–ek *Etika eta Psikoanalisia* liburuan dioen bezala. Irakasle honentzat bezalaxe, guretzat hemen interes handiena duen nortasunaren zatia ez da heredatua, tenperamentua; geureganatu duguna baizik, hots, karakterea —beti ere autore bederari jarraituz—, gizonaren beharrak gizarte jakin batetako existentzi eredu berezietara egokitze dinamiko batek giza energiari ezarritako forma berezitua.

Horra zergatik mintzatuko garen toxikomanoaren zein karaktereaz zein nortasunaz modu berean, nahiz eta kontzeptu batek bestea hartzen duenaz jakinaren gainean egon.

Beste zehaztasun bat ere egin nahi genuke: gure lanari «Toxikomanoaren Nortasuna» izenburua ezarri badiogu, ez dugu esan nahi irudi–robot bat moldatu nahi dugunik, toxikomano guztiak zaku berean sartuko lituzkeena, zenbat toxikomano hainbat pertsonalitate berezi direla uste bait dugu.

Alderantziz, gisa horretan diagnostikatuak izan diren pertsonen baitan sarri xamar ematen diren ezaugarrien zerrenda azpimarratu nahi genuke.

Gehiago oraindik: Onartua dugunez karakterea gizonen beharrak gizarte jakin batetako existentzi ereduetara egokitze dinamiko bat dela, ia denen ezaugarri berdinak diren berezitasun hauek azaldu aurretik, bidezko litzateke nolako gizakiez eta nolako gizarteaz ari garen azaltzea.

Lan honetan, Mendebaldeko gazteria aztertuko da, 60. urteen inguruan hasita droga–kontsumoaren arazoak afektaturik dagoen neska eta mutilen kolektiboa: portaera indibidual soiletik harantz dauden jarrera guztiz berriak hartzera bultzatzen duen diskurtso kultural eta kontrakulturalean sartuta bizi dena.

Beste era batera mintzatzekotan, zergatik drogak?, zergatik hemen eta orain?, zer esan nahi dute?, zein eratakoak? eta, zer esan kolektibo hori bere saretan hartua daukan sistema sozialaz?

Industri produkzioa nagusi den sistema baten barruan, zeinetan produkzioa bizitza hobe bat lortzeko medio ez baizik helburu bihurtu bait da, bizitza bera lanaren banaketa–prozesu gero eta handiagoari eta mekanizazio gero eta hertsiago bati subordinatuz, gizona makinaren zati bat bihurtu da, ez haren jaun; eta merkatu-gai, inbertsio–objektu sentitzen. Bere helburu guztia exitoa lortzean jarria duelarik, berak sortu dituen indar ekonomiko eta sozialen mende aurkitzen da. Ez da munduaren zentru eta gune, ez da bere ekintzen sortzaile sentitzen, alderantziz baizik, bere ekintzak eta hauen ondorioak nagusitu zaizkio.

Pertsona bezala duen balioa, bere salgaitasunean datza, eta ez maitasun– eta arrazoimen–koalitate gizatiarretan.

Zoriona, merkatu–gai hobe eta berriagoen pareko egingo da: musikaren, pelikulen, libertsioen, sexuaren, edarien, tabakoaren kontsumoarekin.

Bere baitatik aldenduta bezala bizi da. Ez da gauza inor maitatzeko, ez arrazoimenaz baliatzeko, ez erabakiak hartzeko ere. Ez dio bizitzari apreziorik, dena apurtu eta txikitu nahi luke; gerraren eta robotismoaren mende sentitzen da, ondorioak agerian daudelarik: izpiritu gregarioa, nortasun–eza, adostasuna, pertsonen arteko harreman axalekoak, anomia, burura datorkion guztia bat–batean bete beharra, sexuaren estimulazio artifiziala, herstura. Horra «gurari– eta satisfakzio–sistema» bilakatu den gizakia, A. Huxley–k esango zukeen bezala.

Inguru sozial hau nortasun pasiboak eta mendeko gizakiak sortzeko lur emankorra bihurtu da: horientzat on guztien iturria kanpoan aurkitzen da, dena egina eman dakien espero dute, beti maitatuak izatea irrikatzen, ahulegiak direlarik berek inori maitasuna eskaintzeko, esfortzua eskatzen duelako. Inork zaputz egingo balie, barruraino sentituko lukete, hain bait dira sentiberak, harreman pertsonaletan sinbiotiko hutsak, beren buruak merkatuko objektutzat kontsideratzen dituzte eta zein bere buruarekiko estimu eta identitate–sentimenduan mailarik apalenean aurkitzen dira.

Argitasun hauek ematea beharrezkoa zen, toxikomanoaren ezaugarri berezien zerrenda bat onartzeko. Hori da, hain zuzen ere, Basileako Unibertsitateko psikiatri klinikako Ladewig irakasleak egin ohi duena: pertsona hauek tentsioak jasateko gauza–ez bezala deskribatzen ditu, molestiarik txikiena gainetik bat–batean kentzea behar dutenak, beti ere herstura gainditu nahi izateko eta depresio ia omnipresenterako joera erakusten dutenak.

Egitura psikikoari dagokionez, pertsona heldugabe eta segurtasunik gabetzat jotzen ditu, beti harreman pertsonal axalekoak dituztenak, eta beren sentimenduetatik babestu beharra dutelarik, berauen mehatxupean sentitzen bait dira. Insegurtasun hori gorputzari buruzko jarreran ere agertzen da, osasunaren kezka gehiegian, batetik, eta erabateko ezaxolan, bestetik.

Harreman pertsonalei dagokienez, indibiduo erreserbatuak dira, sentiberak, eta, honetan ere ikusten da paradoxa, beti ere pertsona ezagun baten mendeko.

Literatura psikoanalitikoan, ortodoxiatik heterodoxiaraino, bat datoz denak toxikomanoak oral–pasibo bezala sailkatzerakoan, Freud–ek, Abraham–ek, Fenichel–ek esaten dutenez, edo pareko den hartzaile–masokista bezala, Fromm–ek dioenez.

Honela, drogarekiko atxekipena, Freud–en eritziz, finkapen oral bortitzen ondorioa da, eta atxekipen primarioa masturbazioa dela dio, eta gainerako atxekipenak honen ordezkoak soilik.

Linea honi jarraituz, K. Abraham–entzat toxikomaniak neurosi–mota batzu dira eta toxikoak hartzeak sexualitate pregenitalaren atsegina emango luke aditzera; hori dateke arrazoia zergatik toxikomanoentzat drogaren kontsumoa abandonatzea, neurotikoentzat beren sintomak uztea bezain zaila izan ohi den.

Bereziki interesgarriak dira K. Mehninger jaunaren aportazioak alor honetan, dioenean toxikomanoen bulkada autodestruktiboak, gurasoek traizionatuak izan direlako ustetik sortutako

haur-sentimenduen ondorioak direla. Horrek haurren erra bizia sortzen du, gurasoak ezabatzea desiratzerainokoa, eta une berean, haiek galtzeko beldurra sumatuz.

Horrela, heldutasunera iritsiko denean, alkohola —alkoholaz mintzo bait da K. Mehninger, baina gauza bera esan litekeela uste dugu geure aldetik gainerako toxikoengatik ere— atsegina eta mendekua lortzeko medio bihurtuko da, bere etsaitasuna toxikoen eraginpean gauzaturiko portaera antisozialaren bidez agertzen duelarik, eta, aldi berean, horrek nortasunean sortzen dituen ondorio psikiko eta fisikoei esker, errudun–sentimendua ahultzen delarik.

R.P. Knigth jaunak, drogari atxekiaren famili ingurunea aztertzen du, konklusio honetara iritsiz: honelako pertsonaren haurtzaroan amaren neurrizgorako babesa eta barkaberatasuna ikusi behar dela, haurraren gurariak atsegin oralen bidez baretzen ibili dena, aitaren irudia, berriz, irmotasunik gabea eta guztiz ahuldua ageri delarik.

Honela, menpetasuna, ukatua izateari beldur garratza eta errudun– eta gutxiagotasun–sentimendua oinarri dituen nortasuna eratuz doa.

Halaz guztiz, nire eritziz, ortodoxiaren alorrean beti, Otto Fenichel da toxikomanoen nortasunaren egitura intimoa argienik azaltzen duen psikoanalista. Berak dioen bezala, toxikomanoek helburu narzisista pasibo bati loturiko segurtasun– eta autoafirmazio–sentimenduak eman dakizkien bilatzen dute, barne–beharrak asetzeaz beste irrikarik ez dute, horrexek finkatzen bait du horien existentzia; labur esateko, hori da bilatzen duten berotasuna eta elikadura. Beren gauzetan eta sexualitate genitalean interes gutxiko indibiduoak dira, autore berak dioenaren arabera.

Berotasuna emango eta jateko irrika aseko dien zerbait balitz bezala sentitzen dute droga. Dastatu duten bezain laster badakite horixe dela drogak esan nahi duena. Eta, orduz gero, horien segurtasuna, zoriona eta bizitza bera ere drogaren mende daude.

Gizaki hauen barne–egitura, drogaren mende erori badira bereziki, libidoaren desarroiloaren etapa goiztiarren antzekoa da; diferentzia bakarra honetan dagoelarik, haurrak atsegina bakarrik bilatzen duela, kanpo–errealitateaz edo objektua zer denaz batere arduratu gabe.

Aho–menpetasunezko egitura deitzen duen honek argitzen du drogari atxekien portaera. Hasieratik libido genitala ahula ager-

tzeaz gainera, pixkana–pixkana edozertarako ardura galduz doaz, eta beren aktibitateak, okupazioak, arau kulturalak, etab. ahanzten dituzte; are gehiago, sarritan giza bizitzako arau elementalak ere abandonatzen dituzte, eta horretatik sortzen dira ezaxola higienikoa, indizioak hartzerakoan prekauziorik eza, familiartekoen sufrimenduarekiko sentikortasun–eza, droga eskura diezaiketenekiko menpetasun osoa, etab.

Ez badakit ere toxikomanoak Fromm–en karakterologian sartzen inor ahalegindu denik, nire eritziz bidezkoa litzateke karaktere hartzaile masokista deritzanean sartzea, horien artean aurkitzen bait dira, beren askatasunetik, erantzukizunetik, indibidualitatetik eta autonomiatik ihes eginez, segurtasuna ematen dien zerbaitetan babesten diren indibiduoak.

Bere *ni*–az erantzirik, beste edonoren menpetasunean jarriko da, pertsona dela nahiz taldea, hori izango delarik haiekiko harreman bakarra. Menpetasun hori konpultsioz irrikatuko du bere bakardadetik eta isolamendutik ihes egitearren.

Indibiduo hauen sozializazio–prozesuak menpetasun–tankera hartzen du funtsean, haien existentziako jarrera bakoitzean: askatasunean bizi izateari dion beldurrean, esate baterako, agertuko dena.

Pertsona hauek beren buruak txikiagotzeko eta ahul ikusteko joera dute, gauzak menperatzeari uko eginez.

Kanpotiko botereetara makurtzeko joera nabari zaie, pertsonetara, erakundeetara edo are natura berarengana ere.

Ez dira inola ere gauza «ni neu naiz» edo «nik nahi dut» sentimendua experimentatzeko.

Bizitza osotasunean harturik, beren ahalmenaz gaindik dagoen zerbait bezala, botere beldurgarri bat bezala agertzen zaie, ezin menderatu dutena bezala.

Kasurik larrienetan, beren buruak txikiagotu eta besteren mende jartzeko joera hori beren buruak zigortzean agertzen da, edo autokritikarik zorrotzenetik gaisotasun bat desiratzeraino doazen sufrimenduak eragitean beren buruei.

Karaktere–mota hori, Fromm–entzat, norberaren indibidualitatearen traba gainetik kentzeko ahalegin bezala ageri da, finkota-

sun– eta segurtasun–sentimendua ematen dioten botereei menpeko eginez.

Euskaratzailea: **Jose Antonio Agirre**

*M.T.*

---

## *LA PERSONALIDAD DEL TOXICOMANO*
## LA PERSONNALITE DU TOXICOMANE

*El autor, antes de pasar a subrayar los rasgos que se encuentran con relativa frecuencia en el toxicómano, precisa el concepto de personalidad y describe algunos aspectos de la sociedad en la que surge el toxicómano: un sistema que hace de la producción un fin en sí misma; un trabajo alienado; la exacerbación de un consumismo alienante, etc.; todo ello facilita el desarrollo de personalidades pasivas y dependientes que sienten que la fuente de todo bien se halla siempre en el exterior, que buscan más ser amados que amar.*

*Inseguridad, inmadurez, superficialidad de los contactos, impulsos autodestructivos, búsqueda de dependencia, sometimiento, sentimientos de culpa e inferioridad, etc., son los rasgos principales del retrato del toxicómano trazado por el autor sirviéndose de diversos autores: Ladewig, Freud, Abraham, Fenichel, K. Mehninger, R.P. Knigth, E. Fromm.*

---

L'auteur, avant de passer à la description des traits caractéristiques du toxicomane, précise le concept de personnalité et décrit certains aspects de la société où apparaît le toxicomane: un système qui fait de la production une fin en soi; un travail aliénant; le besoin d'une consommation tout aussi aliénante poussé à l'extrême, etc; tout cela facilite le développement de personnalités passives et dépendantes qui sentent que la source de tout bien se trouve à l'extérieur, qui cherchent d'avantage à être aimés qu'à aimer.

Insécurité, immaturité, superficialité des contacts, désir d'auto–destruction, recherche de dépendance, soumission, sentiments de culpabilité et d'infériorité, etc. sont les principaux traits du toxicomane que l'auteur trace en se rapportant aux travaux de divers auteurs tels que: Ladewig, Freud, Abraham, Fenichel, K. Mehinger, R.P. Knight, E. Fromm.

# Drogarekiko atxekipena eta gizarte-egiturak

**Askagintza**

Egitura soziala eta toxikomanoei buruzko arazoa aztertzerakoan, ezinbestekoa deritzagu gure arreta toxikomanoetara ez baizik gazteriarengana zuzentzeari. Horrela ez badugu egiten, arriskua bait dago eritzi oker honetan erortzeko, hots: drogari atxekia dagoen gaztea aparteko zirkunstantzien mende dagoen eta sailkapen–kontzeptu berezian sartu behar den norbait dela uste izatea, eta horrek arazoaren inpostazio irreal batera eramango gintuzke.

## 1. Gizarte legalaren ukapena

Abiapuntuetariko bat, gazteriaren inguruan idatzi den literatura elementalari lotua dagoena, gizartearen ukapena da, zeinaren baitan marginatua eta ezinegonez sentitzen bait da. Ez du, noski, gizartea bera ukatzen, kultura ofizialaren formak baizik, zuzenki nahiz zeharbidez ezarri zaizkionak.

Gazteri zati batek leku komun delakoetara erlatibizatzen du gizarteari buruzko kritika; eta, ondorioz, ukapen hori egoera jakin batzuri behin–behinekotasun handiagoa ematera mugatzen da, jabetzari dela, bizitz egoitzari, sexuari, filiazio politikoari, etab.

Baina, gazteriaren beste sektore batetan, bai marginatuenean bai kontzientziatuenean —eta hauen artean droga–kontsumitzaileak sartzen ditugu—, kritika soziala ez da ingurunera edo egitura sekundariotara mugatzen, balore tradizionaltzat jotzen ditugunetara baizik, hots: erlijiora, familiara, egitura politikoetara, sinboloetara... Gertakizun hauxe da, gurea bezalako gizarte baten barruan larrienetakoa. Hain larria ere, non komunikabideak berak isilerazten edo minimizatzen ahalegintzen bait dira, horri aurka egiteko beldur kolektibo halako bategatik edo bere dimentsio guztian onartzeko inkapazitate, orobat kolektibo, bat balego bezala.

Gazteri sektore honetan, egitura sozialak ez ezen, gainerako pertsonak ere inmoraltzat (*chungos*) joko dituzte, zerbaitetan bereizten badira, egiazko nortasuna kamuflaje handiagoz itxuraldutua agertzea delarik. Praktikan, kontrakultura antzeko batetara iritsiko da, marginazio aktiboa asumituz; gauza nabarmena da hori toxikomano–multzo handi batetan, baina ez da hauen artean bakarrik ematen, nahiz eta agerpen–moduak zeharo ezberdinak izan.

## 2. «Roll» bat betetzea

Garrantzizko urratsa emana izango da, gazte batek bere marginazio–egoera kontzeptualizatu eta bizitzako betekizun bihurtzen duenean, bertatik eskubide–iturri bat sortuz.

Gizartearen ukapen honek gazteriaren zati batetan antagonismoa sortzen du: zentzu batean nahiz bestean altera litekeena, indibiduo bezala norbaiti buruz protagonismo–jarrera, eta ez gizaki erabat zapalduarena, hartzera eragiten diona; aldiz, gazteriaren beste sektore batek, bere ahuldadea abiapuntutzat hartuz, bertan goxo egiten du, bere zapalkuntzaren narzisismoan eroriz. Horixe bihurtzen du aitzakia, erantzukizun orotatik libre geratzeko, frustrazio guztien errua egitura sozialei egozten dielarik, bizitz projektu batetan eta berrerospen pertsonalean parte aktiboa hartzeari uko eginez.

Enuntziazio teoriko hau, aldaketa sozialean protagonista izateko interesik ez erakustean agertzen da praktikan. Gazte askoren artean jarrera hori onartua dago, pasibitaterako aitzakia hau delarik, hots: «idealismo»rako bide guztiak itxiak daudela.

Gaztea, honela, pasibitatean jarria aurkitzen da, eta ondotxo daki ezingo diotela jarrera hori eztabaidatu. Egia esan, egitura sozialek ezin puskatuzko sare bat eratu dute, eta nekez aterako da

inor horretatik. Gizartea ez da kritikagarri bakarrik, baizik eta aldatzen zail.

Biktimarena egitea errazago zaie sistemaren erasopean sentitzen diren gazteei, droga jakin batzuri atxekiak diren gazteei, adibidez. Esango litzateke poz hartzen dutela beren buruak egoera horretan ikusteaz; are gehiago, aitzakiatzat hartzen dute drogari atxekitzeko edo beste ezein jokabidetarako. Droga eta beronekiko atxekidura justifikaturik dago, mito bihurtu dute, ezin abandonatu duten zirkunstantzia bat bilakatu zaie, eta, ondorioz, aitzakia erraza zaie dauden egoeran jarraitzeko, alternatiba bakarra sistemak ezarritako lakioan erortzea bait litzateke.

Jarrera bera hartzen dute gazte hauekin edo berauengandik hurbil dabiltzan erakunde edo pertsonek ere. Jarrera paternalista asumitzen dute, ez dute drogarekiko menpetasuna eztabaidatuko; aitzitik, beren aktibitate nagusiena gizarte–egituretara zuzenduko dute, eta ez diote gazteari exijituko dagokion lekua eta erantzukizuna hartu edo bere egoera onar ditzan.

## 3. Toxikomania: ongi pasatzea

Aitzakia honen aurkipenak, gazteriaren sektore batean, garrantzirik handiena du. Izan ere, gazteria honentzat arazoa hau bait da: nola bizirik iraun giro jakin horretan, nola «kolokatua» egon frustrazio sozialetik kanpo, hau da, nola bere buruari sentiarazi ondo pasatzen ari dela. Ondo pasatu, inolako kezkarik gabe: horra arazoaren muina eta funtsa, horretarako legezkontrako drogari nahiz beste edonolako egoerari lotu behar bazaio ere: alkoholari, tabakoari, porroari, dantzari, taldean harat–hunat ibiltzeari, orduak nola doazen begira jarririk, edonolako harremanetan abiaturik, mintzaketa aspergabean, esateko modu berriak asmatzen, betiko gauza atseginetan buru–belarri murgilduta, inguruan dituzten arazo sakonetarako ardurarik txikiena ere erakutsi gabe: langabezia, familiarekiko menpetasuna, poliziaren erasoa, sexua, haserrea, zapalkuntzaren eta norbere ahuldadearen gainean barre eginez.

Horra nolatan atxekidura bihurtzen den norbere bizitzan betekizun nagusiago bat asumitzetik, bizitzaren aurrean erantzukizuna hartzetik libre geratzea.

Zentzu honetan, ez da batere gauza berririk ematen gazteriaren baitan legezko gizarteari buruz; gizarteak eskaintzen dio eredu bat eta derrigorrez jarraitu behar zaio, eta bere jokabidea egokitu be-

har dio. Gazteri zati honek ez du gizartearen aurkako jarrerarik hartuko, ez du kritikatuko, ez ukatuko; alderantziz, onartu egingo du. Kontsumora bultzatzen duten medioen mende, zorabioak hartuta bezala dago gaurko gizartea; legezko drogak, farmakoak, masa–ikuskariak faktore haluzinagarri bilakatu zaizkio. Hain hartua dago, egon ere, eritzi objektiboa ematen edo portaera sobrioa duen norbait, pertsona arrarotzat ikusiko bait da.

Drogarekiko atxekipenak zoriontsu sentiaraz lezake aldi baterako bere mende daukana, gaztea gure kasuan, frustrazioan suntsitua ikusten bada, bereziki. Drogak eskaintzen dion *relax* egoera horretan, mundu estraino batera eramana sentitzen da, lurrean geratu diren gizakiek sumatu ere ezin duten konstelazio batera jasoa.

Bizitzako maitasun handia bihurtu liteke droga, zeinaren aurrean gainerako guztia ukatzea ontzat eman bait liteke. Hain da horrela, drogarekiko atxekipena eztabaidatzen ez duen pertsona, droga eskuratzen diena, edo droga baten ordez beste bat aldatzen diena bakarrik izango bait da haien begietan ondo ikusia.

## 4. Ghettoa, irudi desberdintzailea

Atxekipen–prozesuan beste urrats nagusia, beren irudia aintzakotzat hartzen dutenengana biltzen direnean ematen dela esan liteke. Itxuraz, gizartea ukatzeko darabilten era bat dela esan liteke; baina ez da inola ere ukapen sakona. Jarrera desberdintzaileak hartuko dituzte janzkeran, mintzaeran, etab.; baina beti ere kontsumoaren bezero leialak jarraituko dira, tankera berezia hartzen badu ere kontsumoak.

Gazteri zati batek gizartearekiko antagonismoa kontrakulturara lerrotzen duen bitartean, drogari atxekia dagoenak kanpoko eremuak garbi zehazten ditu, bere kidekoetara mugatzen ditu harreman pertsonalak, ez du hauekin bizitz projekturik egiten, kontsumora zuzendutakoak baizik.

Itxitura horren barruan ikusten duelarik bere burua, erra gaiztoa sentitzera irits liteke gainerako jendearen aurka; gizartearen aurka mendeku hartzeko grina gaiztoak jaten dio barrua. Jarrera hori izan ohi da droga iristeko beharrezko dituen operazioak burutzeko plataforma psikologikoa.

Droga garestien eraginpean ghettoan bizitzera iristen bada, droga–trafikoarekin eta are mafia handiekin harremanetan amaitu-

ko du. Eta horrek, sarritan, jokabide–arau batzuren mende jarriko du; disziplina bat ezarriko diote, nekez saihestu ahal izango duena.

## 5. Pobrezia, degradazioa, enkapsulamendua

Egia da gazteek baliabide gutxiagorekin irits dezaketela zorion–maila jakin bat, helduek ez bezala, eta horrexegatik egotzi ohi zaie desafio–jarrera. Alabaina, gazte gehienak, drogaren mende egon nahiz ez, errekurtso minimorik gabe aurkitzen dira, eta egoera horretan bere buruaren jabe izan nahiarekin kontraesanera galduak daude, ezein projekturi jarraipena ematea oso zaila bait zaie. Gizarteak ez du inolako plangintzarik egin haientzako, eta, beraz, projektu legaletik kanpo geratzen dira, erreserba huts bat besterik ez direlarik.

Ez da harritzeko, beraz, gazteri zati horrek bere ahalmenak arian arian galtzea, gaurkoa bezain giro hostil honetan protagonismo ausart baten bidez bizitzako arazo larria bideratzen ez badu, eta, alderantziz, bere baitatik iheska badabil. Drogak eskaintzen dion zorionaldiak bizitza laburra du. Laster ikusi ohi da zakuaren barrena, non beste errealitateak ere ageri bait dira.

Gizartearen erasoa alde guztietatik sentitzen du. Garbi ageri da hori legaltasunari borrokarekin erantzuten dion toxikomanoan. Komisaldegiak, auzitegiak, gartzelak ezagutuko ditu. Doi–doi daki bizitzea zer den, are gutxiago aisetasunean bizitzea zer den, eta ez du aintzakotzat hartzen gizarteak baduela ahalmen indibiduoa nahi bezala zapaltzeko. Sarritan, ez du jakingo ere zertan den bere expedientea, edo nor den bere arazoaz arduratzen den abogadua. Erants diezaiogun eraso honi mafiaren aldetik datorkiona, edo kidekoek egiten diotena, azken batean guztien biktima bait da.

Iraupen–kapazitatea ere pixkana–pixkana galduz doa. Bizitzan ezagutu ditu pertsona edo situazio jakin batzu, bere arreta eta are maitasun–sentimendua piztarazi diotenak. Gainerako gizakiek bezalaxe, zerbaitekin edo norbaitekin geratu nahi luke, adiskideren batekin, amodioren batekin. Baina, ez da gauza bere aldetik ezertxo ere eskaintzeko, fideltasun minimoa, esate baterako. Emanagoa da amets egiteari, baliozko projektuak egiteari baino. Nola adiskidetasunak hala maitasunak neke–uneak ere ezagutzen ditu, erantzun bat eskatzen du; eta, horra, urteetan projektu minimorik egiteko gauza izan ez den batek ezin gainditu ditu erritmo–aldaketa horiek.

Enkapsulamendua ageri da azken irtenbide bezala. Gizartea ez ezen, kideak ere bere iseka eta burlen objektu bihurtzen ditu, eta azken batean, bere burua ere nahiko irrigarri eta irreal ikustera iristen da. Irudimena hertsatzen du eta ez du biderik aurkitzen aurrean edo urratsak emateko indarrik.

Kinka horretan jendearen aurrean gazte akitua bezala ageri da, berehalako autodestrukzioa onartzeko prest dagoen izaki bihurtu da, edo bere burua urkatzeko arrisku larrian. Zoritxar hauek nahiko ez balira bezala, konfidantza guztia galdua dute beren buruan, eta ez dute onartzen beren partea gizarteak ezarritako antagonismoan.

## 6. Konklusioak

Ez ditugu idatzi ohar hauek drogari atxekiak edo bere buruaren aurrean nahiz besteren aurrean kontrakotasun–jarrera galerazten dioten zirkunstantzien mende dagoen gazteak bizi duen errealitateari buruz puntu batzu finkatzeko asmoz, araubide praktikoak emateko baizik.

Lehenik esan behar dugu, gazteei kriminal–errua egoztea gure gizartean oso zabaldua dagoen joera dela, beste helburu batzu bait dituzte. Izan ere, gaurko gizarte–egiturak babesten dituzten gobernuek ez dute, berez, gizartearen arreta egiazko arazotik aldendu besterik egingo. Erakunde herritarrak izango dira gaurregun gazteriaren tratamendu egoki baten alde mobilizatuko diren bakarrak, gizartean minimoki integra daitezen.

Bigarrenik, gobernuen distrakzio–ahalegin hauei jarrera paternalista erantsi behar zaie, ez bait da itxaron behar hezkuntz egiturak aldatzeko inolako esfortzurik egingo dutenik; ondorioz, luzarora guztiz ezezkorra bilakatuko da jarrera hori.

Hirugarrenik, alferrik ibiliko gara aldaketaren bila, ez badira aldatzen abandono soziala determinatzen duten faktoreak. Hau da, drogari atxekiekin lanean ari direnak ez zaizkio alor jakin bati bakarrik lotu behar, gainerako herri–egiturekin zerikusirik ez duen bati, alegia; baizik eta ekintza eraginkorrago eta sakonagotara jo behar dute, irakaskuntz zentruetan eta herriari hurbil zaizkion sektoreetara zabalduz mugimendua. Zentzu honetan, erakunde politiko txikiagoek ere parte hartu behar lukete, udalak direla, diputazioak edo aspirazio nazionalak dituzten gobernuak,

edo erlijio–erakundeak; projektuak egiterakoan, eguneroko errealitateari bizkar ematen dioten beste erakundeetatik ihes eginez.

Eta, azkenik, drogaren trafikoa eta onartu eta legalizatua dagoen drogaren kontsumora daraman eragintza, goi–mailan dagoen inoperantziaren eta estatu bateko arduradun politikoen borondate–faltaren froga bezala jo behar da.

Euskaratzailea: **Jose Antonio Agirre**

*Askagintza*

---

## *ADICCION A LA DROGA Y ESTRUCTURAS SOCIALES*

## CONSOMMATEURS DE DROGUE ET STRUCTURES SOCIALES

*Este artículo describe las características que, como grupo social, muestra la juventud, dentro del cual se hace el toxicómano.*

*1. Rechazo de la sociedad legal. Si este rechazo en algún sector es puntual y parcial, en otro gran sector se rechazan los valores tradicionales (religión, familia, estructuras políticas, interpretaciones históricas y símbolos).*

*2. Utilización de un rol. Mientras un sector de esa juventud que rechaza la sociedad actual lucha y se enfrente a ella, otro sector se asienta en su propia debilidad, cayendo en «el narcisismo de su propia opresión» y adopta una postura pasiva, un papel de víctima.*

*3. La toxicomanía, el pasarlo bien. Dentro de ese papel de pasividad su problema es cómo tener la sensación de pasarlo bien más allá de la frustración social. La droga efectúa por un tiempo el efecto milagroso de dar a jóvenes frustrados la sensación de ser dichosos.*

*4. Ghetto, imagen diferenciadora. Otro paso en la adicción es la reclusión en un entorno de personas. Se marcan las diferencias externas frente a los demás, a los cuales se desprecia. Las relaciones se limitan al ghetto, a la red de tráfico y las mafias.*

*5. Pobreza, degradación, encapsulamiento. La mayoría de los jóvenes, drogadictos o no, carecen de recursos mínimos. La drogadicción tiene una luna de miel corta. Pronto aparece la degradación. Se produce el acoso social, tanto policial, como el de la mafia o el de sus colegas. Decrece su capacidad de retención, de oferta, de fidelidad. El encapsulamiento aparece como posibilidad última de vida.*

*Concluye el artículo denunciando la insuficiencia de todo tratamiento de la drogadicción que no busque un cambio a fondo de las estructuras sociales actuales, y*

***que no incida en el cambio de actitud del joven, y la falta de voluntad de combatir el tráfico de droga por parte de los responsables políticos de un estado.***

---

Cet article décrit les caractéristiques des jeunes, en tant que groupe social, au milieu desquels se fait le toxicomane.

1. *Refus de la société légale.* S'il est vrai que ce refus est chez certains ponctuel et partiel, chez un grand secteur il s'agit du refus des valeurs traditionnelles (religion, famille, structures politiques, interprétations historiques et symboles).

2. *Utilisation d'un rôle.* Tandis qu'un secteur de cette jeunesse qui refuse la société actuelle lutte et s'affronte à elle, un autre secteur s'installe dans sa propre faiblesse, tombe dans «le narcisisme de sa propre oppression» et adopte une attitude passive, un rôle de victime.

3. *La toxicomanie, le plaisir.* Dans ce rôle de passivité le problème de ces jeunes est de pouvoir atteindre la sensation de plaisir au delà de la frustration sociale. La drogue, en effet, produit passagèrement l'effet miraculeux de donner aux jeunes frustrés la sensation d'être heureux.

4. *Ghetto, image différenciatrice.* La réclusion dans un groupe de personnes constitue un autre pas dans la toxicomanie. Ils marquent les différences externes face aux autres, qu'ils méprisent. Les rapports se limitent au ghetto, au reseau du trafic et aux maffias.

5. *Pauvreté, dégradation, confinement.* La plupart des jeunes qui s'adonnent à la drogue ou non, manquent des ressources minimums. La lune de miel assurée par la drogue est très courte. La dégradation apparaît vite. Le harcèlement social se produit, qu'il soit policier, de la maffia ou des collèges eux-mêmes. Leur capacité de retention, d'offre, de fidélité décroît. Le confinement apparaît comme la dernière possibilité de vie.

L'auteur conclut en dénonçant l'insuffisance de tout traitement de personnes adonnées à la drogue qui ne recherche pas un changement de fond des structures sociales actuelles, et qui n'agisse pas dans le changement d'attitude du jeune. Il dénonce, d'autre part, le manque de volonté, pour combattre le trafic de la drogue, de la part des responsables politiques de l'état.

# Eskola drogaren aurrean

**Amando Vega Fuente**

## 1. Egungo egoera

### 1.1. Eskola eta drogak

Eskolak, hezkuntz erakunde izanik, ez bide dirudi legezko eta legezkontrako drogen kontsumoak indibiduoen etorkizuneko garapenean izan ditzakeen ondorio guztiei buruzko kontzientziarik duenik. Droga hori legezkontrakoa izateak eta eskola edifizio barruan kontsumitzeak bakarrik kezkatzen duela ematen du. Legezko drogek, berriz (alkoholak, tabakoak, botikek, etab.), ez dute batere artegatzen. Situazio kritikoetarako, eskandaloa eskola murruetatik kanpora daitekeen kasuetarako alegia, bere eskueran dauka erremediorik efikazenetako bat: kanpora bidali. Gainerako kasuetan gertaturikoa ahalik eta gutxien barreiatzea izango da ardura nagusia.

Eskolari dagokion gaurregungo egoerari buruzko deskribapen hau gehiegizkoa izango da, agian, askorentzat. Baina goazen egitateetara. Zer egiten da, oro har, gure ikastetxeetan hitzaldi gutxi–asko sentsazionalista batzuez aparte? Ba al dago arazo horri buruzko hezkuntz politikarik?

Gertatzen dena da, bai legezko drogak eta bai legezkontrakoak problemen konponbide bezala eskaintzen zaizkigun kultura batean bizi garela, eta hori drogaren era desberdinetako kontsumora presionatzen ez gaituztenean, publizitatearen, talde–presioen, etab.en bidez. Gaurregun eskolara doan haur hau, droga horietakoren baten kontsumitzaile izango dugu luzarora gabe. Nork eskaintzen du substantzia horien gehiegizko kontsumo batean ez erortzeko hezkuntza egoki bat? Eta eskola, ez genuen ba esaten bizitzen irakasteko antolatua dagoela?

P. Deniker–ek diosku hitzetik hortzera eta gogoeta sakon batera gonbidatuz:

> Gazte batek bere burua drogatzen baldin badu, berori bost, hamar edo hamabost urte lehenago eman zaion hezkuntzaz interesatu beharra daukagu.

Eguneroko gertakariek, bestalde, gero eta gehiago presionatzen dute. Egunean baino egunean gehiago dira legezkontrako drogak kontsumitu eta legezkoez abusatzen duten ikasleak[1], substantzia horiek kontsumitzen hasten direneko adinak gero eta txikiagoak diren bitartean.

Zerbait grabea gertatzen ari da gure hezkuntz erakundeetan, hauek beren marfilezko dorrean itxita eta eguneroko problema errealetatik urrun bizi nahi dutenean. Zertarako balio dezakete irakurketak, matematikak etab.ek, baldin gero droga izeneko edozein substantziak indibiduoaren garapena bapatean inausita utziko badu?

Soberan daude hemen jadanik ezagunak zaizkigun justifikazio guztiak: ez gaudela prestatuak, behar bezalako hezkuntz baliabiderik gabe aurkitzen garela, arazoa ez dagoela eskolan, errua gizartearena dela, hezkuntza gurasoei dagokiela...

Nahi adina justifikazio erants dakizkieke horiei; baina merkeegiak dira. Hemen gertatzen dena da, drogak, legezkoak eta legezkontrakoak, egunean baino egunean eskuragarriagoak zaizkigula. Baita gure eskoletara doazen haurrei ere. Eta nork babestuko ditu gisa horretako egoera baten aurrean? Nork balia eraziko die hastapenetatik bertatik bizitza sano bat egiteko duten eskubidea? Nork irakatsiko die horrenbesteko eskaintzaren aurrean muzin egin eta aurrera jarraitzen?

Egia da, drogak, jendeak ezertarako behar ez dituenean amaituko direla. W. Burroughs–ek[2], alor honetan experientzia pertso-

nal handiko gizona izanki, zera diosku era ezin adierazkorrago batean:

> Baldin eta drogaren piramidea erasteko prest bagaude, piramide horren oinarritik beretik hasi behar dugu: kaleko drogazalearengandik, eta utzi alde batera «goikoak» direlako horien kontrako erasoak, zeren horiek ere berehalaxe ordezka bait daitezke. Eguneroko droga behar duen kaleko zale hori da drogaren ekuazioan inola ere ordezka ezin daitekeen faktore bakarra. Droga eros dezakeen drogazalerik ez dagoenean, orduan ez da egongo trafikorik ere. Baina drogaren beharrik ematen den bitartean, beti egongo da eskura diezagukeenen bat.

Eta horixe da eskolari dagokion egitekoa. Nekez ihardun dezake eskaintzaren kontra. Bai ordea eskeari buruz, eman dezakeen hezkuntzaren bitartez.

### 1.2. Hezkuntza baten porrota

Eskola ez da bere helburuak lortzen ari. Etengabeko aldaketan doan mundu batean, egunean baino egunean eztabaidagarriago gertatzen ari da berorren zeregina. Eta kritika, posturarik kontrajarrienetatik dator: I. Illich[3], P. Goodman[4], E. Reimer[5], etab.

Eskolaren porrot horrek, ordea, berorren planteiamenduaren ondoriorik logikoena dela dirudi. Zer ikasten du, orduan, haurrak? J. Holt–ek[6] ematen digu erantzuna:

> Haurrak, egiaz, bere inguruan gertatzen denari inolako jaramonik egin gabe ikasten du bizitzen. Esan liteke eskola ikasbide apropososa dela gainerakoengandik nola «deskonektatu» ikasteko, eta horrek agian asko lagunduko liguke munduari buruz txikitan izan zuten baino kontzientzia handiagoaren eta komunikazioaren bila dabiltzan hainbat eta hainbat gaztek, zergatik hori drogetan bakarrik aurki dezaketela sinesten duten explikatzen.

Antzeko ondorio batera iristen da W. Glasser ere[7]:

> Drogaren erabilera gero eta ugariagotuz doa gure gazteen artean, eta bi talde handitan bereziki: gure hezkuntz sisteman porrot egiten dutenen artean, alde batetik, eta hezkuntz sistemaren eta beren bizitzen edo munduko problemen arteko erlaziorik ikusten ez dutenen artean, bestetik.

Zer eskaintzen diegu gure gazteei eskolatik irteterakoan? Zer eskaintzen zaie barruan? Ez da batere harritzekoa izaten O.H.O.-

ko azken ikasturteetan eskolaz, eta irakasleez, eta familiaz, eta denaz «passsa» egiten diren neska–mutilak aurkitzea. Etsipenak dirudi gure gizarteko txanponik erabiliena. Eta gainera ia–ia subertsiboa dirudi G. Georges–ek[8] egiten duen deklarazioak:

> Ez ditugu onartzen gazteen delinkuentzia gero eta hedatuagoa, hezkuntz sistematik noiz irtengo zeletan daukaten langabezia, eskolako heziketaren eta bizitza aktiboko errealitatearen artean etengabe ematen ari den gero eta haustura handiagoa.

Drogen kontsumoa, horrela, gaurregungo hezkuntzaren porrotaren adibide bat gehiago bihurtzen da. Baina, ausartuko ote gara horrela dela onartzera? Hala izango balitz, gure hezkuntz sistemak berrikusteko aitzakia bilakatuko litzateke orduan drogaren problema, ez dira bizitzari zentzu bat emateko gauza izan, lortzen diren emaitzek ongi aski frogatzen diguten bezala.

Bizi dugun drogen kultura honek baditu bere balore propioak, eta sekula kontsumitu ez dituen jendeak berak ere onartuak gainera. Balore horiek efikazia osoarekin aldarrikatzen dizkigute komunikabideek eta gazteek berek ere, hezlarien pasibitaterik handienarekin. S. Hocman–ek[9]:

> Balore positibo gorenak, tradizioari eta autoritateari buruzko eszeptizismoari esleitzen zaizkio, presenteko unera orientaturiko bizitzari, estimuluak bilatzeari, berehalako atseginari, autoritate eta erantzunkizun pertsonalei eta beste kontzientzi egoerak experimentatzeko eskubide pertsonalari.

Medikuntzaren praktika profesionalak, bestalde, printzipioz bizitza sano baterako hezteaz arduratu behar bazukeen ere, guztia «pilula» batekin konpon daitekeelako uste inozoa indartu du. Presenteon, nahi den orotarako pilulakadez hornituak gaude: pilulak lo egiteko, pilulak esnatzeko, pilulak dibertitzeko eta lan egiteko, pilulak... Zeletatxo bat egin besterik ez dugu gure etxeetako botikinetara.

Konponbide magikoak nahi ditugu bizitzak planteiatzen dizkigun problemak ebazteko, eta hementxe gaude kanpotik etorritako «zerbait»en edo «norbait»en zain, soluzioa eman diezagun, geure aldetik inolako esfortzurik egin gabe. D. Riesman–ek[10] «besteek zuzendaturiko gizakia»ren nortasunari buruz egiten duen salaketak bete–beteko indarra hartzen du hemen, gure gizartearen alienazio negargarria begien bistan jartzean.

Zer egiten dute egoera honen aurrean hezkuntz erakundeek? Eskolak irakatsi egiten du, baina ez hezi, esan ohi da. Drogen problemari dagokionez, ordea, problemaren konplexutasun osoaz behintzat ez dela ohartu ere egin esan behar da. Aitzitik, bere inkontzientzian (erruduna?, manipulatua?) eskolak zabalkuntzarako medio bezala jokatzen du: eskolan prestatzen dira biharko kontsumitzaileak. Substantzia baten abantailak bizitzen hasiak diren garun horietan zenbat eta lehenago sartu, hainbat hobe. Hortxe daukagu bururik kamutsenak ere erraz aski ulertuko lukeen kasu bat. Coca–Colarena esan nahi dut. Izan ere, multinazional horixe bait da gure herrian hainbat ikastetxek parte hartzen duten Erredakzio Nazionaleko Lehiaketa antolatzeaz arduratzen dena. Bertan parte hartzeko nahitanahiezko baldintza: Coca–Cola fabrikara bisitatxo bat egin behar irakasleekin.

### 1.3. Erantzunen bilaketa beldurti bat

Hala ere, esan dugun guztia esanda ere, ez dira falta egoera honen aurrean kezkatzen eta hezkuntz erantzunak ematen saiatzen direnak. Etengabe antolatzen dira hitzaldiak, kurtsoak, kurtsiloak, ihardunaldiak, etab. Begiratu sinple batekin esan liteke ahal diren neurri guztiak hartzen direla drogamenpekotasunaren problemaren aurka. Baina, horrela al da?

Gertatzen dena da, drogen problema, hedapen sozial handiko problema dela batez ere. Eta ondorioa ere bidezkoa da, Unescok berak seinalatzen duen bezala[11]:

> Soluzioak iturburuan bertan bilatu beharko dira, textuinguru soziokultural desberdin eta konplexuetan.

Normalean droga bera dela uste izaten da problema guztiaren elementu behinena, elementurik inportanteena ingurune konkretu batean bizi den pertsona den bitartean. Pertsona hori da arrazoirik desberdinenengatik drogak kontsumitzen edo beroriez abusatzen duena. Eta hor nahasi–mahasian agertzen dira faktore fisikoak, psikikoak, hezkuntzakoak, familiarrak, sozialak... hain era konplexuan nahastuak, non ezin esan bait daiteke bat bakarra denik drogak kontsumitzera bultzatzen duen «kausa». Horrela bada, erantzunak ere ez du balioko, baldin maila batean bakarrik ihardu-ten bada, gainerakoak alde batera utziz. Jarraian ematen dugun 1. koadro honek lagun diezaguke problemaren ideia global bat eginez berorrek galdatzen duen erantzuna bilatzeko:

1. Koadroa




Zer egiten da orain arte? Zein armarekin erasotzen zaio problemari? Hitz batean esateko, zein baliabiderekin kontatzen da aitzineurri eta tratamendurako?

Orain arte behintzat ez bide dirudi saio handirik egin denik problemari bere adarretatik serioski heltzeko. Gaurdaino eman izan den jokabidea ikusteko, «Drogen Kontsumotik Eratorritako Problemen Estudiorako Ministraritzarteko Batzorde» famatuak daraman martxari begiratu besterik ez dago. Batzorde hori 1974ean fundatu zen eta handik berehalatsu, Espainiako egoeraren estudio bat egin ondoren, ekintzarako arau batzu ematen ditu[12]. Zer gertatu da? Ez da ia deusik ere egin, kanpainaren bat eta liburuskaren bat edo beste argitaratzea izan ezik, eta horiek beste ezer baino gehiago erantzunak eskatzen zituztenen ahotsa isilerazteko eta batez ere gurasoen angustia baretzeko, inondik ere. Beno, agian balio zezaketen baita boturen bat edo beste gehiago lortzeko ere.

Baina jo dezagun barrurago bereziki hezkuntzarena den arlo honetan. Zein programa egin izan da orain arte? 1976an egin zen estudio bat gure herriko osasun–zentruetan drogei buruzko hezkuntz ihardueren gainean, dispentsario antialkoholikoak ere barne zirela[13]. Eta atera zituzten emaitzak ere ezin izan adierazkorragoak:

1. Ihardun–eremua oso mugatua gertatzen da, bai pertsonal gaituaren eskasiarengatik eta baita baliabide–faltarengatik ere.

2. Orohar, aitzineurri eta hezkuntzako joera baino gehiago, terapeutikoa nagusitzen da.

3. Hezkuntz experientzia desberdinen aurretiazko plangintza bat falta da, eta orobat ikastetxe desberdinen arteko koordinazioa ere.

4. Normalean nahastu egiten dira informazioa eta hezkuntza. Jeneralean, ez dago inolako hezkuntz programaziorik.

Eta, egia esan, ez dut uste ezer asko aurreratu denik orduz geroztik. Orduko emaitzek, orohar, berdintsu irauten dute gaur ere, ez bakarrik osasun–zentruei dagokienez, baita hezkuntz zentruei dagokienez ere. Hezkuntza delakoak, informazioa izaten segitzen du; landuagoa nahi bada, teknika hobeekin, baliabide gehiagorekin (eta hori ere ez leku guztietan), baina informazioa, azken finean.

Zeren hezkuntza, OPTATek[14] Kanadako hezkuntzari buruzko estudio batean seinalatzen duen bezala, zera bait da:

> indibiduoen eta gizarte–taldeen heziketa eta garapena osasun kolektiboa sustatzeko optika baten barruan segurtatzeko baliabide egokiak martxan jartzea.

Eta horrek esan nahi du, beste gauzen artean, hezkuntza egitate bat izango dela, ezagupenekin batera jarrera–aldaketak ematen direnean eta droga desberdinen kontsumitzaile izateko haztura–-aldaketak ematen direnean batez ere («osasun kolektiboaren garapena»). Bestela, hezkuntza (= informazioa) ahobiko arma bihurtzen da, ondorio positiboak bezalaxe negatiboak eskain ditzakeena, alegia.

Hauxe dugu gaurregun droga–kontsumoak hezkuntzaren erakundeari egiten dion erronka paregabea. Eta, egia esan, ez da izango erraza konpontzen. Dena den, drogei buruz prestatzeko maisu–maistrek izan dituzten experientziak aipatu nahi nituzke hemen. Barcelona dela ematen du gaurregun gai hori gehien jorratu duen hiria, era guztietako erakundeen bidez. Eta zein ondorio lortu dira? 1981ean O.H.O.ko irakasleen ezagupen, jarrera eta kontsumitzeko hazturei buruz egindako estudio batean argi aski ikusten zen ezagupen–maila handiagoa zutela nolabaiteko formazioren bat hartu zuten irakasleek[15]. Irakasleekin horrela gertatzen baldin bada, zer esan ote liteke ikasleez? Ez dago erantzun errazik.

Unescoko adituen taldeak aitzineurrien programak[16] ebaluatzeko orduan atera zituen konklusioak ohar serioa dira erantzun arinak ematen ez ibiltzeko:

> Etikaren aldetiko fokapena, soilik erlijioaren eta familiaren eragina indartsuak ziren kulturetan gertatzen zen arrakastatsua. Fokapen zientifikoak izan zuen arrakastarik talde espezifiko batzutan, beroriengana zuzendua zegoen eta, baina, jeneralean, desegokia gertatu zen nazio garatuetan. Fokapen zientifikoaren arriskurik handiena zen, alegia, horretaz bakarrik baliatuz gero, drogetara jo-

tzeko interesa sor zezakeela zenbait gazteren artean eta horiekin probak egitera bultzatuko zituzkeela. Fokapen afektiboak, berriz, experimentazioaren kausei kolpe bat eman nahi izatean, garrantzia kendu egiten zion droga espezifikoei buruzko benetako informazioari, eta jarrera eta balore indibidualak sendartu beharra azpimarratzen zuen; ez zuen isolatzen farmakomenpetasunaren problema beste fatore sozialetatik.

## 2. Perspektibak: hezkuntzarako erizpideak

Hasteko, inolako «errezeta»rik ez dagoela aitortu behar dugu hezkuntzaren arloan, nahiz eta berorien bila jo eta ke ibiltzen garen. Aitortu beharra dago, baita, hezkuntza baliabide bat gehiago besterik ez dela, oso inportantea dudarik gabe, beste aitzineurrien artean[17]. Bigarren koadro honek lagun diezaguke berariaz hezkuntzaren egitekoa izango litzatekeena bere lekuan kokatzen.

2. Koadroa

| Denbora | Iharduera | Terminologia |
|---|---|---|
| Abusu aurretik | Hezkuntza<br>Informazioa<br>Alternatibak<br>Garapen pertsonala eta soziala | Lehen aitzineurriak |
| Abusuaren hasieran | Krisialdian eskuhartzea<br>Detekzio goiztiarra<br>Urgentziazko baliabidak<br>Orientazioak krisialdian | Bigarren aitzineurriak |
| Abusu ondoren | Tratamendua<br>Instituzionalizazioa<br>Desintoxikazioa | Hirugarren aitzineurriak |

Hezkuntzaren zentzurik benazkoenean indibiduoen garapen oso baterako kaltegarriak izatera irits daitezkeen drogen kontsumo–formentzat aitzineurriak hartzea edo ahal den guztian haiek gutxitzea izango litzateke hezkuntzaren helburua. Zentzu positibo batean adierazteko, hezkuntza aitzineurrizko eta terapeutiko

batek nortasun sano baten garapenerantz jo behar du, nola ikuspuntu fisikotik hala psikikotik.

Gaurdaino herrialde desberdinetan egin izan diren hezkuntz experientziak ez bide dirudi behin betiko ondorioetara iritsi direnik. Hala ere, pixkana–pixkana ari dira soslaitzen norabide batzu behintzat.

Komeni litzateke, bestalde, zuhur jokatzea eta hezkuntzaren arlo honetan egin izan diren saio eta esfortzu desberdinetan lortutako experientziak eman dituen datuak kontutan hartzea, horien artean honako hauek azpimarratu beharko genituzkeelarik:

1. Aitzineurrizko hezkuntzak, nortasun fisiko eta psikiko sano baten garapena du helburu.
2. Arriskurik gehiena duten indibiduo eta taldeak ardura berezi batekin zaindu behar dira hezkuntzako programetan metodo eta fokapen egokiekin, baina horregatik ahaztu gabe drogen kontsumoarekin problema larririk izango ez duen gehiengo hori.
3. Hezkuntzaren arloan erantzunkizun profesional behinena pertsonal irakasleari dagokio, eskolaz kanpoko hezlariei eta hezlari–funtziorik betetzen duen pertsona orori, horretarako formazio egoki baten jabe izan beharko dutelarik.
4. Hezkuntzak, beren textuinguru sozial eta kulturalean hartzen ditu pertsonak, beti ere kontutan hartuz droga desberdinen kontsumoari dagokionez erabakiak hartzeko unean faktore asko direla intziditzen dutenak. Informazioarekin ez da aski, eta gerta liteke kaltegarria izatea gainera.
5. Hezkuntzarako metodorik egokienak «metodo aktiboak» deituak dira, aktiboki jokatzera bultzatzen bait dituzte indibiduoak, horrela konpromisu handiago bat lortuz.
6. Egunean baino egunean garrantzi handiagoa ematen zaio hezkuntzako ingurunearen kalitateari —eskolan bertan eta eskolatik kanpora— edozein hezkuntz experientziatan. Komenigarria da, beraz, beti giro positibo, estimulagarri eta atsegin bat mantentzea.
7. Ezinbestekoa gertatzen da zeinnahi programaren ebaluazioa egitea. Eta honek aurretik proposatutako helburuekin bat joan behar du, eta fase desberdinetan egikaritua gainera ahal den guztian.

8. Hezkuntzako programen oinarri bezala, maila desberdinetan (hala nola, nazio–, erregio– edo herri–mailan) aplikagarriak liratekeen eta printzipioak, helburuak, fokapenak, metodoak, materialeak, koordinazioa eta ebaluazioa dena bere baitan hartuz norabide globalak eskain ditzakeen hezkuntz politika bat eman behar da.

9. Eskolako eta eskolaz kanpoko programen koordinazioa ezinbestekoa gertatzen da eskuartean ditugun baliabideen efikazia nahiz ahalik eta erabilpen handiena segurtatu ahal izateko. Eta horrexegatik, komeni litzateke, beraz, bertan inplikatuak dauden sektore desberdinen arteko informazio– eta koordinazio–zerbitzu bat antolatzea.

10. Programak behar bezala burutu ahal izateko, plangintzarako finantz laguntza egoki batekin kontatu beharko da beti, eta plangintzarako bakarrik ez, baizik egindako programak martxan jartzeko, burutzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko ere.

Baina planteamendu guzti hau hutsean geratuko da, baldin ez bazaie formazio on bat ematen hezkuntzako zereginean dihardutenei —profesionalak izan ala ez— eta haurrekin, adoleszenteekin eta gazteekin harreman zuzenago batean aurkitzen direnei batez ere. Formazio horrek beti presente egon behar du pertsona guzti horien hasierako ikaskuntzan eta orobat ondorengo garapenean ere. Eta guzti horrek politika koherente bat galdatzen du: hezkuntzan inplikatuak dauden, baina batez ere hezkuntzara dedikatuko diren profesionalak prestatzeaz arduratzen diren erakunde guztien politika bat, alegia. Zeren eta, drogei buruzko hezkuntzak, norbanakoaren hezkuntzan bait du bere esparrurik aproposena.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**

*A.V.F.*

---

[1] VEGA, A.: *Los educadores ante las drogas,* Santillana, Madrid, 1983, 24-31 or.

[2] BURROUGHS, W.: *El almuerzo desnudo,* Ed. Júcar, Madrid, 1978, 11 or.

[3] ILLICH, I.: *La sociedad desescolarizada,* Barral, Barcelona, 1974.

[4] GOODMAN, P.: *La deseducación obligatoria,* Fontanella, Barcelona, 1973.

[5] REIMER, E.: *La escuela ha muerto,* Barral, Barcelona, 1973. Eskolaren problematika orokorraz, ikus PALACIOS, J.: *La cuestión escolar. Críticas y alternativas,* Laia, Barcelona, 1978.

[6] HOLT, J.: *Fracaso de la escuela,* Alianza, Madrid, 1977, 27 or.

[7] GLASSER, W.: *Escuelas sin fracasos.* Pax–México, México, 1981

[8] Ik. VIAL J. *La escuela rumbo al 2001,* Narcea, Madrid, 1979, 69 or.

[9] HOCMAN, J.S.: *Mariguana y evolución social,* Diana, Madrid, 1975, 236 or.

[10] RIESMAN, D. eta beste: *La muchedumbre solitaria,* Paidos, Barcelona, 1981.

[11] UNESCO: *Reunión sobre la educación destinada a prevenir el abuso de estupefacientes, especialmente en los países desarrollados. París. 11-20 Diciembre 1972,* Unesco, París, 1973. (Multikopiatua).

[12] GRUPO DE TRABAJO: «Memoria del grupo de trabajo para el estudio de los problemas derivados del alcoholismo y del tráfico y consumo de estupefacientes», in: *Rev. de Sanidad e Higiene Pública,* vol. 49 (1975), n.° 5-6.

[13] MENDOZA, R., VEGA, A., SAGRERA, I.: «Actividades de educación en materia de drogas llevadas a cabo por centros sanitarios españoles», in: *Drogalcohol,* vol. 5 (1980), n.° 4, 181-197 or.

[14] OPTAT: *Etude comparative des diverses experiences et méthodes mises en oeuvre au Canada pour prevenir par l'éducation l'abus des drogues,* Unesco, París, 1971.

[15] VEGA, A.: *La droga a l'escola,* CEAC, Barcelona, 1983.

[16] UNESCO: *Meeting of specialists on methodologies for evaluation of Mass Media Programmes for prevention of drug abuse,* Unesco, París, 1973.

[17] VEGA, A.: *Las drogas ¿un problema educativo?,* Cincel–Kapelusz, Madrid, 1983.

[18] UNESCO: *Reunión de expertos sobre coordinación de la educación escolar y la extraescolar relativas a los problemas relacionados con el uso de las drogas. Lisboa 8-12 septiembre 1980,* Unesco, París, 1981.

## *LA ESCUELA ANTE LAS DROGAS: SITUACION ACTUAL Y PERSPECTIVAS*

## L'ECOLE FACE AUX DROGUES: SITUATION ACTUELLE ET PERSPECTIVES

*1. Situación actual*

*1.1. La escuela y las drogas. El autor comienza por constatar la falta de una política educativa respecto al problema de la droga. No se educa para que el niño no*

*caiga en el consumo abusivo de las diversas drogas legales e ilegales. La escuela difícilmente podrá actuar sobre la oferta de droga, pero sí puede hacerlo sobre la demanda: puede influir para que no haya necesidad de droga.*

*1.2. El fracaso de una educación. El problema de la droga es signo del fracaso de la educación actual. Hay una ruptura entre la escuela y la vida real. El sistema educativo es incapaz de dar un sentido a la vida, de reaccionar frente a los valores de la «cultura de la droga», de corregir la tendencia a buscar en alguna «píldora» la solución externa de cualquier problema. Más aún, la escuela de hecho ha servido de instrumento de difusión de la droga.*

*1.3. Búsqueda tímida de respuestas. Pese a todo ello se intenta dar respuestas al problema de la droga. La respuesta debe buscarse en los varios niveles del contexto sociocultural que inciden en la droga. El autor denuncia la escasez de recursos humanos y materiales, tanto globalmente como en el ámbito educativo. El defecto principal de la respuesta escolar es que se mantiene a un nivel informativo, no educativo que incida en el cambio de actitudes. Este es el reto que se le plantea a la institución educativa, no fácil de resolver.*

2. *Perspectivas*

Criterios para la educación. *No hay recetas para lograr que la educación obtenga su finalidad: prevenir o reducir al mínimo las formas de consumo de drogas. Las experiencias educativas de los diversos países no llegan a conclusiones definitivas. Con todo el autor enumera algunos datos que aportan estas experiencias.*

---

1. *Situation actuelle*

1.1. *L'école et les drogues.* L'auteur commence par constater l'abscence d'une politique éducative concernant le problème de la drogue. On n'éduque pas l'enfant pour l'empêcher de tomber dans la consommation abusive des diverses drogues légales ou illégales. L'école pourra difficilement agir sur l'offre de la drogue, mais, par contre, elle peut le faire sur la demande: elle peut influencer pour qu'il n'y ait pas de besoin de drogue.

1.2. *L'échec d'une éducation.* Le problème de la drogue est le signe de l'échec de l'éducation actuelle. Il existe une rupture entre l'école et la vie réelle. Le système éducatif est incapable de donner un sens à la vie, de réagir face aux valeurs de la «culture de la drogue», de corriger la tendance qui pousse à rechercher dans quelque «pillule» la solution externe de tout problème. Bien plus, l'école, en fait, a servi d'instrument de diffusion de la drogue.

1.3. *Recherche timide de réponses.* Malgré tout cela, on essaie de trouver des réponses au problème de la drogue. On doit les chercher dans les différents niveaux du contexte socioculturel qui ont une incidence sur la drogue. L'auteur dénonce la pénurie de ressources humaines et matérielles, autant globalement que

dans le contexte éducatif. Le principal défaut de la réponse scolaire est qu'elle se maintient à un niveau d'information et non d'éducation capable d'entraîner un changement d'attitudes. Tel est le défi qui se pose à l'institution éducative, défi pas facile à relever.

2. *Perspectives*

*Critères pour l'éducation.* Il n'existe pas de recettes pour faire que l'éducation arrive à son objectif: à savoir, prévenir ou réduire au minimum les formes de consommation de drogues. Les expériences éducatives des différents pays ne parviennent pas à des conclusions définitives. Cependant, l'auteur énumère certaines données qu'apportent ces expériences.

# Toxikomanien tratamendua

**Juan Sastre**

Drogak: drogamenpekotasun askoren mundu batetan bizi gara. Alkohola, kafea, tea eta mate–belarra, koka eta opioa... Historia substantziez beterik dago bere lehen garaietatik. Eta gero kimika: jendeak substantzia sinpleen sintesiz prestaturiko toxikoak. Eta gero, substantzia sinplez edo eta konposatuz egin daitekeen hainbat konbinaketa. *Zer* kontsumitzen denaz aparte, *zergatik* kontsumitzen den dago, eta *nola*. Historikoki nola iristen garen drogak kontsumitzera, eta kontsumitzeko modua, eta kontsumitzeaz egiten den erabilpen politiko, ekonomiko eta militarra eta, konkretuago dena, gizakiaren gorputzean zein mekanismoz sartzen den substantzia. Filosofiak, historiak, zientziak, politikak, bueltak eta bueltak ematen dizkiete drogen problemak planteiatzen dituen kontradikzioei; inoiz ez aski esplikaturiko, —*eta, ondorioz, inoiz ez ongi bideraturiko*— kontradikzioak.

Zein elementu teoriko ditugu drogen fenomenoaz hitzegiterakoan, eta konpontzerakoan zein soluzio proposatzen ditugu? Honetaz eta Euskal Herriko errealitateaz hitzegingo dugu laburkiro.

## Aukera ofiziala: psikiatria

Ez da gaur goizekoa. Medizina tradizionalaren adarra den Psikiatriari dagokio G.S.I.k (Gaisotasun Sailkapen Internazionalak) 304 zenbakipean «Drogamenpekotasuna» deitzen duena diagnostikatzea eta tratatzea; alkoholismoa bezala edo buru–gaisotasuna bezala, ez delarik hauetan ere kausalitate soziala baloratzen.

Klinikoki, drogamenpekotasunak orain xehetuko ez ditugun ezaugarri batzu ditu, gizakiaz oso ikustapen pobrea suposatzen dutenak. Batzuren ikustapenean, badago korrespondentzia bat Etiologiaren (droga), Gaisotasunaren (drogamenpekotasuna) eta Tratamenduaren (kimikazko zein manikomiozko prozedurak) artean. Beste batzuek —«psikiatria dinamikoa» delakoan—, edozein fenomeno psikiatrikotan, eta beraz toxikomanietan, gizarteak (eta batipat kapitalismopean gertatzen den inkomunikazioak) duen eragin inportantea ezaguturik ere, praktikan ez dute terapia berririk asmatu, berritzapenak suposa lezakeen enfrentamenduaz (egitura ekonomiko–kulturalekiko enfrentamenduaz) ahanzten direlarik.

Sarrera hori beharrezkoa zen, toxikomanoei buruzko gaurregungo Baskongadetako osasun–egitura estatuaren egituraren erreflexua baizik ez dela jakiteko. Estatuaren zutaberik sendoenetakoa bait da Psikiatria. Honela, eta konkretatuz pixka bat, Euskal Herrian Psikiatriak bitara jotzen duela ikusten dugu[1]:

a) *Psikiatria instituzionala:* estatuaren eta autonomiaren finantziabide publikoak dituena.

b) *Piskiatria pribatua:* badira honetan jarrera pertsonal desberdin samarrak baina aski bateratuak, ikustapen klinikoari eta tratamenduari buruz. Bitarteko gutxiago dutelako eta bestela finantziatzen direlako bereizten dira psikiatria instituzionaletik.

Psikiatria instituzionala Gizarte–Segurantzako Erresidentzietan eta eusko gobernuaren zentruetan praktikatzen da[2].

Psikiatria pribatuak kontsulta partikularretako ohizko medioak erabiltzen ditu.

Lan honetan, toxikozaleez jeneralean mintzatuz desbideratu egingo bait ginateke, aurrerantzean ia bakarrik heroinazaleez mintzatuko gara, hauena, bait da mementu honetan problemarik bizien eta dramatikoena. Heroinaren abusuaren inplikazio politiko, ekonomiko eta poliziakoez

ezin gara gisa honetako lan batetan aritu; halaber, ezin ihardun gaitezke alkohola eta tabakoa eta beste toxikomaniez.

Batean zein bestean tratamendua hasten da —eta luzaz segitzen da, gehienetan— heroinaren ordezko psikofarmakoen (*metadona* edo *tilitrate* tipokoen) eta beste droga lasaigarri eta loeragile zenbaiten erabiltzearekin. Parametro tradizionalen arabera, produktu hauek droga fundamentalaren (kasu honetan, heroinaren) ez–dependentzi etapa batzu irekitzen dituzte, gizabidezko terapia sakonagoak aplikatzeko probetxa daitezkeenak: talde–dinamikak, harreman–taldeak, medikuekin elkarrizketa pertsonalak...

Orain arteko emaitzak benetan pobretzat jo behar ditugu. Eskuartean ditugun estatistikek[3] eta geure experientziak erakusten digutenez, egotzi nahi den drogaren ordezko farmako bat edo eta kimikazko antzekoren bat erabiliz, «pazientea» ez da osasun–egoerara iristen, eta, beraz, ez da posible drogamenpekotasunaren kausak deskubrituko (eta onetan konponduko) lituzkeen mediku–paziente harreman positiborik.

## Abiapuntu bat: isolamendua

Handi–mandika, zerbait esan dugu problemari eskaintzen zaion alternatiba batetaz, eta beronen balorapen kritikoa egin dugu. Berehala planteiatzen zaigu galdera: eta zer dago Psikiatriaz kanpo? Orduan bururatzen zaigu zenbaitetan prentsak haizatutako Patriarca–ren experientzia zertxobait enigmatikoa eta hiru komunitate terapeutikotan praktikara eramana; azaldu ziren ordenan, Zanduetan (Nafarroa), Aian (Gipuzkoa) eta Berriatuan (Bizkaia).

Psikiatria tradizionala egituratzen duen aparato ekonomiko–ideologikoari erantzun bezala —noraino erantzuna, noraino aparato horrek asimilagarria?—, experientzia honek, hasteko, drogen ordezko drogen erabiltzea kuestionatzen du, eta beste bide exklusibo bat proposatzen: Komunitate Terapeutikoa.

Patriarca–ren jarraitzaileek, terapiaren oinarritzat isolamendua eta lan fisikoa duten komunitateak bilatzen dituzte. Ez derrigor mendian daudenak, nahiz eta —isolamendu bila— mendian egon ohi diren, ez autosufizienteak (finantziazioa herri eta hirietan aritzen diren erakunde kontzientziatzaileen kontura dago), eta Euro-

pa guztian —epizentrotzat estatu frantsesa— sare zabal bat dutenak.

Patriarca-ren komunitateak —tokian-tokiko eta autonomoago diren beste batzuek bezala, Araba eta Nafarroan batipat— horretan oinarritzen dira: *isolamenduan.* «Zaldira igoa» dagoena bere bizilekutik (askotan kartzelatik, nondik aparato judizialekiko akordioen bitartez ateratzen bait da) leku estraino batera eramaten da. Leku honetan —komunitate itxia, ongi diziplinatua, lana gogor egiten duena—, bera inpotente sentitzen den edo beldurra edo angustia duen edo komunikatu ezin —ezintasun subjektiboa— daitekeen parajeetarik urrutiratzen da, pertsonaren desarroiloa gertatzen den inguruetatik: haurtzaroa, familia, etxea eta herria edo auzoa, lagunak edo lagunik eza. Aldentzearekin, eten egiten da bolada batez drogara eraman duten faktore horiekin, eta, beraz, ez dagoke defentsa bezala drogaren beharrik (drogak segurtasuna eta kemena ematen du bizitzaren arriskuen aurrean, edo apati egoera batean suntsitzen).

Komunitate hauetan gertatu diren toxikomanoen «errekuperazio»ez datu estatistikorik ez badugu ere (eta bai bultzatzaileen deklarapen baikorrak), aldentze-sistema honen (sarritan ez jakin zein pertsonaia edo botere sobrenaturalekin «topatze mistiko»z jantziaren) kritika bat esboza dezakegu, hain zuzen urrutiratzea den aldetik; eguneroko eta denboraz gaineko egoeretatik urrutiratzea, alegia: egin behar dena, *in situ* tratatzea da, eta ez —bestalde, existitzen ez den— mundu hobeagoren bila ihes egitea. Toxikomanoaren bizitza, harena berarena da eta bere herrian inguratu eta inguratzen dutenena; eta edozein aldentze mekanizistak drogaren efektu bera baizik ez dezake sor: denbora laburrago edo luzeago batez, bere errealitatetik abstraitua egotea. Drogen ziklo berbera: Menpekotasuna-Abstinentzia-Ondoeza-Menpekotasuna. Hots, Aldentzea-jatorrira itzultzea-Ondoeza-Menpekotasuna (drogena nahiz aldentze berri batena).

Hemen eta orain (eta oso aspaldidanik) ditut nik arazoak. Hemen eta orain bilatu behar ditugu soluzioak. Eta denon artean.

## Experientzia baten historia laburra

1982an, aipatu ditugun sistema terapeutikoen kontradikzioetan murgilduak geunden. Eta Berastegin eta Jaizkibelen izandako

experientzien ondotik, geurea bizitzea erabaki genuen, eta Aiako «Mañin» baserrira sartu ginen. Zerk animatzen gintuen?

Ohizko psikiatrian ez sinesteak; ondorio on hipotetikoen aitzakiarekin, droga bat beste batez trukatzea on izan daitekeela ez sinesteak. *Junkie* bat beste *junkie* batekin, *junkie*–a eta «gamelua», *junkie*–a eta kimika suministratzen duen medikua: esklabu–harremanak dira horiek, askatasun–gabeak eta, beraz, balio–gabeak. Elkarrekiko harremanak baldintzatzen dituen droga bat dagoen bitartean, ez dugu problemarik gaindituko.

Aldentzearen formulan ez sinesteak, esan dugunagatik: Herri honetan bizi den euskal heroinazaleak, hemen sufritzen du, gurekin edo gure kontra, gure artean. Haren eta gure problemen soluzioak ere hemen egon behar du, gurekin edo gure kontra, gure artean.

Baserrira bultza gintuena guzti horretan ez sinestea izan zen, eta beste zerbait egiteko gogo bizia. Drogak Eragindakoen Elkartean orduan ginenok, teknika eta bitarteko gutxi izanik, ilusioa bagenuen; eta, batzutan, akabatzen gaituzten problemen aurrean, toxikomano eta monitoreen elkar–lana eta –bizitzak elkartasunezko aterabide gizakoiak erabakiko zituztela pentsatzen genuen.

Jendearen eta gauzen eskasiak erabaki zuen, hein batetan, experientziaren porrota. Instituzioen ereduekin topo egin genuen, eta instituzioek ukatu egin ziguten garrantziko laguntza materiala:

a) *Ikuspegi medikoa*–rekin topo egindakoan, instituzio medikoek izan ohi duten laguntzarik ez genuen apenas izan.

b) *Eredu juridiko–poliziakoa*–rekin (kontsumitzaile eta trafikari txikien gaineko errepresio–, tortura–, kartzela–sistemarekin) topo egindakoan, gure bazterketa automatikoa zen, arlo honetan erabateko ezadostasuna bait dago. D.E.E. bezala, gure alternatiba presoak kaleratzea zen (gurean sartzeko), egitura judizial eta kartzelazkoekin etengabeko tirabiran.

d) *Ikuspegi psikologiko–indibidual*–etik gero eta aparteago ibili ginen, gure kontzepzioa sozio–kulturala eta ekonomiko–politikoa izanki.

Terapi teknika konkreturik eza ere erabakiorra izan zen experientzia bukatzeko. Lan gogorreko sei hilabete pasa eta gero (lanean, terapian, administrazioan, denetan inprobisatuz), konprenitu genuen toxikozaleei edozein laguntza eskaintzeko, problemaren ulertze zabal batekin batera —eta beroni esker—, beharrezkoak

genituela gizabidezko terapia konkretuen aplikazioa bideratuko zuten tresna teorikoak. Eta orduan beste talde eta elkarteengana jo genuen, hala nola Ce.I.S. (Italiako Solidaritate Zentrua), zeinaz ondoren mintzatuko bait gara.

## «Il Progetto Uomo»

Erroman sortu zen, 70.etan, Estatu Batuetan erabilitako teknika komunitario desberdinak asimilatuz[4]. Hona, handika, projektuaren oinarriak:

— toxikozaleen problema gizabidez ulertu behar da, bai bere alderdi indibidualetan eta bai bere inplikazio sozial, politiko eta ekonomikoetan.

— inguru komunitario batean talde–dinamikak *(topaketa–taldeak)* aplikatu behar dira, eta fase desberdinez.

Problema sakonki ulertzen baldin bada, nahitaez *erantzukizuna*–ren asumitzea dator, nork berea eta denona, nola toxikomanien sorreran hala horien bideratze terapeutikoan.

Askotan, beharbada fokapen sinplistegi batean, problemaren iturburu sozio–politikoak toxikomanoa biktima huts–tzat erakutsi digu. Bestetan, indibiduoan eta honen psikologi ezaugarrietan zentratzen gara, ustez eta drogaren munduan «eror» erazi zuketen ezaugarri horiekin lan egin beharko litzatekeela, pertsona gizarterako «errekuperatzeko» orduan.

*Il Progetto Uomo* honetan bitara lan egiten da: toxikomanoari kontzientzia harreraziz bere bizitzako edozein ekintzatan (eta beraz «engantxatzean» eta «deskolgatzean» ere) berak duen arduraz, eta, aldi berean, edonoren bizitzan gertatzen diren gainerako faktoreak (familia, lagunak, auzoa) inplikatuz terapia honetan. Honek, nagusi diren kultur ereduei eta desinformazioari kontra egiten dien politika batekin batera (aldizkari, irrati, hitzaldi eta abarren bidez), problemaren ulermena erraztu egiten du.

Honela, bere handitasun eta konplexutasunean agertzen da gaia: nolabait, denok gara geuk hautatu ez dugun sistema zapaltzaile baten biktima, baina, aldi berean eta fundamentalki, denok izan behar dugu «humanizatze»–prozesu mingarri baten eragile, jakinik horretan pertsona batek askotariko erreakzioak izan ditzakeela: batzutan degradatze–aldera eta bestetan —hementxe sartzen du «terapiak» eskua— gainditze–aldera.

Gainditzekotan, ezinbestean aitortu behar da, *funtsezko problema ez dela substantzia bat hartzea, baizik pertsona batek bere errealitate eta ametsei buru egiteko dituen zailtasunak.* Sentidu honetan, automatikoki baztertuko litzateke beste drogen, ordezko drogen, kontsumoa; batez ere ongi dakigularik «mono»ak edo abstinentzi sindromeak ez dakarrela organikoki gripe batek edo kakalarri batek baino gehiagoko eragozpenik, eta bai min psikiko sakonak, estuasun eta beldurrak berriz sentitzea. Ezinak, sarritan, degradazio–bidetatik eramaten gaitu. Nork bere buruaz egiten duen lanak (eta besteen łaguntzak; batzuek lanabes baliotsuak dituzte) eskaintzen du alternatiba gizakor bakarra: gainditzea eta fenomenoak ulertzen lagunduko duten ezagutza–bide berriak bilatzea. Baztertua segitu, baina horren kontzientziarekin, hondoraino egin den joan–etorriak dauzkan posibilitateen kontzientziarekin, «toxikomano» edo «toxikomano–ohi» (bestetan «delinkuente» edo «eskizofreniko») *etiketak* nolanahi erabiltzen dituztenak baino askoz humanoago izateko kontzientziarekin.

*Il Progetto Uomo*–ren lan–metodoa hiru bat urtez desarroilatu da, kontzepzio honekin oinarrian eta «topaketa–talde»en bitartez; talde hauetan norberaren problemak —modu agresibo, lazgarriz, gehienetan— azaltzen dira, eta, aldi berean, kalera «itzultzeko» kondizioak paratzen; nolabait itzuli, egiaz ez bait da inoiz norbere ingurunetik atera (sentidu honetan, projektu honen aportazio garrantzitsuenetako bat lehenbiziko urteko lan ibiltaria da: familia eta lagunak arduratzen dira ondorioen superbisioaz eta balorapenaz, bide batez gero eta jende gehiagok hartzen duelarik problemaren kontzientzia).

Erromatik heldu diren azken berrien arabera, badagoke alarmatzeko motiborik, aski jende, programa bukatuta, akritikoki integratzen delako gizartean; hau arrakasta bat litzateke, ez balute *Progetto*–aren bultzatzaileek berek aitortuko *pertsona kritikoak* atera beharra, transformazio kultural eta —esango genuke guk— sozialaren benetako eragileak.

## Gerora begira

Arazoa Euskal Herriko karriketan dago, geure ingurune hurbilean denok dugu. Ez dakusanak, ez du ikusi nahi, zeren egon hor bait dago, mingarri, erdiragarri, ezaxolaren katakunbetatik irtetera behartzen gaituela. Erosoa bait da ez begiratzea, heroina eta beste

substantziak hartzen dituzten milaka gazteekin ez sufritzearren, alkoholiko eta eroekin, langabeekin, minez eta amorrazioz (eta, batzutan, egiazko terapia bat, gizakia gizaki izan dadin galerazten duten egiturak sakon aldatu eta gero bakarrik —baina bai paraleloki ere— aplika daitekeelako kontzientziarekin) gabiltzan zokoratu guztiokin ez sufritzearren, erosoa bait da begiratu nahi ez izatea.

*J.S.*

---

[1] Artikulu hau Komunitate Autonomotik egin dut. Iparraldeko zentruen egitura, hortaz, baztertuxe gelditzen da, nahiz Psikiatriari buruzko tratamenduak ez diren han orokorki guk esaten dugunaz oso aparteko gauza. Nafarroan, berriz, Gizarte-Segurantzaz kanpo, Diputazioaren menpe «Servicio de Alcoholismo y Toxicomanías del Instituto de Salud Pública de Navarra» dago; José R. Varo medikuak hor lan egiten du.

[2] Gizarte-Segurantzako departamentuaren menpe funtzionatzen duten «Centros de Salud Mental» edo «Módulos Psico-Sociales» direlakoak alkoholismo eta drogamenpekotasunaren tratamenduetan espezializatuak daude. Bizkaian badaude honelako zentruak Bilbon (Deustu, «Hauzo-Lan», Rekaldeberri), Barakaldo, Sestao eta Meategien eskualdean, eta Gipuzkoan Eibar, Arrasate, Beasain, Tolosa, Donostia (Gros eta Antiguo), Orereta eta Irun, denak D.A.K.ren kontrolpean. Informazio gehiagorako *Guía de los Servicios Psiquiátricos en la Comunidad Autónoma del País Vasco*-ra jo; Vitoria-Gasteizen argitara zuen Eusko Jaurlaritzak 1983an.

[3] Ikus lehen aipatutako *Guía...*

[4] Ikus Ce.I.S.: *«Progetto Uomo», un programma terapeutico per tossicodipendenti*, Roma, eta horiek argitaratutako *Il delfino* bihilabeterokoa.

Toxikomanien gaineko bibliografia orokorra aurkitzeko, ik. Equipo del Gabinete de Pedagogía CC.: *El fenómeno de las drogas*, Edit. Escuela Española, Madrid 1982, Col. Educación y Sociedad.

---

## *TRATAMIENTO DE LAS TOXICOMANIAS*
## TRAITEMENT DES TOXICOMANIES

*Este trabajo da cuenta de las principales alternativas con que se intenta hacer frente a las toxicomanías.*

*La alternativa oficial: La Psiquiatría. La Psiquiatría trata la drogadicción como la enfermedad n.° 304 de la C.I.E. (Clasificación Internacional de Enfermedades), mediante medios químicos y manicomiales (psicofármacos sustitutorios de la heroína y otras drogas relajantes), haciendo abstracción de lo que en cualquier tipo de*

*solución real del problema hay de enfrentamiento con la estructura económica y su correspondencia ideológico–cultural. La estructura sanitaria actual respecto a las toxicomanías, tanto la Psiquiatría institucional como la privada, es un reflejo de la estructura del Estado dominante y de la ideología del mismo. Los resultados son francamente pobres.*

*El aislamiento como punto de partida. Las Comunidades terapéuticas del Patriarca son otra alternativa que se está consolidando en el País Vasco y otras partes. Se trata de comunidades caracterizadas por el aislamiento y ruptura del toxicómano de su medio habitual, fuerte disciplina y gran ocupación laboral. Sobre los resultados no hay estadísticas y sí optimistas declaraciones. El artículo critica severamente el método de alejamiento de este sistema terapéutico.*

*Breve historia de una experiencia. Como alternativa a las dos anteriores, en 1982, la D.E.E. (Drogak Eragindakoen Elkartea) emprendió una experiencia comunitaria en el caserío Mañin de Aia. Se pensaba que el trabajo colectivo y la relación entre toxicómanos y monitores decidiría salidas humanas y solidarias al problema. La experiencia fracasó por carencia de medios materiales, y por no contar con técnicas concretas de terapia.*

*Il Progetto Uomo. Se trata de un proyecto madurado en Roma en los años 70. Sus bases fundamentales son una comprensión profundamente humana del problema del toxicómano, tanto en sus aspectos individuales como en sus implicaciones sociales, políticas y económicas, y la aplicación de la dinámica de grupo (Grupos de encuentro) como técnica terapéutica. Se trabaja en la responsabilización del toxicómano y en la implicación de otros factores (familia, amigos, barrio) en el complejo problema de la terapia. El programa abarca unos tres años.*

---

Ce travail traite des principales méthodes utilisées pour essayer de faire face aux toxicomanies.

*La méthode officielle: la psychiatrie.* La psychiatrie traite le problème de la drogue comme la maladie n.° 304 de la C.I.M. (Classification Internationale des Maladies), en utilisant des moyens chimiques et en ayant recours aux asiles d'aliénés (des produits pharmaceutiques pour substituer l'héroîne et d'autres drogues tranquillisantes). Elle ne tient pas compte de l'affrontement avec la structure économique et sa correspondance idéologique et culturelle qu'implique toute solution réelle du problème. La structure sanitaire actuelle concernant les toxicomanies, que ce soit la psychiatrie institutionnelle ou privée, est un reflet de la structure de l'Etat dominant et de l'idéologie de ce dernier. Les résultats sont franchement deficients.

*L'isolement comme point de départ.* Les Communautés thérapeutiques du Patriarche offrent une autre méthode qui est en train de se consolider au Pays Bas-

que et ailleurs. Il s'agit de communautés caractérisées par l'isolement du toxicomane et sa rupture avec son milieu habituel, une discipline stricte et un emploi du temps consacré en grande partie au travail. Il n'y a pas de statistiques sur les résultats mais des déclarations optimistes à ce propos. L'article critique sévèrement la méthode d'éloignement de ce système thérapeutique.

*Brève histoire d'une expérience.* En 1982, pour substituer les deux méthodes antérieures, la D.E.E. (Drogak Eragindakoen Elkartea) entreprend une expérience communautaire à la ferme Mañin à Aia. On pense que le travail collectif et les rapports entre toxicomanes et moniteurs offrira des issues humaines et solidaires au problème. L'expérience échouera par manque de moyens matériels et par l'absence de techniques concrètes de thérapie.

*Il Progetto Uomo.* Il s'agit d'un projet mûri à Rome dans les années 70. Il se base fondamentalement sur une compréhension profondément humaine du problème du toxicomane, autant dans ses aspects individuels que dans ses implications sociales, politiques et économiques, et sur l'application de la dynamique de groupe (Groupes de rencontre) comme technique thérapeutique. On cherche à responsabiliser le toxicomane et à impliquer d'autres facteurs (famille, amis, quartier) dans le problème complexe de la thérapie. Le programme s'étend à peu près sur trois ans.

ORAIN ETA HEMEN

GAIAK

LIBURUAK

# ORAIN eta HEMEN

## ETBren etorkizuna J. Caro Barojaren eskutik?

ETBren inguruko orain arteko borroka bitan banatzen da: telebistaren euskalduntasunaren ingurukoa, alde batetik, eta, bestetik, informazio-guduarena. Polemikarik eta eritzi-ematerik ugarienak euskararen inguruan izan dira. Sortzaileen eta hainbat euskaltzaleren eritziz, euskararen promoziorako, salbaziorako, aurrera-pausu handia izan da euskal telebista. Horretarako sortua, gainera. Gaurko formulan, hizkuntza aurrera ateratzea, normalizatuz promozionatzea, izan da ETBren helburu nagusienetako bat. Nagusiena, esango nuke nik.

Informazioaren borroka ere hor dago, egia da. Baina ETBri buruzko eztabaidaren lehen aldian, berriz diot, hizkuntzaren polemikak izan du lehentasuna. Aurrerantzean ez dakit zer gertatuko den. Badirudi ETBren erabilera politikoak, eta ETB informazio-tresna gisa balioztatzeak gero eta munta handiagoa duela. Audientziarik badu, eraginik badu nonbait; galde bestela Garaikoetxeari. Neurri apal batean bada ere, marginazioa gainditua bide du ETBk. Arazo berriak sortuko zaizkio orain edo, nahiago bada, lehengo berak, baina biziago, askoz bortitzago. Nago, borroka berri hau ez ote den euskararen pentzura gertatuko. Gehiegik oposatzen bait du informazioa eta euskara. Kasu! Informazioaren efikaziaren izenean, euskara arbuiatu egin daiteke.

Ni neu beldur naiz, uste bait dut, ETBren hazkuntza hau dela eta, bigarren aldi baten atarian egon gaitezkeela. Eta etapa berri honetan «euskararen arazoa» errebisatu egingo dutela. Artikuluxka hau kaleratzen denerako, orain, han eta hemen, entzuten diren zurrumurruak egiaztatuak ala gezurtatuak izango dira. Gezurtatuak izango al dira, euskararen faboretan!

Zurrumurruak eta esamesak alde batera utzita ere, ez al dira kezkagarriak Administrazio-Kontseilurako partaide bezala aukeratu duten independentearen deklarazioak? Independentea bai, baina zeri buruz independente? Euskarari buruz ez, noski. Beste zerbaiten erreferentzian epaitu da independentzia hori: horra hor kezka-iturria. Hara Julio Caro Baroja jaunak *El Correo Español*-i deklaratua:

«*La utilización exclusiva del euskera en la televisión vasca durante su primera andadura no responde a las necesidades reales del país donde Alava apenas habla euskera, en Vizcaya algo más y amplios sectores del país no utilizan esta lengua. Yo creo que una televisión tiene que ser informativa y responder a la situación real del ámbito que cubre*».

Hau izango al da bigarren aldiko hizkuntz filosofia? Ez du nehork ukatu. Kontseiluko abertzaleak, euskaltzaleak bat ote datoz euskal telebistaren filosofia berri honekin? Aho batez aukeratua izan omen da Caro Baroja «independentea», hain zuzen Administrazio-Kontseiluan PNVkoen eta enparatuen arteko hainbanapena desegiteko. Euskararen erabilerari buruzko filosofi kontuan zertan ote da kontseilua: enpatean ala desenpatean?

Apenas harritu duen inor J. Caro Barojaren deklarazio honek. Harritu, Caro langintza horretarako aukeratzeak harritu ninduen ni, ez gerokoak. Juliori aspaldidanik irakurtzen diogunok bagenekien arazo hauetaz zer pentsatzen duen. Independentetan independenteenaren, eta onaren eta gaitzaren gainetik altu dagoen intelektual euskaldunaren (Ibarzabal dixit) eritziak esfortzu handirik gabe ezagutu nahi dituenak irakur beza Txertoak ateratako *El Laberinto vasco* liburuko «Euskaldunización» atala. Esfortzu gutxiago eginik jakinaren gainean egon nahi duenari, ondoko lerrootan aukeratxo bat eskainiko diot. Hona pasarte argigarri batzu:

«*Se pretende ahora que por vías paralelas, en este país, los niños aprendan una Gramática difícil, que hablen un idioma unificado y por lo tanto rehecho y que luego estudien en él Física, Geometría o Psicología*».

*(...)*

«*Y qué se enseña a la vez que el vasco por muchos profesores más o menos improvisados? He visto algunos apuntes de clases y también dos o tres textos y me ha llamado la atención la seguridad y el dogmatismo con que están concebidos. También desde un punto de vista político. Aprenderán vasco los que estudian en la niñez estos textos, o lo que harán es cargarse la cabeza de nociones que luego tendrán que revisar?*

*El peligro de calcar y traducir a otra escala los productos pe-*

*dagógicos del «Nacionalismo español» de hace cuarenta, treinta y veinte años cada vez se ve más cercano en este país».*

Zer egin panorama beltz hau iraultzeko? Zer proposa? Nola joka? Hori bera galdetzen dio J. Caro Barojak bere buruari. Eta bai erantzun ere: euskara lurperatzea ez dago ongi; ikastera behartzea ere ez, noski. Soluzioa? Estetika.

*«Qué pensar? Es evidente que no se puede enterrar al vasco, porque está vivito y coleando y lo hablan bastantes miles de personas, aunque las cifras no sean nunca seguras. Es evidente que hay que fomentar su uso. Pero yo juzgo, también, que las vías pedagógicas usuales no son las que van a producir el efecto deseado, por las razones dichas. La coacción, la presión, de nada valen. (...) Hay que buscar un modo según el cual el aprendizaje del idioma sea placentero: ni más ni menos. Hay que cargar al vasco de contenido estético en primer término, y de cierta profundidad, en segundo. Pero esto no se hace a base de áridas gramáticas y de libritos de ejercicios poco amenos impuestos a los niños. Tampoco en otros que se usan en escuelas empingorrotadas llenos de chascarrillos de taberna y de obscenidades que hace años hubieran escandalizado a todo el elemento nacionalista del país. Esto se hace a base de arte, de poesía, de teatro, de música cantada, de prosa atractiva».*

Euskararen irakaskuntza, alfabetatzea, euskalduntzea, euskararen batasuna, euskararen normalizazioa, eta, ondorioz, euskararen funtzio soziala, dena auzitan jartzen du gure kritiko kupidagabe honek. Fenomeno iruditzen zait neri euskal kulturgintza kritikatzea, behar-beharrezkoa bait dugu. Baina zorroztasun bera ikusi nahi nioke Madrilen. Liberalismorik erromantikoenaren izenean euskararen irakaskuntza planifikatu bat arbuiatzea, bestalde, ez zait oso zorrotza iruditzen. Eta, azkenik, politikak ez baino estetikak salbatuko gaituela sinesteko, sinesmen handia behar da, handiegia, besteek bestela jokatzen dutenean.

Hemendik ote doa ETBren oraingo hizkuntz filosofia? Aho batez hautatua izan denez, zer besterik pentsa liteke? Bigarren aldiari ematen ote diogu hasiera benetan? Lehen aldia, bihozbero, militante eta linguistena. Bigarrena, aldiz, heldutasunekao, errealista, soziologikoa, orekatzailea. Tresnari berari ere zor zaion begirunea kontutan hartzen duena, hots, telebista batez ere informaziorako bait dago, informazio-gudua irabazteko, eta ez euskara jasotzeko, goratzeko, prestigiatzeko, aupatzeko, promozionatzeko edo salbatzeko.

Hizkuntz politikaren tresna bailitzan telebista ulertzeak egin ote du? Tokitan leudeke Labaien baten jatorrizko asmoak eta ETBren urte t'erdiko praxia. ■ *Joan Altzibar*

## PNVko buruzagiak euskaraz ikasten

PNVk Alderdiaren barruan euskara indartzeko asmoa omen du. Dagoeneko izendatua du batzorde bat lan hori gidatzeko. Eta, publikoak ezagutu duen lehenengo urrats bezala, Alderdiko buruzagi eta kargudunetatik hasi da lanean, horiek euskalduntzeko plan bat eginez eta laguntzak eskainiz.

Herri hau, «euskara salbatu beharra dago, bai», eta gero ezer egiten ez duen politiko, intelektual eta artistaz beterik dago. PNVri berari behin baino gehiagotan salatu zaio projektu baten eta politika deziditu baten falta, Alderdi barruan adina Jaurlaritzan.

Beraz, berri pozgarria izan dugula, ez dago esan beharrik, batez ere bultzada berri baten hasiera bezala uler daitekeelakoan.

Euskaldun eta euskaraz iharduten ikusi nahi ditugu Euskal Herriaren ordezkari ofizialak eta buruzagiak. Euskara gehixeago entzun nahi genuke Gasteizko Parlamentuan. Ametsetan, Mario Fernández derrota bat jasateko experientzia egiten ikusi nahi genuke, bere arloaren defentsa, gaztelania bizkorrean egin ordez euskara berri, motelean egiteagatik. Ez, ametsetan ere, derrotak berak ezer positibotzat dauzkagulako, edo inori derrotarik opa diogulako: garaipenaren prezioa luzarora ezinbesteko derrota batzu direla, fedea eta itxaropena daukagulako baizik.

Agian politikoak orduan konprenituko luke, horixe besterik ez dela euskaltzalearen existentzia guztia herri honetan, pertsonal eta profesionalki. Eta, agian, posibilitate bat irekitzen ikusiko genuke, euskaltzaleak eta politikoak, sinesmen batean eta esperantza berean elkarturik, euskararen alde, ez hitz, baina lan eta borroka egiten aritzeko.

Esperantzari, behintzat, eutsi nahi diogu. Lehen ere hartu izan dira horrelako erabakiak beste zenbait Alderdi edo Alderdi-antzekotan. Ez dute ezertarako balio izan, euskararen beste burla bat gehiago izateko ez bada. PNV ez dadila gera gesto testimonial hutsetan, opa diogu (geure buruari lehenengo): ez horretarako bakarrik, baina baita beste haiek behin-betiko lotsarazteko ere. ■ *Joxe A. Otaegi*

## Komunikazioaren mundua pil-pil

Gerra asko dago munduan, eta inguruan. Ez da txikiena informazioa eskuratu nahitik sortzen dena. Informazioa duenak

agintea du, ezaguna denez. Komunikabideak eskutan edukitzea, nahitaezkoa da agintzeko, ideiak zabaltzeko. Teknologiaren aurrerakuntzak munduko komunikazio-sistema osoa aldatu egin du goitik behera. Interes ideologikoak, ekonomikoak, politikoak, denek egiten dute elkarrekin topo hortxe. Begiak ireki eta ingurura begiratzea aski dugu:

- Hor dabiltza europarrak eta amerikarrak Europako komunikazioaren merkatua nork irabaziko, nork kontrolatuko. Sateliteen problema.

- Telebista pribatu eta publikoaren arteko borroka hasi besterik ez da egin, bai Frantzian eta bai Espainian. Europako nazio bakoitzak 30 telebista-kanale izango omen ditu 1990erako. Eta gu ETBrekin harro-harro!

- Irratiak ere hor dabiltza borroka bizian. Irrati lokalak onartu zituztenetik 800dik gora sortu omen dira Frantzian. Piratak aparte, noski.

Dozenatik gora irrati itxi omen ditu Andaluzia Autonomoko aginteak, agertzen zen aurrekoan egunkarietan. Euskadin bada sortuberririk: Euskadi Irratia eta makina bat pirata aparte, Iparraldean ari dira beste zenbait lan eta lan. Baina zain gaude oraindik hemen, ekaitzaren aurreko baretasunean. Laster dator borroka, Eusko Jaurlaritza baimenak banatzen hasten denean.

- Egunkariak ere ez daude lasai. *Le Monde* bera krisian omen dago. Gobernu Sozialistak, Estatu espainolean, Mugimenduaren prentsa dagoeneko osoki likidatu du. Eta gure artean, hona *La Gaceta del Norte*-ren operazio berria. Gipuzkoara ere zabaltzekoa omen da. Eta ezin, bada, ahaztu hainbat mahainguruen gai den euskal egunkariaren arazoa...■*Joan Altzibar.*

## Nora doa PNV?

Informazio txiki bezain biolentzia handiarekin, egunetik egunera EAJ/PNVren baitako katramila gero eta gehiago ari da kaleratzen. Napar Buru Batzarraren zigorrarena izan da gogorrena. Gogorrena, boterean dagoen PNV batek ez dagoen beste batekin zeukan problemari, zipli-zapla eman dion soluzio-moduagatik batez ere. Tikamika puntualak eta disziplina sakratuak aparte, eskandaloa hor dago. Boterea bere legeak erakusten hasi da.

Problema asko dator elkarrekin korapilatuta. Ez da arrazoi-

rik gabe egunotan berriro karlisten eta liberalen historia gogoratu. Nora doa PNV? Hori da abertzaleei gaur sortzen zaien kezka. Ez ote den hiru probintzietako Alderdi regionalista bezala funtzionatzen hasi. Ez ote den erabaki, Nafarroa enbarazo bat besterik ez dela: Komunitate Autonomoak bere politika eraman behar duela aurrera, hor konpon besteak. Izan ere, Arana Goiriren Alderdiak orain boterea badu. Boterea, Komunitate Autonomoan. Estatutuan, beraz. Eta, beraz, botereak Euskadi=Komunitate Autonomoa=Estatutua egitera jotzen du bere eguneroko zeregin eta interesetan. Botereak bere dinamika du. Eta boterea, zaila dagoenean bereziki, mehatxatua sentitzen denean, helpide izatetik erraz pasatzen da helburua iruditzera.

Are, Estatutuaren probintzietan beretan, Alderdiak ezin asmatu duela, ematen du, alde batetik Eusko Jaurlaritzan eta bestetik Aldundietan duen boterea orekatzen. Herrialde Historikoen Legeak sortu zituen istiluak ez dira ahaztu. Eta PNVko jendeari berari entzuten zaio, erdi bromatan erdi serio, laster Euskadi Bilbo izango dela eta haren periferia. Edo, Arana Goirik bere Alderdiarekin azkenean lortu duena, hark suharki borrokatu zuen etsaiaren garaipena izan dela hain zuzen, Bilboko Aldundi zahar liberalarena: regionalismo pixka bat eta Kontzertu ekonomikoak!

Euskadi egituratzeko modu desberdinak erabil daitezkeela, zalantzarik ez dago. Bitxia da, nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundien arteko gorabehera hauetan erabili ohi zen filosofia herrialdekoi tradizionala, hain funtsezkoa nonbait, zein funts gutxitakoa agertu den Nafarroaren arazoan. Zer gertatzen da? Oinezko sinple bati iristen zaion informazioa gutxi da, Scheifler bera ondo isilik bait dago oraingoan. Baina Jaurlaritza/Aldundiak auziko «nazionalisten» eta «foralisten» paperak eta filosofiak bat-batean aldrebes jarri dira nonbait, Nafarroako iskanbila horretan. Agian aldi berri bat hasi da PNVren politikan, eta trantsizio-aldietako traspapeleoak dira horiek. Harrituta segitu dugu prentsan, hiru probintzietako foralista eta demokrazia zahar jatorraren zaleek nola arrazonatzen zuten diziplinaren eta koherentzia estu baten izenean firme.

Eta harritu, harriak berak harritu beharko lituzkeena, honez gero deusekin harritzerik balego, «emandako hitza»ren asunto hori izan da. Hitza eman zen: batzuek emandako hitza bete egiten dute eta besteek ez dute betetzen. Batzuk euskaldun-euskaldunak dira, basko jatorrak, besteak ez dakigu zer. Hitzaren betetze horretan jarri nahi da orain problema dena. Baina egiazko problema, politikoa alegia, kanpoan dagoenarentzat bederen, betetzea ala ez betetzea baino aurrerago ageri da, eta hori da interesatzen zaiona: eman omen zen hitza ematean dago egiazko problema. Eta hori oso gutxi aipatzen da.

Hutsegite politikoa (politikoa, morala moralistei utziz) han aurrean baldin badago, haren kausanteei eskatu beharko zaizkie politikan kontuak. Hura hankasartze politiko soberano bat izan bazen, alfer-alferrik da orduko makur politikoa orain emandako hitzaren moralez edo disziplina sakratuaren gogorrez salbatu nahi izatea. Hola edo hala, emandako hitza jan, azkenean bietara jaten da: edo Madrilgo norbaiti, edo Nafarroako hainbati. Emandako hitz asko du PNVk, historian eta orain, ez dago egiterik, sekula emandako hitz bakarra eta sakratua hura bakarrik balitz bezala. Hitz hark halako inportantzia, politikoa, baldin badu, zerbaitegatik da. Eta hori da jakin nahiko genukeena.

Hitzak hizpide, hasierakora gatoz berriro: nora doa PNV? Justu egunotantxe Uzturreren hitzak zabaldu dira prentsan, propio esamesei erantzuteko bezala: «la aspiración del PNV es constituir un Estado vasco», «si el PNV no tuviese estos objetivos sería un partido regionalista», «el PNV no ha cambiado desde sus inicios, es algo que Sabino Arana dejó claramente expuesto». Zer dira horiek, krisialdietan baseari bota beharra egoten omen den gozokiak? Honelako deklarazio solemneak nahikoa itsusi uzten dituena, halere, horien kontrapisu obligatuaren betiko itxura da, Alderdiko beste buruzagi batzuri oso bestelako mintzaira entzuten zaienean.

Hitzak hitz, bestalde, hitzetan eszeptiko bihurtu den jende gehiegitxo dabil honez gero herri honetan, inork esan edo emandako hitzei baino egintzei begirago. Emandako hitzak, obretan, barne demokrazia, Alderdiaren batasuna bera, Nafarroako bere existentzia, arrisku gorrian jartzerainoko inportantzia dauka PNVrentzat. Hainbesterainoko inportantzia zerk ematen dion, galdetu beharko genuke. Eta erantzuna, seguruenik, iraganean ez, baino etorkizunerako plan inportanteren batzutan aurkituko litzateke. Nora doa, bada, bere zerbitzuak Zuhaitz Malatuaz haranzko lur horietan eskaintzen edo bilatzen dituen politika hori, aliantzak PSOErekin, APrekin, Alderdi Erreformistarekin egin nahita? Zein prezio da, kostatzen dena? Bestela esan: oso-oso disgustora, jakina, baina, behar izanez gero, zenbatean saltzen da Nafarroa? ■ *Joxe A. Otaegi*

## ETB Nafarroan: Troiako zaldia

Pankarta handi bat agertu omen da Iruñean, ekainaren 10ean, juxtu Nafarroako Foru-Diputazioaren aurrean. Zera jartzen zuen: NO A EUSKAL TELEBISTA, NO.

Nafarroako Gobernuburua eta ETBko Zuzendaria berrikitan elkarrizketatu dira Nafarroan ETB sartzeaz. Del Burgo, bere aldetik, ez da isildu: Nafarroa Euskadin «anexionatu» nahi dutenei arma ematea dela hori, salatu du.

Gezurra dirudi informazio-iturri bat gehiago edukitzeari, kultur tresna bat gehiago izateari uko egin nahi izateak. Horrelako aukera bat (ez obligazioa) horrela arbuia daitekeela sinesteak ere lanak ematen ditu.

ETB etsaiaren tresna dela esan du Del Burgok. Eta noski, etsaiari ez zaio sarrerarik utzi behar! Aragoeko telebista balitz... hori besterik litzateke! Baina ETB Troiako zaldia da! Lastima benetan, diogu guk, zaldi famatu hori gure kasuan pottoka izatea! ■ *Joan Larrinaga*

## Euskal Kulturaren Batzarrea

Premiaren sentipena berriro jeneralduz doa: Jaurlaritzaren politikarekin desengainaturik edo, gero eta jende gehiago da, Euskal Kulturaren Batzarrea eskatzen duena. Ahots bakan batzu izan ziren lehenengo. Euskadiko Ezkerra hasi zen, gero, gauza bera eskatzen. Sektore desberdinetako euskaltzale jendea da, orain, «Euskal Kulturaren Batzarre» bati gorputz eta forma eman nahirik, Eibarren eta Iruñean elkartzera eta eztabaidatzera doana.

Batzarrearen ideia ez da berria. Franco hil ondoren asko aipatu zen ideia hori, katalanen ereduari jarraiki, noski. Dinamizazio eta plangintza serio baten beharra, euskal kulturako sektore eta lankideen koordinazioa, eta euskararen interesak errepresentatzeko organo orokor baten premia ziren 1976/1977 aldera Batzarrea sortzeko arrazoiak. Nafarroako Ikastolen Federakundeak bota zuen ideia eta laster atxeki zitzaizkion beste Ikastola Elkarteak, AEK, Arantzadi, UEU, etab., kulturgintzako euskal talde gehienak.

«Euskal kultur batzarrea sortu behar dela uste dugu, euskal kulturaren politika eta egitarau zehatz baten barnean eta bidetatik, kulturgintza bateratu bat eraman dezagun kulturgizon, talde, elkarte eta instituzio guztiok. Oinharri eta baldintza zabal batzuren inguruan, guzti horik bilduko lituzke Euskal Kultur Batzarreak» (1977).

Projektua goitik behera etorri eta ahaztu egin zen berehala-

xe, preautonomiko sozialistaren ondoren (PSOE), aginpidea abertzaleek hartu zutenean (PNV). Konfiantza gehiago zegoen, nonbait, agintari berriengan.

Bospasei urteren buruan Euskal Kulturaren Batzarrearen ideia berriro han eta hemen jaikitzen hasi da, zabaltzen eta indartzen: konfiantza galduen ruina artean oraingoan. ■ *Joxe Azurmendi*

## Euskara, diskriminazioa eta legea

Bazterrak astindu ditu, aspaldiko partez, Tribunale Gorenak maiatzaren hiruan emandako sententziak. Ez omen dago euskara gainerako hizkuntzen gainetik balioztatzerik. Gaztelania soilik egiten dutenentzat diskriminazioa omen da.

Gainerako hizkuntza horien artean, ingelesa, frantsesa, alemana eta holakoak daude. Prestigio handikoak. Ez dago gaizki euskara ere hizkuntza prestigiotsu horien parean jartzea. Nago, euskara superbalioztatua eta ohoretua gelditu dela horren konpainia ederrean. Hizkuntza handi horien gainetik jarri nahi izatea ere... onar dezagun gehiegi zela, passa egin direla gasteiztarrak. Denak berdin: 0,4 puntu denentzat eta kitto. Zer demokrazia handiagorik! Konpainia eder horretatik aparte hizkuntza bat bakarra gelditu da, eta hori espainola da. Harritzekoa, ezta?

Ez da batere harritzekoa, zoritxarrez. Ofizialkidetasuna, elebitasuna, Konstituzioa, Estatutua aipatu dira, argudiaketa juridikoak plazaratu dira ebidentzia bat frogatu nahian, alegia, euskarak ez duela gaztelania diskriminatzen. Baina denok dakigu jakin arazoa beste nonbait dagoela. Bai, hortxe dago, politikan. Marko politikoan, eredu politikoan, borondate politikoan. Hots, nola ulertzen den Estatua, «Estado de las autonomías» hori zer den eta zertan den. Alde horretatik, hizkuntz politika, politikaren ispilatze hutsa besterik ez da.

Madrilgo Gobernuak proposatzen duen hizkuntz politika hori zein da, ba? Edo beste modu batera esanda: nola ulertzen du Madrilek hizkuntza desberdinen elkar-bizitza? Zein konbibentzi eredu aukeratzen duten interesatzen zaigu hemen, zeren (askorentzat zoritxarrez) hizkuntzak bait daude hemen, hizkuntzak (garai bateko «dialektoak»).

Hizkuntzen arteko elkar-bizitza hori Gobernu Sozialistak nola ulertzen duen jakiteko, biziki interesgarri aurkitu ditut nik

Felipe Gonzálezek, berak izenpeturik, Tribunale Konstituzionalera bidali zuen idatzian ematen ziren erizpideak. Badakizu zertan ari naizen: 1983ko martxoaren 14ean Euskararen erabileraren normalizaziorako oinarrizko Legearen (10/1982) 7 artikulu inpugnatu zituen Gobernuak. Horretarako prestaturiko errekurtsuak hiru zati ditu. Bigarrenak, hizkuntz arazoak Konstituzioan eta Estatutuan duen trataera interpretatzen du. Ongi ageri da hor zein den gure eredua (edo haiena) eta zein euskararen (hobe: gaztelaniaren) funtzio soziala. Zenbait pasarte azalduko dut hemen, Gobernuaren gogoa eta asmoa agertu nahirik. Pasarteok behar bezala ulertu ahal izateko, ongi bereizi behar dituzu: eskubidea/obligazioa; eskubide subjektiboa/eskubide objektiboa; hizkuntza bateratzailea/hizkuntza bereizlea; eredu suitzarra edo belgiarra/eredu austriarra edo italiarra.

*(...) Desde esta perspectiva la remisión que el art. 3.2,CE efectúa a los respectivos Estatutos para establecer en sus ámbitos territoriales la cooficialidad de otra lengua española distinta del castellano, y la que a su vez recoge el art. 5.2,EAPV, no pueden entenderse como habilitaciones en blanco. El criterio de vinculación más intensa a las normas constitucionales determinará que, conforme al art. 3.1,CE, respecto del castellano y únicamente respecto de él quepa predicar, junto al derecho a usarlo, el deber de conocerlo. Esta singularidad del castellano se fundamenta en su condición de idioma común de todos los españoles y lengua oficial del Estado, lo que, como se viene señalando y adecuadamente recoge el primer párrafo de la Exposición de Motivos de la Ley vasca 10/1982, comporta que sea también idioma de uso oficial en el territorio de la Comunidad Autónoma. En definitiva la calificación del euskera como lengua propia del Pueblo Vasco (art. 6.1,EAPV) ha de entenderse en el sentido de tratarse del idioma peculiar y característico de esta nacionalidad, pero no impide que con un sentido diferente pueda calificarse también al castellano como lengua propia del Pueblo Vasco, bien que no peculiar del mismo sino común a él y al resto de los que integran la Nación española; circunstancia ésta que diferencia substancialmente el modelo constitucional español en materia lingüística de otros, como el suizo o el belga, en los que no existe un único idioma oficial de todo el Estado que constituya lengua común de la totalidad de sus ciudadanos, aproximándolo más bien a los supuestos de Austria (...) o de Italia (...).*

*Por la razón expuesta no cabe sostener que la Comunidad Autónoma, establecida la cooficialidad de una lengua española distinta del castellano, pueda consagrar respecto de aquélla, junto al derecho de usarla, un deber de conocimiento idéntico al previsto para el castellano en el art. 3.1,CE.*

*En primer lugar dicho precepto constitucional, en su literali-*

*dad, distingue, la proclamación del castellano como lengua española que frente a las demás es la oficial del Estado, y el establecimiento del deber de conocerlo y del derecho a usarlo. En segundo término debe tenerse presente que el Estatuto vasco, y los demás que establecen lenguas cooficiales, así como consagran el derecho a su uso, no sancionan —y no lo hacen porque constitucionalmente no es viable— un deber de conocimiento respecto a las mismas. (...)*

*La conclusión será pues que el castellano, idioma de uso oficial también en el territorio de las Comunidades Autónomas donde exista otra lengua cooficial, nunca puede ser excluido. Con ello no se priva de sentido al derecho de usar la lengua cooficial. Ese derecho subjetivo, perfectamente individualizable, encuentra su correlato en un deber subjetivo de conocimiento, pero deber imputable a los Poderes Públicos como tales y no a los individuos. (...)*

Ideologia oso bat dago hemen. Hona hemen Madrilgo Gobernu Sozialistarengandik espero dezakegun hizkuntz politika erdalzalea. ■ *Joanes Lekerika*

## Euskadiko kale eta bideetan ibili

Euskaldunak harro-harro daude, historian administrazio garbi eta eginkor bat izan zutelako. Eta laster ereduzko administrazio bat edukiko omen dute berriro.

Baina nik hau esango nieke euskaldunei, trafikoari bakarrik begira:

Hirien izenak euskaraz eta erdaraz ipintzeko asmoa oso ona izan zen eta soluzioa oso txarra da.

Euskadin kaleak oso gaizki seinaleztaturik daude eta bideak ez daude hobeto.

Inon obrarik bideetan egiten ari badira, segurua da seinaleztapenak Hirugarren Mundua gainditzeko modukoak direla: behetik, ordea.

Karreteran lanak egiten direnean, adibidez, ondo dago abiadaren mugapen-seinaleak ezartzea: 50, 30. Baina obrak bukatu eta gero, edo asteburuetan, seinale horiek estali edo kendu ez badira, seinaleztapenaren arabera dabilen arrotzak Euskadiko

«indigena» guztien turutak eta irain-keinuak entzun eta ikusi behar izaten ditu, euskaldunak zergatik haserretzen zaizkion ulertu gabe.

Zehar-kale batean obrak egin behar badira ere, bidezkoa da kale hori 24 ordutan trafikoarentzat ixtea: baina ez pentsatzea, eta inolako seinalerik ez ezartzea, jendeak beste non aparkatzeko posibilitaterik daukan, administrazio axolagabe edo autoritario baten estiloa da.

Obrak egitea ondo dago, baina trafikoari oztopo egiten dion zerbait hilabetetan bertan uztea, bidean nahiz kalean, Donostian Groseko Postaren aitzinean erreten bat aspaldian dagoen moduan, administrazio on baten perfekzio-ispilua ez da.

Euskaldunen administrazioa garbia eta eginkorra zela, esaten didatenean, neure golkoan zera pentsatzen dut: beharbada oso garbia eta eginkorra bai, baina gauzak erdi-egiten eta erdi-uzten dituen herri zabar bat hezitzeko administrazio pedagogikoa ez da.

Eta administrazio on bat herri baten pedagogorik hoberena izan litekeela, pentsatzen dut. Administrazio garbia eta eginkorra baldin bada, baina baita ere pedagogikoa. ■ *G. Noss*

## Tortura, berriro

*Torturaren arazoa behin eta berriro aipatu dugu JAKINen, sekula ez aski halere. Hona hemen gaur, inolako iruzkinik gabe, Amnesty International-en agiri-zati bat, torturari buruz Espainian:*

«... De acuerdo con la actual legislación antiterrorista, Ley Orgánica 11/80 del 1 de diciembre de 1980, las personas son recluidas en régimen de incomunicado, se les niega el acceso a un abogado y no tienen derecho a ser sometidos a un tratamiento médico independiente o a informar a sus familiares, por un período de 72 horas. Este período se puede extender hasta un total de 10 días si la Audiencia Nacional lo autoriza».

«En opinión de AI estas características de la ley facilitan la práctica de la tortura o malos tratos debido a que la detención en régimen de incomunicado anula la garantía que permite el acce-

so a un abogado o a otras personas durante la fase crucial de la indagatoria policial. Casi todos los casos de tortura o malos tratos que han llegado a conocimiento de AI han tenido lugar durante este período».

«Los tribunales españoles no han respondido ante querellas judiciales aun cuando éstas son respaldadas por pruebas médicas. En forma excepcional, en marzo de 1983, dos policías fueron condenados en Bilbao a 10 meses de prisión y a 10 años de suspensión de sus derechos civiles por torturar a un detenido».
■ *Amnesty International*

# Eibarko eta Zorroagako soziolinguistika egunak

Andoni Sagarna

1984. urtearen lehen bi asteetan zehar pilpilean egon da hizkuntz arazoez interesatzen direnen giroa Euskal Herrian. Eibarko Udalak eta Zorroagako Fakultateak antolatuta, egintza–sail zabala burutu da lau lurraldetako hizkuntzen arazoei buruz. Ihardunaldi hauetarako, berez, bost lurralde zeuden hautatuak: Suomi edo Finlandia, Gales, Algeria, Sakartvelo edo Georgia eta Eire edo Irlanda. Azkenean Georgiatik ez da inor etorri, Sovietar Batasunetik irteteko mugapenen eraginez, eta, nik lagunarteko zenbait elkarrizketatan entzun dudanez behintzat, Euskal Herritik bertatik, ihardunaldi hauetako antolatzaileenganako begirune handirik gabe, beste abagadune batzutarako gorde ditzala bere herritik irteteko aukera urriak gomendatu zaiolako hizlariari. Horrelakorik izan bada, ez zait jokabide garbia iruditzen: Herri honetan eta gauza hauetan ibiltzen garenok elkarren berri badugu eta ez da hainbeste kostatzen hitz egin eta gauzak konpontzea. Utz dezagun, dena dela, ihardunaldietatik kanpora gelditzen den puntutxo ilun hau.

## Saioetako giroa: jendea gogatsu eredu bila

Eibarren hasi ziren egintzak, goiz, arratsalde eta arratseko saioekin. Goiz–arratsaldeetakoak Unibertsitate Laboralean egin

ziren egun hauetarako matrikulatutakoentzat eta arratsekoak Udaletxean publiko zabalarentzat. Hirurogeitamar pertsona inguru biltzen ginen Unibertsitate Laboralean: hizkuntzalaritzaz eta soziolinguistikaz arduratzen den zenbait ikertzaile, irakasle eta ikasle, euskalduntze–alfabetatzeetako irakasleak, udaletxeetako eta beste erakunde batzutako itzultzaileak, irakasmunduko jendea, etab. Hori bai, denak euskaltzale suharrak, nik han sumatu izan dudanez.

Bistan da jendea ez zela hurbildu hara jakinduria lantzeko asmo hutsez. Kanpoko hizkuntzen prozesuak aztertuz euskararentzako ondorioak ateratzeko esperantza dago. Esperantza bakarrik ez; egarria ere bai. Badakigu arlo honetako experientziak ez direla itsu–itsuan atzerriko lurraldeetatik inportatzeko modukoak. Hala ere, behin baino gehiagotan ikusten dira paralelismo nabariak. Beste lekuetan gertatu diren edo gertatzen ari diren gauzak aztertzeak bertoko giroari buruzko gogoeta eragiten du. Eibarren, Zorroagan nahiz Baiona eta Iruñeko hitzaldietan, beti azaldu da oso era nabarmenean kanpora begiratuz etxeko problemei ebazpena bilatzeko datu interesgarriak jasoko direlako ustea.

Euskaltzale–giroa, lanerako gogoa, jakinmina, indartsu azaldu dira egun horietan. Askotan gure ingurugiroak euskararekiko duen jarrerak, datu estatistikoek, han eta hemen entzuten eta irakurtzen den euskara gero eta traketsagoak, gure kultur munduko liskarrek etab. etsipenean murgil erazten gaituzten bezala, egun hauek bezalako ekintzetatik indarberrituta irteten garela esango nuke. Neri behintzat filme gogor bat ikusi ondoren zinetokiko giro kargatutik irten eta itsas haizeak eta langar xeheak aurpegira ekartzen duten freskura eskergarriaren antzeko efektua egin didate.

## Suomiera: menpekotasuna astindu duen hizkuntza bat

Suomieraren eboluzioa eta egoera deskribatu dizkigun hizlariaren figura azpimarratuko nuke, euskaraz egin bait dizkigu bere azalpen guztiak. Hizkuntza iberorromanikoen irakaslea da Helsinki–ko Unibertsitatean eta, orain dela hamar urte euskarazko bi ikastaro trinko egin ondoren, hemengo jende asko baino hobeki moldatzen da gure hizkuntzan.

Honela azaldu zigun suomieraren historia eta egoera.

Duela 3.000 edo 4.000 urte arte Suomiko lurraldean gaurko

laponiarren arbasoak bizi ziren. Garai horretan suomiarrak sartu ziren eta laponiarrek ipar aldera jo behar izan zuten.



XII. mendean suediarrek gurutzada bat antolatu zuten suomiarren kontra, Suomi konkistatu zuten eta kolonia suediarrak kokatu zituzten itsasertzean. Geroztik, XIX. mendera arte, Suediaren menpean bizi izan ziren eta Errusiarekin sarri izan zituzten gerlak.

Tilsit–eko tratatuetan Napoleon I.ak eta Errusiako tsar Alexander I.ak hitzartutakoaren arabera, honek 1809an Suomi konkistatu zuen, eta aski autonomia zabala eman zion. Errusiak, aitzinako arerio zaharrak, eman zion autonomia hori Suomiri, horrela Suediaren indarra ahultzeko.

Egoera autonomoaren hasieran suediera zen hizkuntza ofizial bakarra eta kultur hizkuntza. Suomiera, aitzitik, herritar gehienen hizkuntza izan arren baztertua eta gutxietsia zen.

Alexander II.aren aro liberala (1855–1881) oso mesedegarria izan zen Suomiko ekonomia eta kulturarentzat, eta, horrela, 1856an Estatu autonomoko funtzionariei suomiera ahoz erabiltzeko gai izateko obligazioa ezarri zitzaien, nahiz eta oraindik ere idatziz suediera erabili.

Handik zazpi urtetara, 1863an, lehen hizkuntz legea ezarri zuen enperadoreak suedierari hizkuntza ofizialaren maila emanez, baina handik aurrera suediera eta suomiera berdin erabiltzen hasi ziren.

Gaurko egoera gehien baldintzatu zuten neurrietako bat, 1883 urtean emandako hizkuntzari buruzko dekretua izan zen. Honen bitartez, suedierazko probintzietan suedierak hizkuntza ofiziala izaten segitu zuen, baina suomiera ofizialtasunera heldu zen suomierazkoetan. Ez da pentsatu behar, ordea, horrekin dena konponduta zegoenik. Aldizka errusiarren paneslavismoa berotzen zen eta honen printzipioen aurka zegoen, noski, suomiarren askatasuna.

Horrelako aldi batean, 1891n errusiera obligaziozko bihurtu zuten korrespondentzia ofizialerako; Nikolas II.ak suomiar armada errusiarrean integratu zuen 1899an, eta errusiera inposatu administrazioan, hizkuntza ofizialaren maila beroni bakarrik ezagutuz. Errusifikazio–aro bat izan zen hau. Herriaren erantzuna erresistentzia izan zen, eta 1904ean Nikolas II.ak ezarritako gobernadorea, Bobrikov generala, hil zuten. Bi urte beranduago tsarrak Konstituzio berri bat eman behar izan zion Suomiri eta parlamenturako hauteskunde–deia egin.

Sozialistek 1907ko hauteskundeetan arrakasta handia lortu

ondoren, zapalkuntza etorri zen eta erresistentzia pasibora itzuli ziren. Errusiako Iraultzak ekarriko zuen askatasun–aukera berria. Gertakari haren ondoren, sozialistek Sovietar Batasunean integratu nahi zuten; konstituzionalista zaharrek, aldiz, independentzia.

Hauek alemanei laguntza eskatu eta lortu zuten; baina alemanek abagadunea probetxatuz, faktura kobratzea pentsatu zuten, Suomi beren kontrol ekonomikoaren pean jarriz. Kaiserra 1918an jausi zenean eten zen alemanekiko menpekotasun hori. Azkenik, 1919an Suomi errepublika independente bilakatu zen.

Åland irlak, hizkuntzaz suedierazkoak, Suomiko errepublikaren barnean geratu ziren, baina autonomia handiarekin.

Lehen Mundu–Gerraren ondorio bezala, hizkuntzaz suomierazkoa zen Karelia Sovietar Batasunaren eskuetan geratu zen.

Prozesu historiko honen ondorio da gaurko Suomiren hizkuntz egoera.

Suomin gizabanakoak eskuarki ez dira elebidunak; Estatua, aldiz, bai, elebiduna da eta hiritar bakoitzak beti eskubidea du bere hizkuntzan administrazioarekin harremanak izateko. Lurraldea, berriz, banatuta dago. Suediarrak %8 baino gutxiago diren probintziak suomiartzat hartzen dira eta suomiarrak %8 baino gutxiago direnak suediartzat. Åland–go irlak guztiz suedierazkoak dira beren autonomia ia osoari esker. Badira probintzia elebiduntzat hartzen direnak ere.

Orain dela 5 urte (1979an), 399 udalerri suomierazko zeuden, 26 suedierazko eta 39 elebidun. Hamar urtetik behin, hizkuntz egoera egiaztatzen da eta hizkuntza bateko hiztunen portzentaia %6tik jaisten baldin bada udalerri batetan, elebakartzat hartzen da.

Banaketa–erizpide hauek 1922ko hizkuntz legearen araberakoak dira. Esan beharra dago, Suedian dauden 300.000 suomiar inmigranteek ez dutela inolako hizkuntz eskubiderik eta Soviet Batasuneko Karelia ia guztiz errusifikaturik dagoela. Laponierak (5.000 pertsona Suomin) ez du ofizialtasunik ez Suomin, ez Suedian, ez Norvegian, eta ezta Soviet Batasunean ere. Kostaldeko probintzietako suomieraren eta suedieraren arteko muga ez da ia aldatu azken 1000 urte honetan. Helsinki hiriburuan, aldiz, suomiera %25en hizkuntza izatetik %90ena izatera pasa da azken 150 urteotan, suomiar inmigrazioaren eraginez.

Komunikabideei dagokienez, hiru irrati–katea daude, 2 suomierazko eta suedierazko bat, eta bi telebista–kanale suomieraz, suedierazko programa batzurekin. Suedierazko programak programazioaren %3 izan ziren joan zen urtean. Suedieradunak ez daude horrekin konforme eta beren kanalea eskatzen dute, baina Estatuak ezezkoa ematen die oraingoz.

Suomiko eskola guztiak udalen eskuetan daude. Udalerri bakoitzean, bertako egoeraren arabera, suomierazko eskolak, suedierazkoak nahiz bi eratarakoak daude.

Lehen mailako irakaskuntzan, hirugarren ikasturtetik aurrera (9 urte) haur guztiak beren ama–hizkuntzaz beste hizkuntza nazionala ikasten hasten dira: bederatzi urtetatik hamahiru urtetara, bi ordu astean; eta hamahiru urtetatik aurrera, bederatzi ordu asteko. Sistema honen helburua ez da elebidunak egitea, bigarren hizkuntzaren oinarrizko ezaguera bat ematea baizik; eta halakoxeak dira emaitzak, biztanleriaren parte txiki bat baizik ez bait da heltzen benetako elebitasunera.

Suomieradun askok hirugarren mailan jarri nahi luke suediera eta ingelesa bigarren mailara jaso.

Sei unibertsitate daude: 4 suomierazko, suedierazko bat eta elebiduna den Helsinkikoa.

Parlamentuak 1948an emandako aginduz, Helsinkiko Unibertsitatean irakasle guztiek elebidunak izan behar dute, ikasleak azterketetan bi hizkuntzen artean aukeratu ahal izan dezan. Katedra bakoitza suomierazkoa ala suedierazkoa da hala ere, eta suomierazko 200 katedren ondoan suedierazko 20 daude. Unibertsitate guztietan suedierazko ikasleen kuota minimo bat errespetatu beharra dago, ordea, denak suomierazkoak izan ez daitezen.

Azalpen honen bukaeran, Timo Riiho–k ondorio batzu atera zituen, nire ustez oso kontutan hartzekoak, eta ondokoak izan ziren:

—Herri baten jabetasunaren menpean dago hizkuntzaren jabetasuna. Bestela esateko, hizkuntza nazional bat egiteko helburu politikoa behar da.
—Suomin gaur dagoen egoera ez da suomiar erradikalek nahi zutena (hauek suediera desager erazi nahi bait zuten beren artetik), moderatuena baizik; baina erradikalek egin zuten burrukarik gabe ez zen erdietsiko gaurkoa.
—Hizkuntza bat menpekotasunetik askatzeko militantismo handia

behar da. Abertzale suomierazaleak oso gutxi ziren hasieran, baina ez zuten etsitzen: oso tirada txikiko egunkariez baliatzen ziren, beren suedierazko deiturak aldatzen zituzten, etab.

—Horrelako prozesu batek oso denbora luzea eskatzen du. Suomin belaunaldi bat edo bi galdu ziren bitartean. Lehen abertzaleen umeek ikusi zituzten ondorioak.

—Erakundeak izan daitezke elebidunak, baina gizabanako guztiei ez dago hori eskatzerik.

Riiho irakaslearen esaldi bati zenbait iruzkin egin nahi nizkioke. Honela zioen: «Hizkuntza bakarreko izateko eskubidea defendatu behar da». Esan zizkigun beste gauza guztien textuinguruan, esaldi horrek irakurtzeko modu bakarra dauka: «Euskaldun hutsa izateko eskubidea defendatu behar da». Beste irakurketa posiblea —«Erdaldun huts izateko eskubidea defendatu behar da»—, matematikazko hizkera erabiliz, «ebazpide jakina» dela esango nuke. Ez dagoela inposatzen den zerbait defendatu beharrik, alegia.

Irakasle suomiarraren azalpenak hipotesi argi bat zuen inplizitoki: hizkuntz politika burruka ideologiko eta politikoekin bat eginda dago eta, beraz, bi hizkuntz politika bakarrik dira posible funtsean: hizkuntza menperatuaren ordezkapenaren aldekoa, hots, dagoen *statu quo* hori areagotu nahi dutenena bata, eta bestea, egoera hori itzulipurdikatu nahi dutenena. Erdiko biderik ez dago. Suomin bertan suediarren taldea beherantz doa garai bateko hegemoniaren ondarea apurka–apurka galtzen duen heinean (Helsinkiko kasua lekuko).

## Antolatzaileen zenbait buruhauste dela eta, bertoko egoeraz pentsatzeko aukera

Georgiarraren kalearekin ez ziren antolatzaileen nahigabeak amaitu. Algeriako hizlaria ez zen ageri eta Galeskoaren maleta bat galdua zen, agian ponentzia barnean zuela, aireporturen bateko aro postindustrialeko antolamendu teknifikatuari esker.

Ihardunaldiak ezerezean geratzeko arrisku bizian zeuden. Bertsolari–seneko inprobisatzaile batek bakarrik konpon zezakeen hura eta azaldu zen bat. Bikaina gainera. Iñaki Larrañaga aurrikusle ona izan zen, eta sakelean ekarriak zituen euskarari buruzko datu estatistiko jakingarri bezain kezkagarri batzu aurkeztu zizki-

gun. Kanpokoa gurearekin konparatzen hasteko bide egokia izan zen azalpen hau.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoan egindako azkeneko zentsuak eskaini dituen datu batzu eman zizkigun.



%60 < Ondo hitz egiten dutenak < %80

%40 < Ondo hitz egiten dutenak < %60

%20 < Ondo hitz egiten dutenak < %40

Ondo hitz egiten dutenak < %20

Biztanleria osoa, 2.141.809 pertsonak osatzen genuen zentsuaren egunean. Euskaraz batere ez dakitela aitortzen dutenak 1.442.453 (%67,3) dira, hitz egiteko eragozpena dutenak 248.815 (%11,6) eta ondo hitz egiten dutenak 450.541 (%21).

Datu hauen arabera euskaldun elebakarrak zenbat diren jaki-

terik ez dagoen arren, zalantza handirik gabe esan daiteke oso gutxi direla.

Hizkuntzaren egoera eskualdeka zein den esaten diguten datuak oso interesgarriak dira (ik. 2. irudia).

Irudi horretan ikus daitekeenez, eskualde euskaldunen artean, hots, Urola–kostaldearen (%71,69 ondo dakitenak), Tolosaldea (%61,64), Lea–Artibai (%79,86) eta Gernikaldearen (%69,69) artean, ez dago erabateko jarraipen geografikorik. Hala ere, baliabideak esleitzeko garaian, inportantea litzateke nire ustez eskualde hauei lehentasuna ematea, nukleo sendo batzu edukitzeak beharrezkoa bait dirudi.

Horrekin batera, hiri handien pisua handia izaten delako, bai demografikoki eta bai prestigioaren aldetik, oso gogoan izatekoa da Donostiak eta honen eskualdeak eskaintzen duten area urbano euskaldun samarra (gutxi–asko %44,06k daki euskaraz).

Gauza bat da, ordea, euskaraz jakitea eta beste bat erabiltzea. Puntu honetan nahikoa gaizki gaudela esan daiteke, zeren eta dakitenen erdiak bait dira erabiltzen dutenak.

Ezertan lehiatiak izan behar badugu, uste dut, honetan izan behar dugula, euskaldunei euskara erabil dezaten eskatzen, erregutzen, laguntzen eta beste egiten. Erdaldunak euskalduntzeko egiten diren ahalegin guztiak ondo daude; baina askoz premiazkoagoa dirudi oraindik, euskarak duen odol–hustutze izugarria geldi erazteko, euskaldunen kopurua mantentzeak eta azken urteotan baino gehiago arduratzeak euskaldunen alfabetatzeaz.

Burruka hori batez ere gazteenen eremuan irabazi behar da, bai bait dirudi, gainera, garai batean pubertaroan euskara abandonatu ondoren urte batzu beranduago euskarara batzu itzultzen ziren bezala, orain itzulera hori askoz gutxiago gertatzen dela.

Irakaskuntzaren arloan eta euskararen presentzia publikoan egiten ari garen aurrerapen batzuk sor lezaketen optimismo–apurra asko iluntzen dute datu kezkagarri hauek.

## Algeriako egoera: gatazka sor bat?

Algeriako hizkuntz egoeraren berri eman zigun hizlariaren azalpenetik atera ahal izan nuenagatik, honelakoak dira gutxi gorabehera hango problemak:

Bada Algeriako zenbait eskualdetan (Kabilia Haundia, Batna, Hoggar) prehistoriaz geroztik belaunaldiz belaunaldi mantendu den herri bat: *berebereak*. *Gaur egun* Algeriako biztanleriaren (20 milioi inguru) %30 dira gutxi gorabehera.




Bereberea (tamazirt) da hain zuzen Ipar Afrikako hizkuntza ezagunik zaharrena. Hizkuntza honek badu tifinag deritzan alfabeto bat ere.

Arabeak VII. mendean heldu ziren Algeriara. Joan zen mendean, 1830ean, frantsesak Algeria okupatzen hasi ziren eta 1875ean burutu zuten okupazio osoa. Kabilia izan zen, hain zuzen, gehien jarki zitzaien eskualdea eta konkistatu zuten azkena.

Frantsesen agintea 1962an amaitu zen, gerra luze baten ondoren Algeriak independentzia lortu zuenean.

Independentziaren biharamunetik legezko textuek, hau da, Karta Nazionalak eta Konstituzioak, arabiera klasikoari ezagutu zioten ofizialtasuna. Jakina denez, arabiera klasiko hau Koraneko hizkuntza eta hizkuntza literarioa da Asia eta Afrikako lurralde askotan eta batasun handia du leku guzti hauetan.

Algerian gutxiengo txiki batek bakarrik ezagutzen du ongi arabiera klasikoa. Ahozko hizkuntzan arabiera dialektal desberdinak erabiltzen dira Algeriaren barnean eta desberdintasun hori nahikoa handia da, gainera, Marokko–ko mugatik Tunisia–kora.

Kolonialismo–garaian hizkuntza ofiziala izan zen frantsesa, ofizialki hizkuntza arrotza dela esaten den arren, bizi–bizirik dago Algerian, batez ere zenbait arlotan: lehen mailako irakaskuntzaren hirugarren ikasturtetik aurrera ikasten dute haurrek eta zientzia–tekniketan hizkuntza bakarra da. Bumedian–ek «burdinaren eta altzairuaren» hizkuntza deitu du.

Independentzia ondoko lehen aldian ofizialki planteatu zen gauza bakarra «arabizazioarena» izan zen; baina, jakina, hori deus ere ez esatea zen ia, arabieraren barnean dagoen aipatutako diglosia hori kontutan hartzen baldin bada.

Zer esanik ez bereberea ez zela aipatu ere egiten.

Dirudienez, 1980 urtean hizkuntz errebindikazio batzu izan ziren eta geroztik gutxienez onartzen da bereberea badela; baina oraindik ere honen problemei buruz ez hitz egitea nahiago dute agintariek behintzat. Arabiar batasunarentzako mehatxu bat dela pentsatzen dute nonbait.

Gaur bertan tifinag alfabetoz idatzitako edozein textu guztiz debekatua dago; eta Unibertsitatean hirugarren mailako hizkuntza arrotz baten moduan eta aukerako asignatura gisa bereberea irakasteko baimena eman zutenean jarri zuten ezinbesteko baldintza, latin alfabetora transkribatutako textuak besterik ez erabiltzea izan zen.

Bereberearen kontrako jarrera ofizialaren erroak oso sakonak

dira seguru aski: batetik, betidaniko etnia arteko konponezina; bestetik, frantsesek Kabilia beren alde jarri nahi izan zuten eta ondoriorik izan ez zuen maniobra horrez geroztik, Kabiliarrak zenbait arabiarren aurrean «frantsestuak» dira.

Hizlariari asko kostatzen zitzaion gauza hauek esatea, beharbada kontrol ideologikoaren beldurrez, edo ez zuelako etxe barruko trapu zaharrik atzerrian erakutsi nahi.

Argi dago, gutxienez zenbait intelektual (batez ere Paristik) berebere hizkuntzaren errebindikazioa bultzatzen ari dela eta Unibertsitatean gatazkak izan direla.

Nolanahi dela ere, Algeriako hizkuntz egoera konplikatua da eta oraindik ez dago nahasketa hori konpontzeko politika ofizial egokirik. Herri–mailan, batez ere berebereen artean, egon daiteke giro politikoak isilik mantentzen duen baina agian gerora nekez mantenduko duen azpiharmonia bat.

## Kymrueraren egoerak badu paralelotasunik franko euskararenarekin

Edozein konparazio egiteko, eta are Galesko datuak intepretatzeko, gogoan izan behar da Britainia Haundiko Estatuaren egitura ez dela Espainiakoa edo Frantziakoa bezain erdirakoia eta legeria bera ere ez dagoela beste Estatu hauetan bezain kodetua eta zehaztua. Konstituzioak ez du han zehazten zein den hizkuntza ofiziala eta zein ez. Eskoletako programak ere ez dira Ministeritza batetik inposatzen. Eskolako zuzendariak du programok zehazteko ardura. Horregatik, egoera deskribatzerakoan, kontutan izan behar da desberdina dela hau konterritik konterrira, herritik herrira eta eskolatik eskolara.

Kymruera, biztanleriaren %20k bakarrik daki. Oso handia izan da atzerapena, inmigrazioaren eraginez batez ere. Gaurko kymrueradunen portzentaia oso desberdina da leku batzutatik bestetara.

Glamorgan–eko konterrietan, Cardiff hiria eta eskualderik industriatuena dagoen lurraldean alegia, kymrueraz dakitenak %10etik behera dira. Biztanleriaren banaketa hain zuzen kontrakoa da, eskualde hau bait da jendatsuena. Horregatik, hegoaldeko galofonoen kopuruak handi samarrak iruditu arren, proportzioan oso bakanak dira. Iparrean eta mendebaldean alderantziz gerta-

tzen da: jende gutxi bizi da, baina proportzioan galofonoak ugariak dira. Beste diferentzia bat ere badago: hegoaldeko anglofonoak askotan galestar sentitzen dira, beren familiak belaunalditan han bizi direlako eta agian kymrueraz zekitenen umeak direlako. Gehiengo kymrueraduneko eskualdeak turismo–lekuak dira, eta anglofonoak, berrikitan hara joandako jendea da askotan.

Administrazioaren aldetik, ez dago Galesko gobernu eta parlamentu autonomorik. Hala ere, Cardiff–en gobernu zentralaren bulego bat dago. Erakunde honek ingelesez funtzionatzen du, baina kymrueraz erantzuten ditu hizkuntza honetan zuzentzen zaizkion gutunak eta bi hizkuntzatan argitaratzen du zenbait agiri.

Tribunaletan badago kymruera erabiltzeko eskubidea; baina ez kymrueradun epaile bat izateko edo juradukoak nahitaez hizkuntza hau dakitenak izan daitezen eskatzeko eskubiderik ere. Askotan, desabantailik ez izateko, nahiago izaten du kymrueradunak ingelesa erabiltzea. Hizkuntzaren aldeko militantziaz bestaldera jokatzen duenik ere badago.

Jendeak kalean egin duen burrukari esker, gobernu zentralaren aginpidekoak diren eremu batzutan lortu dira kymrueraren aurrerapen batzu: errepideetako seinaleak bi hizkuntzatan jartzea, errentaren aitorpena kymrueraz egin ahal izatea, zenbait inprimakitan kymruera ere sartzea etab.

Dena den, ez dago plan seriorik honetan politika bat aurrera eramateko. Bizitz arlo askoren administrazioa konterri–mailan eramaten da, hala nola lehen mailako eta bigarren mailako irakaskuntza.

Ipar–mendebaldean dagoen Gwynedd–edo konterrian, bertako agintariak gogoz ari dira kymrueraren alde jokatzen bai administrazioan, bai hezkuntzan. Konterri horretakoxe Dwyfor–eko barrutian kymruera erabiltzen da administrazio–mailan lehen hizkuntza bezala. Beste konterri batzutan ez da horrenbeste egiten; kasurik kontrakoena, Gwent–eko konterrikoa da.

Gwynedd eta Dwyfor lurralde zoragarriek anglofono asko erakartzen dituzte (12 milioi turistek 800 milioi dolar utzi zituzten 1982an) eta horrek arriskuan jartzen du han kymruerak duen egoera hobea. Bertako agintariak saiatu dira etxebizitzari buruzko plangintza bat egiten udaldiko etxeak eta mugatzeko; baina gobernu zentralak ez du horrelakorik onartu. Bestalde, ekintza zuze-


Gwynedd
Clwid
Powys
Dyfed
Gwent
Mendebaldeko Glamorgan
Erdiko Glamorgan
Hegoaldeko Glamorgan
Cardiff
Galesez dakitenak ⩾ %50
%10 ⩽ Galesez dakitenak < %50
Galesez dakitenak < %10

naren zaleek erre izan dituzte udatiarren txaletak. (Problema honek Lapurdikoa gogorarazten du berehala).

Komunikabideek ere beren eragina dute hizkuntz egoeran. Trenezko komunikabide gehienak Ekialdetik Mendebaldera doaz, Gales Ingalaterrarekin ongi komunikatuz eta ez Iparretik Hegora; beraz, Galesko eskualdeen arteko komunikabideak askoz txarragoak dira. Ez dago Gales osoan irakurtzen den bertako egunkaririk; Londreskoak, berriz, leku guztietara iristen dira.

Kymruerazko egunkaririk ez dago eta astekari bat bakarra hizkuntza honetan. Alderdi honetatik ere, badugu haien antzik. Irratiaren eta telebistaren aldetik ere, antzeko samarrak dira Galesko eta Euskal Herriko egoerak. Bada kymruerazko irratia eta joan den urteaz geroztik telebista–kanale bat ere bai: 21 orduko emankizunak zabaltzen ditu kymrueraz. Zerbitzu honek kostu izugarria dauka, munduko telebistarik hoberenetako baten hiru kanaleei konpetentzia egin behar dielako eta, gainera, hauen hizkuntza munduan dagoen indartsuena delako.

Galesko ia eskola denak publikoak dira. Haurtzaindegiak (5 urtetik beherakoentzat) ez dira obligaziozkoak; baina bada kymruerazko haurtzaindegien mugimendu bat (Mudiad Ysogolion Meithrin), subentzio osagarriak ere jasotzen dituena.

Lehen mailako eskolei dagokienez, gerraondoaz geroztik kymruerazko asko ireki dira. Hauetan dena kymrueraz ematen da eta ingelesa asignatura moduan irakasten. Badira kymruerazko eskola deitzen ez diren eskolak, baina praktikan lehen aipatutakoak bezalatsuak direnak. Ingelesezko eskolen barnean badaude kymruerazko gelak ere; gurasoek, ordea, ez dute nahi izaten beren haurrak era honetako eskoletan ibil daitezen. Badira ingeles hutsezko eskolak ere. Baita goizetan hizkuntza bataz eta arratsaldetan besteaz irakasten den eskolak ere. Gaien erdiak baino gehiago kymrueraz ikasten dituzte hauetako haurrek.

Ned Thomas galestar hizlariak esan zizkigun gauza guztien artean, bat hartu nuen oso gogoan: «Hizkuntza erabil dadin, beharrezkoa da hiztunen komunitatea; baina batez ere hizkuntza horretan bizitzeko ahalbidea ematen duten erakundeak behar dira. *Hizkuntza batean bizitzeko posibilitatea instituzioen bitartez lortzen da*». Oso ideia inportantea da hau, nire ustez. Hiztunak hizkuntza erabili ahal izan dezan beti «ausartuko ote naiz ala ez?» dilemaren morrontzapean egon gabe, erakundeak bere hizkuntza erabiliko duela bermatu behar zaio.

## Irlandako gaelikoa, edo nora joan gaitezkeen deskuidatzen bagara

Gaelikoari XVI. mendean etorri zitzaion ingelesaren lehen eraso gogorra, Tudortarren agintearen pean egin ziren landaketa edo ingeles hutsen kolonizazioen ondorioz. Hurrengo mendean ere hauek jarraitu ondotik, XVIII. mendearen azkenaldera Irlandako irlaren Ekialdeko erdia hartua zuen ingelesak. XIX. mendean gaelikodunek berez ez zuten jadanik beren hizkuntza mantentzeko inolako gogorik. Kontutan hartu behar da, mende horretan bertan, bost urteko epean, irlako biztanleriaren 8 milioietatik 2 milioik emigratu behar izan zutela eta mende–bukaerarako biztanleria 4 milioitaraino jaitsia zela. Emigratzea ezinbestekoa zitzaien ia, eta gaelikoak ez zuen balio Irlandatik kanpora joateko.

XIX. mendearen bukaeran indartu zen mugimendu abertzaleak, hiru urteko gerra zibilaren ondoren, independentzia lortu zuen 1921ean. Ordurako gaelikoa lurjota zegoen eta 2.700.000 biztanleren artean 300.000 bakarrik ziren gaelikodunak. Independentziarekin, beren burrukaren beharra bukatua zela uste izan zuten gaelikozaleek, Estatuak, eskoletan gaelikoa irakatsiz, arazoa konponduko zuelakoan.

Gaelikoaren irakaskuntza lehen eta bigarren mailako eskola guztietan sartu zen 1922an. Hasieran hizkuntza ongi ezagutzen zuten maisu–maistrak falta ziren eta maisutzako eskolak ama–hizkuntzatzat gaelikoa zutenak erakartzen ahalegindu ziren. Arrazoi honegatik eta irakaskuntz metodoen bilaketa nekeza egiten zelako, hasiera batean gai guztiak gaeliko hutsez irakasten ziren eskolak azkar ugaritu baziren ere, 1943tik aurrera urrituz joan ziren, 1956–57 ikasturtean %10,7ra jaitsiz eta 1960–61ean %8,6ra.

Bigarren mailako irakaskuntza, ordena erlijiosoen eskuetan egon izan da Irlandan. Baziren lau eskol eredu: A izenekoetan, dena gaelikoz irakasten zen; B1 izenekoetan, gaelikoa eta ingelesa erdibanaturik erabiltzen ziren; B2 izenekoetan, ingelesa gaelikoa baino gehiago, eta gainerakoetan gaelikoa asignatura bezala bakarrik irakasten zen. A eskolen kopurua 1950a arte hazi zen, B1 eta B2koena 1961a arte; baina hiru mota hauetako eskolen multzoa jaitsiz joan da.

Gaelikoa irakasteko arrazoi nagusia, batxilergoan ikasleek pasa behar zuten gaelikozko azterketa idatzia zen. Estatuaren funtzionari izateko ere azterketa bat gainditu beharra zegoen.


Gaeliko erreala
Gaeliko ofiziala

Estatu osoko biztanleriaren %27k, 750.000 pertsona inguruk, gaelikoz gutxi–asko mintzatzeko gai zela aitortzen zuen 1961ean, baina Gaeltacht deritzan ama–hizkuntzaz gaelikodunak direnen eskualde–multzotik kanpora, inor gutxik erabiltzen zuen hizkuntza hau egunoroko bizitzan. Azterketak gainditzeko hizkuntza edota ikur hutsa zen jende gehienarentzat. Anglofonoen aurrean gaelikoz hitz egitera ausartzen zena erotzat hartzen zuten.

Hizkuntzaren etorkizunarekiko edo balioarekiko etsipena nagusia zen eta arazo nazional kezkagarriena emigrazioa zen 1950 urtearen inguruan ere.

Politikoek ere ez zioten hizkuntza erabiltzearen arazoan irakaspen egokirik ematen herriari eta hauen ahoberokeriak ez ziren hitz hutsak baizik. Gaelikoa beharrezkoa izatearen kontrako kanpaina bati ekin zioten «Language Freedom Movement» zeritzan mugimendukoek. 1950etik 1970era tinta asko isuri zen, era guztietako txostenetan, hizkuntzaren berpizkundeari buruz. Azken finean, borondate politikoaren falta frogatu zuten gertakariek.

Hitz–jario horren ondoren, 1973an akabukoa etorri zen, batxilergoko gaelikozko azterketa kenduz eta handik laster baita funtzionariena ere. Memento hartan kontserbadoreak zeuden agintean; baina errua ez da hauena bakarrik, zeren geroztik gailurrean txandakatu direnek ez bait dute deus egin oker hura konpontzeko. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera bultzatzeko ahaleginek ez dute agintariengandik batere berotasunik jaso. Ez dago interesik. Datu guztiek zabarkeria eta etsipena adierazten dute.

Horrela, lehen mailako eskoletan asteko lau ordu inguru bakarrik eskaintzen zaizkio gaelikoaren irakaskuntzari eta, duela 8 urte, ordu gehiegi zirela horiek, pentsatzen zuen irakasleen laurdenak.

Gaeliko hutsez irakasten duten lehen mailako eskoletan ez dabil eskolumeen %3 besterik.

Oraintsu arte bazen Galway–n, karrera osoak gaelikoz egiteko aukera ematen zuen unibertsitate bat; baina orain hori ere ez.

Ipar Irlandan bertan ingelesen aurkako burrukan dabiltzanen artean ere ez da hizkuntzaren aldeko su handirik ikusten.

Estatuaren atxakia herriaren borondate–falta da; etortzen zaizkion asmoak bultzatzeko prest dagoela dio, baina horretan ere ez du esfortzu handirik egiten.

Hizkuntz militanteen elkarteak dira zuzia piztuta mantentzen duten bakarrak.

Suomiko egoeraren azterketak herriaren jabetasuna ezinbestekoa dela hizkuntzaren jabetasuna lortzeko erakusten bazigun, Irlandakoa ikusita gero hori beharrezko baldintza dela baina inola ere ez nahikoa, esan behar.

*A.S.*

## Manex Erdozainzik utzi leku hutsari begira

# Gauaren bestaldean

**Iñaki Uria**

«*Gauaren atzekaldean* nobelaren gaia oso xinplea duk: Migel errefugiatu politiko bat duk, Parisen bizi dena, bere adin betean heriotze absurdo batek eramaten duena; honen bi lagunak, Jose eta Txomin, haren gelara badoatzik pusken biltzera, honela Mireni eman hitza betez», zioen Manex Erdozainzik, nobelaren egileak berak *Argia*-n 1983ko urtarrilean egindako elkarrizketan. Manexen heriotza baino urtebete lehenago.

Elkarrizketa horretan dio, plazerrez idazten zuela euskaraz, ahaztu gabe, bestalde, euskal kulturaren egoera, eta horregatik Euskadi batuari begira idazten zuela. Norberaren bizitza eremu nasaia ikusten du idazteko gaiak ateratzeko eta berarentzat sentsazioak, gertakariak, oroitzapenak, sentimenduak, ametsak ebokatzea da poesia.

*Tinbrea. Jose eta Txomin izango dira. Manex hil zenetik arratsaldero egiten didate bisita. Gaur gainera, horretan gelditu ginen atzo, Manexen puskak bildu behar ditugu handik eta hemendik. Poesia bereziki.*

*Esku arten neukena, idazten ari nintzena alegia, erakutsi egin diet.*

—Arrazoia du hori dioenean —*hasi da Jose, beti bezala aurrena*— *Hinki-Hanka* irakurriz gero, berehala suma daiteke haurtza-

roak haren idaztietan duen garrantzia. Haurtzaroan bere ama lanean soroan, Ibarlako bere baserrian, Oztibarreko ordokietan, Nafarroa Beherean.

—Gogoan dut —*jarraitu dio Txominek*— behin eta berriro esaten zuena. Bere haur-mundua zela bere sorterriko mendiek mugatutakoa. Mendira igo eta han urrutira ikusten omen zuten, baina hala ere oso ttipia omen zen haien mundutxoa. Irratirik eta telebistarik gabekoa. Euskara hutsezkoa. Gero beti zen kexu bere ikasketa guztiak frantsesez egin behar izanaz. Lau urterekin sartu huen eskola frantsesean; eta hamaika urterekin Euskal Herritik kanpora.

—Harrigarria da —*sartu naiz ni*— zenbat aldiz aipatzen duen eskolara joan «behar» hori. Minez menditik atera eta eskolan sartu zutela ematen du.

*Egia esan ez da hain harrigarria kalekumea ez den batentzat. Oraindik bat baino gehiago gogoratuko da, ni gogoratzen naizen bezala, zenbat sufritzen zuen «cashero»k eskolara etortzen zenean. Han izkina batean jarri eta, ez gaztelaniaz ez futbolean jakin gabe, nola pasatzen zuen, bere ikaskideen irainak eta irakaslearen jipoiak jasaten.*

Gauza bat jakin nahi nuke, zertan izan zen behartua? Fraide joatera behartua izan zen, ala fraide joan nahirik etxetik joatera behartua zegoen.

—Fraide ez da inor behartua joaten! —*Josek*—. *(«Ez zen inor joaten» hobeto legoke, nire ustez).*

—Dena dela —*nik*—, gauza bat ikus dezazuen nahi dut. Bere poesi liburuko aurrenengo poeman, «Emazteki bat ene bizian...», bigarren atalaren hasieran, honela dio:

Gaztarorat doi-doia heldua
Etxetik joan behartu izan zitziakan eskoletarat,
Diotenaz gain oraiko mendean
Ez dela jakitaterik gabe ibili behar!

Poema horretan —*jarraitu dut neronek*— beharkizuna aipatzeaz gain, Manexen obra osoan aurkitzen ez den gauza batekin egiten dugu topo: ironiarekin, zinismoarekin ia-ia. Gainerako poesian hain gardena eta begi-garbia den Manex, hain maliziarik gabea den Erdozainzi, bestalde gizon ikasia, psikologoa, filosofoa, teologoa zen Manex Erdozainzi, Akitaniako frantziskotarren probintziala... nola konprenitu behar da gizon hain ikasi batek

«Diotenaz gain oraiko mendean / Ez dela jakitaterik gabe ibili behar!» idaztea, bere etxetik ateratze hori, min hori, sendatuko ez duen pomada bat bezala jartzea?

—Poema horren segida —*Txominek*— da ni gehien hunkitu nauen pasartea:

> Utzi nintikan ene etxekoak:
> Ene Aita nigarretan,
> Lagundu bairinduen bideberriko xeheletaraino
> Lagundu ixil-ixila bideberriraino
> Bihotzean gordez bere pena izigarria.
> . . .
> Bere beso idorretan finki tinkatu baininduen:
> «Izan untsa, Mañes», erranez...
> Eta egon baitzen bide gainean luzaz
> Pauxaldeko bizkarrean
> Ni arrunt gorde artino.
>
> Utzi nindukan bide gainean nigarretan
> Lur hontako egoitzan
> Gehiago besarkaturen ez dutana...

—Bale, hi, —*moztu dio Josek*— hi gauza haiz liburu osoa berrirakurtzeko!

—Ba... merezi dik! —*arrapostu Txominek.*

—Konforme —*Josek*—, jaso ditzagun, ordea, Manexen gauza diferenteak. Jaso ditzagun denak. Ez bakarrik hemendik. Denetik pixka bat.

*Ni ere horretan nago. Baina gaia aldatu gabe, «Gure etxegibeleko haritza» hartuz gero, poema horretan, bere etxetik atera gabe euskaldun guztientzat balio duen gai batekin egin du bat: Haritz zaharrarekin. Noiz landatua izan zen inork ez dakiena, hondatzetik hainbat aldiz libratu gaituena, gure bizi-gunea, ahantzezina... Eta gure etxekoek ebakitakoa. Beste muga batzutara plegatutakoa. Eta amak haritz zaharraren heriotza kondatzen dionean poliki, sobera min har ez zezan, poetak «Nigar egin nian / Hik utzi leku hutsari begira!»*

—Bada poema bat —*hasi da Jose*— hegoaldekoek irakurri beharko luketena Iparraldea pittin bat gehiago ulertzeko. «Presuner ohiak» poemari buruz ari naiz, noski. Gerlarako haziak ez ziren presuner ohiak nola hamalaueko eta berrogeiko Frantziak armen hartzera deitu zituen. Morts pour la Patrie.

Hitz faltsu hauietaz gure herri hustuak
Ezazolki antzakatu baititu

. . .

zeren zeren
ez ote dakizu, Migeltxo?
bi gerla irabazi ditu gero

. . .

xingola, medaila edo girgileria
papoan pollikiño emanik
etxetik merialat eta elizalat
elizatik hil-harrietara
hil-harrietatik eskolara
eskolatik ostatura

. . .

Ahantzi behar ez den Frantzia mitoa
Zelebratzeko!

*Nik uste Josek hau aipatzerakoan, Manexek eta Iparraldeko edozein abertzalek senti dezakeen mina, herra eta ezina gogoratu nahi izan duela. Nola hitzegin Frantziaren zapalkuntzaren kontra eta Euskal Herriaren alde, aita, aitona edota osabaren izena eliz ondoko hilerriko hilarri batean idatzirik baldin badago? Nola, Patrie-gatik hil baziren eta ez Euskadiren alde?*

—Biziarekiko zuen zaletasuna, joera, lilura, kantatu nahia —*aipatu du Txominek*— obra guztian zehar agertzen da. Edozein poematan kantatzen du bizia, fruituak, loreak eta ordokiak aipatzen. Bizia hartzen du bere forma guztietan. Eta naturaren formaz jantzita ageri zaio gehienetan. Lurraren kolorez udaberrian. Baina, hala ere, nahiz eta bere ebokazioek ama-lurra ekarri idatzietara, alde egiten du hortik eta Parisen sartzen da, *Gauaren atzekaldea,* berak konprenitzen ez duen edo, hobe, bizi ez duen, sentitzen ez duen mundu hura ebokatzera. Eta Parisen ere biziarekin egiten du topo. «Beste» biziarekin, ordea. Pigalle. Metroa. Kafeak. Putak. Eskaleak.

*Ezer gutxi egongo da Manexen idaztietatik, beste idaztietatik, nabari daitekeen gizon horretatik hurrunago egongo denik, Pariseko mundu hori baino. Eta han ere bizia sentitzen du odolean. Whisky eta zarrapastrosoen artean ere bizia sumatzen du. Eta konprenitzen ahalegintzen da. Saiatzen da Aita bat bezala. Fraide on, majo bat bezala.*

—Honetan gaudela —*berriro ere ni ari naiz*— ez dut uste ahantz daitekeenik *Hinki-Hanka*-ren erdian agertzen den poema luze bat, «Egunean egunekotik...» izenekoa. Prosa eta poesia nahasten ditu, Pariseko bere oroitzapenei, hobe erreflexioei, eskaini-

tako pasartean: «Bakartasunean naizelarik, oroitzen naiz larruak erretzen nauela eta sofritzen dut nere barneko munduan».

Gauez gertatzen zaio hau gure fraideari. «Jeiki ordu da. Ahanzten ditut larrua eta nere burua». Pizten du —*zerbaiti heldu behar*— eguneko lehen zigarreta eta kalera doa. Parisen eskaleek liluratzen dute bereziki. Zimaurretan sortuek «Garbietarik naizelakoan eta samatsean ez naizelakoan sortua, ez naiz eskelari». Baina, helas! Garbietarikoa izanik ere, laster konturatuko da ez dela zoriontsua. «Ardurenik goibel dut bihotza eta tristea da nire barruko kantua... Eskelaria bezain pobre eta beharretan nabila... Eskelari bilakatu naiz... Zeren eta noren eske gabiltzan: nik ote dakita?».

—Azkenean heldu diogu benetako gaiari —*moztu dit Josek*—. Horri jarraitu behar diogu. Poema horretatik aurrera, nahiz eta lehen ere beste zenbaitetan aipatua izan, «Populu bat xutik» horretatik aurrera, Euskal Herria izango du gai nagusia. Poema horretan, bidean ibiliz gauza berriak ezagutzen dituztenen eta toki berean geratuz usteltzen direnen artean zatikatzen du gizadia. Bera, «Ez dut maite barne hertsi eta hetsi batean / gakoturik edo, zakurra bezala, estekan egotea», lehen multzo horretako partaide bezala definitzen delarik. «Eta nahi dut barnago sartu / sortzen ari den mundu berri hontan». «Eta nere baitan sumatzen dut / kitzi-kitzi / euskaldun berri bat sortzen, / euskal populu berri bat itxura hartzen: / Europan! / Munduan!»

> Gaur, populu batek, xutik, kantatzen du:
> «Gu gira Euskadiko gazteri berria,
> Euskadi bakarra da gure Aberria...»
> eta ez omen du galtzen mundu zabalerako tirria
> eta ez omen du ahantzi nahi denak anaiak dituela!
>
> *1967ko Uztailean.*

Hori esan zuen bide asko ibili ondoren eta Paris (bere esannahi guztiarekin harturik) ederki asko ezagutu ondoren. Ez zela, alegia, aurrena ikusten den Paris horrekin txunditu eta hura imitatu nahian ibili denbora osoan (ohitura nahiko arrunta euskal eremu guztietan. Besteetan ere bai).

—Egoki deritzot «Erligioso bizitzaren euskal aste» batean esan zuena gogoratzeari —*sartu da Txomin:*

> Eta nere problema larriena izan zen zein alderdi aukeratuko nuen. Zalantzarik gabe aukeratu nuen sortzeak emana zautan alderdia: jende langilearen alderdia, herri zapaldu honen alderdia (*Herriz Herri*, 84-VI-7).

*Tarte bat ireki daiteke hemen Setien gotzaiak hartzen duen postura eta Manexek hartu zuena alderatuz.*

—Hik hasitako horri jarraiera emanez —*ni, zein bestela?*— zera esango diat, Txomin: ez zela bakarrik esatea zapalduen aldetik zegoela; esateaz gain, horien alde idatzi zuen *(eta 84-V-6ko* Argia-*n Artasok zioenez «kutsu politiko nahiko garbia duten ekintza herrikoietan hartu du parte Manexek».* Herriz Herri-*n, Gure Irratian, Amnesty International-en, eta «errefuxiatuekin asko ibiltzen zen. Laguntzen»).* Hortik aurrera zer egin zuen, praktikan, eguneroko lanetan, beste batzuk jakingo dute hobeto. Guri haren idatziak besterik ez zaigu geratzen, hemen pixkana-pixkana, puskaz-puska bilduz joateko. Eta idatzietan garbi dio, ahal balu, «EZ LITAKE EZ / Handi mandirik / Edo / Txuri-gorririk Aberats-pobrerik eta / Poliz-gizonik / Ez eta / Presondegirik eta auzitegirik / Gure Euskadin».

Eta Salvador Allende eta Txileko zapalduei dedikatzen die poema bat, eta horren bukaeran: «Non dira non / zuk, Jauna, ba ahal dakizu / non diren / Santiagorateko bideak...»

Eta Jainkoak ez zion erantzun:

> Arren
> neure herriko sinesdunak
> inori ez diot zorrik
> baina barka
> barka
> umezurtzak izanen direno
> musu baten sari ostiko bat ukanen duguno
> nire gudu lagunak
> mendiz-mendi doatzino
> haizatuak, tirokatuak, gartzelatuak,
> zanpatuak
> izanen direno
> gure herri honek
> gartzela bat iduri
> diraueno
> eta gauak
> egunak bihurtu ez direno
> guretzat besteentzat bezala
> barka
> nire herriko sinesdunak
> neure Fede
> apurtua...

(«Herri Honen erraietan» poematik, 1974ean idatzia eta *Maiatz* 1.ean argitaratua 1982an).

—Poema hori oso-osorik irakurtzekoa duk —*Josek*—, beste batzu bezala. 76an esaterako, «Askatasunaren amets zohardia»n honela ziok:

Txabi, Poeta, Iharra,
Mikelon eta Txikia eta Txapela
Eta Euskadiko xenderetan hil dizkiguten
Iraultzaileen zerrenda luzea
Nere haurrak ziren
Maliziarik gabeko
Nere semeak ziren...
Eta *Txiki eta Gotzon Otaegi eta Jesus Mari Zabala*
. . .
Hil dizkidate beren justiziaren izenean!»

Eta aurten argitaratutako *Maitaz* 5.ean torturetan hil ziguten Joseba Arregiri «eta beste gure lagunei nigar ororen artean» poema luze bat idazten die.

Eta bizirik iraungo balu seguru gaude Txapelaren anaiari, Txapelari, eta Katturi, eta beste Katturi, eta beste hainbati kantatuko ziekeela.

—Hori da gauzarik aipagarrienetako bat —*gutako edozeinek*—. Manexek hautatua zuen norekin zegoen eta haiei kantatzen zien. Era soil batean. Gozo-gozo. Euskara ederrez beti. Bere ama, bere ama-lurra, bere ama-lurra-Euskadi, bere ama-lurra-Euskadi-egin-nahi-duten-anaiak. Horiek ditu bere gaiak. Haren obra, hautatua da: *Hinki Hanka*-n 26 urtetan zehar idatzitako poemen sorta bat ageri da. Beti orden berean. Kontzientzia hartze bat egongo balitz bezala urteak pasatzearekin. Euskal Herria pizten ikusi duela ematen du. Altxatzen. Eta poztu egiten da, altxatze horrek dakartzan kalte guztiak kontutan harturik ere. Hori azpimarratu nahi genuke miaketa hau bukatu aurretik: Manexen obra norbaitek irakurriko balu, ez luke aurkituko paraje exotikorik, ez abentura grinazkorik, ez heroe liluragarririk. Areago: egilearen bizitza, guk dakigularik, ez da bere obrari, ganduak etxeari bezala, halako itzal bat emateko modukoa. Baina abertzale batek irakurriko balu, bere moduko batekin egingo luke topo. Ezker abertzaleko batek, esan beharko genuke agian... Ez du piratekin, eta ehiztari gaiztoekin egingo topo, bera bezalako batekin baizik. Gauza bakoitzari bere izenez deitzen dion batekin aurkituko da irakurlea.

*Eta askok ez dute onartuko. Askorentzat, literatura, gauzei beste izen batzuren bitartez deitzea bait da.*

*I.U.*

# 1983ko erdal liburuak Euskal Herriaz

**Joan Mari Torrealdai**

Gure herriaren mugetan produzitzen den liburua hirutan bana genezake. Lehenengo eta behin, euskal liburua, euskaraz idatzia. Bigarrenez, Euskal Herriari buruzkoa, orain hemen aurkezten dugun hau berau. Eta hirugarrenez, erdal liburu soila.

Liburu-produkzioan Euskal Herria hirugarren lekuan dator Estatu espainolean. Bartzelonaren eta Madrilen atzetik, oso atzetik hori bai, baina hirugarren. Urteko 1.500-2.000 liburu egiten da hemen, eta horietatik %37 inguru da euskaraz eta euskal gaiez egindakoa.

Euskaraz idatziriko liburua aurreko zenbakian aurkeztu eta aztertu genuen. Erdarazkoa, baina euskal gaia duena, aurkeztuko dugu orain. Azken bi urteotan utzia izan dudan lanari ekiten diot atzera honekin, lau urtez egindakoari berriro lotuz, 1977tik 1980rakoa hain zuzen (JAKINen 5, 9, 13 eta 17/18 zenbakietan eman nituen argitara). Aurten, orain arte bezala urteko lehen zenbakian ez dut argitaratzerik izan, aski garaiz prestatzeko astirik ezagatik.

Zerrenda honetan 1983ko produkzioaren fitxa bibliografikoa ematen dut. Hona irakurleak aurkituko duen informazioa: titulua, egilea/itzultzailea, argitaletxea, herria, edizio-urtea, orrialdeak, luze-zabaleko neurriak.

Azken ohar gisa, aldez aurretik esan nahi nuke agian ez direla aurkituko hemen 1983ko lege-gordailuz ateratako liburuak oro, bat falta gabe. Daitekeena da banaka batzuk huts egitea. Egia esan,

euskarazko liburuak biltzen, inguratzen eta begiratzen baino ahalegin eta arreta gutxiago egin dut. Baina, dena den, ia denak hemen daudelakoan eta, hoberik ezean, interesatuaren informaziorako eta zenbaiten ikerketarako zerbitzu on bat eskaintzen dudalako segurantzian publikatzen dut dagoen honetantxe.

**Agro y la industria, El.** Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 265–296 p.

**Aguas Subterráneas en Navarra, Las. Proyecto hidrogeológico.** Elkar-lanean. D.F.N. Iruñea. 32 × 24. 229 p.

**Alava ayer – Atzoko Araba. Fotografías de la sociedad alavesa – Siglo XIX – Arabako gizartearen XIX. mendeko argazkiak.** Sáenz de San Pedro,; Del Val, V.; Vidal Abarca, J. C.P.A. Gasteiz. 30 × 25,5. 208 p.

**Alava durante la invasión napoleónica. Reconversión fiscal y desamortización.** Ortiz de Orruño, J.M.ª D.F.A. Gasteiz. 25,5 × 18. 215 p.

**Alavés, El. Carácter y costumbres.** Jiménez, J. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 41–72 p.

**Alaveses universales.** Ochoa Axpe, M. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 73–104 p.

**Alduide, corazón de Navarra.** Esarte, P. Egile-editore. Elizondo. 24 × 16,5. 346 p.

**Alimentos y guisos en la cocina vasca.** Busca Isusi, J. M.ª Txertoa. Donostia. 21,5 × 15,5. 230 p.

**Amar a Euskalerria conociéndola. Laburdi, Benabarra, Zuberoa.** Lapitz, J.J. egile-editore. 21 × 15. 255 p.

**Amaya, o los vascos en el siglo VIII.** Navarro Villoslada, F. L.G.E. Vasca. Bilbo. 22,5 × 16. 410 p.

**Angosto'ko Ama Birjiña – La Virgen de Angosto.** Letona, F.S. d. D.F.A. Gasteiz. 22 × 16. 123 p.

**Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco.** Barandiarán Irízar, L. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 142 p.

**Antología de la poesía navarra actual.** Urrutia, A. D.F.N. Iruñea 20 × 13,5. 303 p.

**Anuario de Bibliografía Vasca, 1981.** Consejo de Cultura de la D. de Alava. D.F.A. Gasteiz.

**Apellidos alaveses.** Vidal Abarca, J. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 105–136 p.

**Apellidos vascos. Diccionario etimológico.** Mogrobejo, E. de. E. Egile-editore. Bilbo. 22,5 × 15,5. 246 p.

**Aproximación a la Historia del País Vasco. Edad Moderna (S. XVI–XVIII)** (Tomo II). Elkar-lanean. Adarra. Bilbo. 25 × 17,5. 223 p.

**Arana-Goiri – Aguirre – Leizaola. Biografía de tres figuras nacionales vascas.** Ugalde, M. de. Sendoa. Donostia. 21,5 × 15. 137 p.

**Archivo de la Tenencia de Corregimiento de la Merindad de Durango. Catálogo de los manuscritos, lista de los tenientes y Monografía de la merindad.** Amador Carrandi, F. C.A.V. Bilbo. 21,5 × 14,5. 305 p.

**Areas metropolitanas en el modelo autonómico, Las.** Ibarra Robles, J. L. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 25,5 × 18. 254 p.

**Arqueta de Leyre y otras esculturas medievales de Navarra.** Fernández-Ladreda Aguade, C. D.F.N. Iruñea. 27 × 27. 70 p.

**Arquitectura civil y urbanismo en Alava.** Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 201-232 p.

**Arte de hacer el vino.** De - Vaux, Cadet. Txertoa. Donostia. 20 × 14. 144 p.

**Arte vasco.** Elkar-lanean. Erein. Donostia. 31 × 24. 269 p.

**Artes plásticas y monumentales** (2). Elkar-lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 230 p.

**Artesanos de la regata del Bidasoa. Sumbilla, Aranaz, Yanci.** Garmendia Larrañaga, J. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 123 p.

**Azkoitia'ko euskal erri ertiarekiko miaketa saioa - Ensayo crítico en torno al arte popular vasco en Azcoitia. Arquitectura - Escultura - pintura.** Aranbarri Etxaniz, S. C.A.P. Donostia. 20 × 14. 482 p.

**Bestiario esculpido en Navarra, El.** Malaxecheverria, Ignacio. D.F.N. Iruñea. 24 × 17. 259 p.

**Bidegaina. Relatos de un pueblo.** Antoñana, X. de. Egile-editore. Iruñea. 20 × 14. 172 p.

**Bosques, Los.** Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 137-168 p.

**Capítulos de la Medicina popular vasca. Estudios de Historia de la medicina vasca (11).** Goicoetxea Marcaida, A. Univ. Salamanca. Salamanca. 22 × 16. 144 p.

**Cartulario real a la provincia de Alava (1258-1500). Fuentes documentales medievales del País Vasco.** Iñurrieta Ambrosio, E. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 × 16,5. 103 p.

**Casas Ospitalaia. Diez Siglos de Historia en Ultrapuertos.** Urrutibéhéty, C. D.F.N. Iruñea. 28 × 21. 496 p.

**Catálogo de la industria Navarra. Año 1982.** D.F.N. Iruñea. 16,5 × 24. 121 p.

**Catálogo monumental de Navarra. II* Merindad de Estella. Vol. II.** Elkar-lanean. D.F.N. Iruñea. 29 × 21,5. 671 p.

**Catálogo Monumental de Navarra. II**. Merindad de Estella - Genevilla - Zuñiga.** Elkar-lanean. Inst. Príncipe de Viana. Iruñea 29,5 × 21,5. 836 p.

**Centauros del Pirineo.** Urabayen Guindoarena, F. Auñamendi. Donostia. 18 × 12. 276 p.

**Ciencias Naturales (1).** Elkar-lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 166 p.

**Cine vasco ¿Realidad o ficción? Epoca muda.** López Echeverrieta, A. Ediciones Mensajero. Bilbo. 21 × 13,5 250 p.

**Cocina de Nicolasa, La.** Pradera, N. Txertoa, Donostia. 21,5 × 15,5. 363 p.

**Cocina Vasca. Nuestra cocina por nuestros mejores cocineros.** Elkar-lanean. Sendoa. Donostia. 23 × 18. 408 p.

**Cocina Vasca. Nuestra cocina por nuestros mejores cocineros.** Elkar-lanean. Sendoa. Donostia. 28 × 22. 512 p.

**Comienzos del Diario, Los. Navarra en 1900.** Sánchez Aranda, J. J. Ediciones y Libros, S.A. Iruñea. 16,5 × 12. 197 p.

**Compendio de la doctrina cancerológica y de su problemática actual.** Llombart, A.; Rodríguez. C.A.P. Donostia. 26 × 20. 621 p.

**Conferencias sobre derecho foral.** Elkar-lanean. C.A.P. Donostia. 29 × 21. 267 p.

**Conversaciones sobre José Antonio Aguirre.** Elkar-lanean. Idatz Ekintza. Bilbo. 19,5 × 13. 324 p.

**Crónicas de guerra y exilio.** Basaldua, P. Idatz Ekintza. Bilbo. 22 × 16. 441 p.

**Curandero Petrequillo, El. Estudios de Historia de la medicina vasca (10).**Barriola, I. M. Univ. Salamanca. Salamanca. 22 × 16.

**Danzas e indumentaria de Navarra. Merindad de Sangüesa.** Arrarás, F. D.F.N. Iruñea. 20 × 13,5. 210 p.

**Delito de opinar, El.** Sánchez Erauskin, J. Orain, S.A. Hernani. 21 × 15. 287 p.

**Deporte, El.** Gómez Ochoa, P. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 297–328 p.

**Deporte rural vasco.** Aguirre Franco, R. Txertoa. Donostia. 19,5 × 13,5 159 p.

**Derecho. Régimen Foral. Organización.** Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5 137–168 p.

**Día Grande de Navarra.** Isla, J. F. de. Mintzoa. Iruñea. 21 × 15. 127 p.

**Día y la Noche, El.** Aguirre Gandarias, J. Egile-editore. 21,5 × 15,5. 129 p.

**Diálogos de guerra. Euskadi 1936.** Blasco Olaetxea, C. 21 × 15,5. 194 p.

**Diccionario de apellidos vascos.** Narvarte, N. Gómez. Iruñea. 20 × 13. 297 p.

**Diccionario de Historia del País Vasco (A–H).** García de Cortázar, F.; Montero, M. Txertoa. Donostia. 24 × 17. 444 p.

**Diccionario de Historia del País Vasco (I–Z).** García de Cortázar, F.; Montero, M. Txertoa. Donostia. 24 × 17. 425 p.

**Dinámica del capitalismo, crisis y economía vasca.** Uranga, M.G.; Herrero, J.L. Hordago. Donostia. 23 × 16,5. 244 p.

**Educación y cultura.** Sancristóbal, P. de. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. de 329–360 p.

**Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián.** (Tomo 1.°) Azurmendi Ayerbe, M.J. C.A.P. Donostia. 30 × 21. 360 p.

**Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián.** (Tomo 2.°). Azurmendi Ayerbe, M. J. C.A.P. Donostia. 30 × 21. 510 p.

**Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián.** (Tomo 3.°). Azurmendi Ayerbe, M. J. C.A.P. Donostia. 30 × 21. 565 p.

**Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco** (Cuerpo A. Diccionario enciclopédico vasco). Vol. XIV. Elkar-lanean. Auñamendi. Donostia. 28 × 21. 590 p.

**Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco** (Cuerpo A. Diccionario enciclopédico vasco) Vol. XV. Elkar-lanean. Auñamendi. Donostia. 28 × 21. 592 p.

**Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco** (Cuerpo B. Historia General de Euskalerria). Elkar-lanean. Auñamendi. Donostia. 28 × 21. 524 p.

**Enciclopedia Histórico-Geográfica de Alava** (1). Elkar-lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 366 p.

**Enciclopedia Histórico-Geográfica de Alava** (2). Elkar-lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 365 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Alava** (3). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 365 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Alava** (4). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5 365 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Guipúzcoa** (1). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 372 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Guipúzcoa** (2). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 374 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Guipúzcoa** (3). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 372 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Guipúzcoa** (4). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 375 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Navarra** (1). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 374 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Navarra** (2). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 376 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Navarra** (3). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 374 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Navarra** (4). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 375 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Vizcaya** (1). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 376 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Vizcaya** (2). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 376 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Vizcaya** (3). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 376 p.

**Enciclopedia Histórico–Geográfica de Vizcaya** (4). Elkar–lanean. Haranburu. Donostia. 30 × 21,5. 376 p.

**Ensayo para una historia de Urretxu** (Tomo I). Jaca Legorburu, A. C. C.A.P. Donostia. 20 × 14. 383 p.

**Ensayo para una historia de Urretxu** (Tomo II). Jaca Legorburu, A.C. C.A.P. Donostia. 20 × 14. 259 p.

**Epidemias, Hospitales y Guerra en Guipúzcoa y Navarra a finales del siglo XVIII (1793–1795). Estudios de Historia de la medicina vasca (12).** Elkar–lanean. Univ. Salamanca. Salamanca. 22 × 16. 63 p.

**Epoca del conocimiento y de la ciencia, La** (Fasc. 22). Bombín Pérez, A. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5 de 137 a 168 p.

**Escrito en Euskadi. Revolución y cultura. 1976–1982.** Sastre, A. Edit. Revolución. Madrid. 19 × 13. 245 p.

**Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque** (Tomo 1*). Vinson, J. C.A.V. Bilbo. 21,5 × 14,5. 471 p.

**Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque** (Tomo 1**). Vinson, J. C.A.V. Bilbo. 21,5 × 14,5. 522–818 p.

**Estudio comparativo del derecho Alavés y Navarro.** Salinas Quijada, F. D.F.A. Gasteiz. 20,5 × 15. 249 p.

**Estudios de sintaxis vasca.** Villasante, Fr. L. Edit. Franciscana Aránzazu. Oñate. 19 × 13. 255 p.

**Etre Basque.** Elkar–lanean. Editions Privat. Toulouse. 26 × 21. 492 p.

**Euskadi 1982.** Elkar–lanean. Orain, S.A. Hernani. 28,5 × 22. 255 p.

**Euskadi 1983.** Elkar–lanean. Orain, S.A. Hernani. 28,5 × 22. 253 p.

**Euskal etxearen inauguraketa – Inauguración de Euskal Etxea (Madrid, Octubre 1982).** Elkar–lanean. C.A.M. Donostia. 22 × 16. 203 p.

**Euskal Herriko Autonomia–Elkarteari egindako zerbitzu eskuraketei buruzko legepideak – Legislación sobre traspasos de servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco.** Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 27 × 20. 428 p.

**Euskal urtekari estatistikoa 1982 – Anuario estadístico vasco 1982.** Eusko Jaurlaritza. Estatistika–Zuzendaritza. U.Z.E.I. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 26 × 21,5. 376 p.

**Euskaldunen Bolibar – El Bolívar de los vascos.** Sasia, J.M.; Eguren, J.A. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 27 × 20. 224 p.

**Euskaltzaindia, el batua y la muerte del euskera.** Latiegi; Oñatibia. 20,5 × 14,5. 466 p.

**Fantasía y realidad.** (II). (Obras completas). Campion, A. Mintzoa. 25 × 18. 442 p.

**Ferrerías en Guipúzcoa. (Siglos XIV – XVI). Fuentes e Instituciones. Vol. 1.** Díez de Salazar, L.M. Haranburu. Donostia. 20,5 × 14. 387 p.

**Ferrerías en Guipúzcoa. (Siglos XIV – XVI). Fuentes e Instituciones. Vol. 2.** Díez de Salazar, L.M. Haranburu. Donostia. 20,5 × 14. 379 p.

**Fiestas euskaras en Marquina, Las – Markiña'ko Euskal Jaiak. 1883 urtea.** Bilbao Arretxabaleta, M.A. D.F.V. Bilbo. 21 × 15. 206 p.

**Flora primaveral. Flora Navarra.** Elkar–lanean. Ediciones y Libros, S.A. Iruñea. 16,5 × 12. 303 p.

**Folklore.** Elkar–lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 307 p.

**Folletones en «El Sol».** Urabayen, F. D.F.N. Iruñea. 20 × 13,5 264 p.

**Formulario de plantas medicinales** (Tomo II). Mugarza, J. Laiz. Bilbo. 29 × 33. 478 p.

**Forua y Morueta. La historia de Vizcaya presente en estas Anteiglesias hoy desconocidas.** Gondra y Oraa, M. V. de. Laiz, S.A. Bilbo. 26,5 × 21. 139 p.

**Función comercial del País Vasco en el S. XVIII, La** (I). Zabala, A. Haranburu. Donostia. 20,5 × 14. 314 p.

**Función comercial del País Vasco en el S. XVIII, La** (Fas. 21). González Mínguez, C. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 105–136 p.

**Gaztelubide 34 – 84.** Ferrer, J.M. C.A.P. Donostia. 30 × 21. 90 P.

**Geométricos vascos.** Elkar–lanean. C.A.M. Donostia. 22 × 15,5. 43 p.

**Gipuzkoa. Geografía, Historia y arte.** Elkar–lanean. C.A.P. Donostia. 27,5 × 22,5. 263 p.

**Gizarte zerbitzuak hirugarren adinerako Euskal Herriko Komunitate Autonomoan – Servicios sociales para la tercera edad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.** Elkar–lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 26 × 20. 416 p.

**Guerra de los Vascos en el 98, La. Valle Inclán – Pío Baroja – Unamuno.** Extramiana, J. Haranburu. Donostia. 20,5 × 14. 414 p.

**Guerra y paz en España. Del anarquismo a la revolución interior.** Ibarrola Izurzu, F. Queimada. Madrid. 21 × 14. 242 p.

**Guía de los servicios psiquiátricos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.** Elkar–lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 25,5 × 19,5. 131 p.

**Guía de montes de Navarra – Nafarroako Mendi Gidaliburua.** Pueyo, M.; Iñigo, G. C.A.M. Iruñea. 21 × 13,5. 327 p.

**Guía inventario de la investigación y el desarrollo tecnológico en Navarra.** Elkar–lanean. D.F.N. Iruñea. 29,5 × 21. 328 p.

**Guía para recolectar las principales setas comestibles.** Busca Isusi, J.M. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 120 p.

**Guipúzcoa en el Siglo XIX. Guerras, desamortización, fueros.** Mutiloa Poza, J.M. C.A.P. Donostia. 24 × 18. 736 p.

**Guipúzcoa en escritores y viajeros.** Monreal Huegun, B. C.A.P. Donostia. 26 × 18. 216 p.

**Guipúzcoa (Guipúzcoa olvidada – Guipúzcoa paso a paso, 1.ª parte).** Peña Santiago, L.P. Txertoa. Donostia. 21 × 14,5. 349 p.

**Guipúzcoa (Guipúzcoa paso a paso, 2.ª parte – Guipúzcoa, último camino).** Peña Santiago, L. P. Txertoa. Donostia. 21 × 14,5. 357–680 p.

**Herri Argiak Euskal Autonomia Elkartean – El alumbrado público en la Comunidad Autónoma Vasca.** Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 388 p.

**Historia a través de la leyenda – Fantasía y realidad.** (I) (Obras completas) (Tomo I). Campión, A. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 443 p.

**Historia de la economía marítima del País Vasco.** Elkar–lanean. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 208 p.

**Historia de la Escuela Normal de Navarra (1831–1931).** Guibert Navaz, M.E. Inst. Príncipe de Viana. Iruñea. 24 × 17,5. 327 p.

**Historia de las lenguas en Alava** (fasc. 7). Elkar–lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 40 p.

**Historia del Hospital de Basurto.** S. Granjel; Goti Iturriaga. Sant. Hospital de Basurto. Basurto. 24,5 × 17,5. 294 p.

**Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne** (Tome I). Michel, F. Elkar. Donostia. 21 × 13,5. 341 p.

**Historia–Geografía** (1). Elkar–lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 419 p.

**Hizkuntza eta Literatura** (2). Elkar–lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 288 p.

**Humildemente, scardanelli.** Sáenz, M. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 14 p.

**Incorporación al mundo romano, La** (Fasc. 19). Loza Lengaran, R. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 41–72 p.

**Información documental en el ámbito de una administración autónoma, La.** Elkar–lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 25,5 × 18. 103 p.

**Instituciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.** Elkar–lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 21 × 15. 307 p.

**Investigaciones de historia Navarra.** Lacarra, J.M. Ediciones y Libros. Iruñea. 16,5 × 11,5. 277 p.

**Itinerarios ecológicos de Vizcaya.** Elkar–lanean. Adarra. Bilbo. 25,5 × 18. 95 p.

**Jannu. Una primavera del Himalaya.** Abrego, M. Aranburu. Iruñea. 28,5 × 21,5. 132 p.

**José Miguel de Barandiarán. Patriarca de la cultura Vasca. Biografía.** Barandiarán Irizar, L. La G. E. Vasca. Bilbo. 23 × 16. 494 p.

**Kultura 5** (Cuadernos de Cultura). Elkar–lanean. D.F.A. Gasteiz. 22,5 × 23,5. 135 p.

**Légendes Basques.** Barbier, J. Elkar. Donostia. 27,5 × 23,5. 158 p.

**Lurralde – Investigación y espacio.** Ingeba. C.A.P. Donostia. 24,5 × 17. 477 p.

**Mar de los vascos, El** (II). Garmendia Larrañaga; Peña Santiago. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 184 p.

**Matrimonios vascos en Idaho y Nevada. (1862–1941). (Diáspora vasca – 4).** Elkar–lanean. D.F.A. Gasteiz. 23 × 23. 205 p.

**Mayor Gloria de Dios, A la.** Zarco, A. Hordago. Donostia. 20,5 × 14,5. 278 p.

**Mendiak – Montes de Euskalerria. Naturaleza y huella humana** (Tomo 5). Elkar–lanean. Etor. Donostia. 33 × 24,5. 352 p.

**Método fácil para aprender euskera básico.** (Libro 1). Gereño, X. Egile–editore. Bilbo. 23 × 16,5. 72 p.

**Método fácil para aprender euskera básico.** (Libro 2). Gereño. X. Egile–editore. Bilbo. 23 × 16,5. 69 p.

**Método fácil para aprender euskera básico.** (Libro 3). Gereño, X. Egile–editore. Bilbo. 23 × 16,5. 79 p.

**Método fácil para aprender euskera básico.** (Libro 4). Gereño, X. Egile–editore. Bilbo. 23 × 16,5. 83 p.

**Método fácil para aprender euskera básico.** (Libro 5). Gereño, X. Egile–editore. Bilbo. 23 × 16,5. 139 p.

**Miguel de Unamuno y su novelística.** Elizalde, I. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 355 p.

**Miscelánea 1°.** (Tomo XXI). Barandiaran, J.M. de. La G. E. Vasca. Bilbo. 23 × 16. 456 p.

**Mitos y creencias (Sobre etnografía vasca. 1).** Satrustegui, J.M. Sendoa. Donostia. 21 × 14. 177 p.

**Montes de hierro.** Castresana, L. La G. E. Vasca. Bilbo. 22,5 × 16. 242 p.

**Montes de las Encartaciones.** Elkar–lanean. Grupo Alpino Turista. Barakaldo. 25 × 17,5. 84 p.

**Montes y Valles.** Elkar–lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 41–72 p.

**Musica** (1). Elkar–lanean. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 × 17. 203 p.

**Navarra en su vida histórica. (I).** (Obras completas) (Tomo III). Campión, A. Mintzoa. Gasteiz. 25 × 18. 445 p.

**Navarra en su vida histórica. El genio de Navarra – La batalla chica.** (II). (Obras completas). (Tomo IV). Campión, A. Mintzoa. Iruña. 25 × 18. 437 p.

**Navarra frente al estado. Negociaciones y convenios desde el siglo XVIII. (4)** Esarte, P. Egile–editore. Elizondo. 24 × 16,5. 325 p.

**Nuestra fauna y su medio ambiente** (Fasc. 6). Elkar–lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 169–200 p.

**Nueva síntesis de la Historia del País Vasco. Desde la prehistoria hasta el gobierno de Garaikoetxea.** (Tomo I). Ugalde, M. de. Elkar S.A. Donostia. 21 × 15. 532 p.

**Nueva síntesis de la Historia del País Vasco. Desde la prehistoria hasta el gobierno de Garaikoetxea.** (Tomo II). Ugalde, M. de. Elkar, S.A. Donostia. 21 × 15. 533–974 p.

**Obras completas de F. Javier de Landaburu.** (Tomo I). Landaburu, J. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 430 p.

**Obras completas de F. Javier de Landaburu.** (Tomo III). Landaburu, J. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 416 p.

**Obras completas de F. Javier de Landaburu.** (Tomo IV). Landaburu, J. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 434 p.

**Obras completas del Padre Donostia.** (Tomo I). Riezu, P.J. de. La G. E. Vasca. Bilbo. 24,5 × 17. 497 p.

**Obras completas del Padre Donostia.** (Tomo II). Riezu, P.J. de. La G. E. Vasca. Bilbo. 24,5 × 17. 507 p.

**Ordenación del Sector de Matanza en la Comunidad Autónoma Vasca.** Elkar-lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 442 p.

**Organización funcional y valoración de puestos en la Administración Local Vasca.** Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 175 p.

**Oscuros comienzos, Los – La alta edad media** (Fasc. 20). García de Cortázar, J.A. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 73–104 p.

**«Pacto» de Santoña, El.** Onaindia, A. Laiz, S.A. Bilbo. 23 × 16. 181 p.

**Partido Nacionalista Vasco, Desde el.** (Tomo I). Irujo, M. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 485 p.

**Partido Nacionalista Vasco, Desde el.** (Tomo II). Irujo. M. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 473 p.

**Partido Nacionalista Vasco, Desde el.** (Tomo III). Irujo, M. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 486 p.

**Partido Nacionalista Vasco, Desde el.** (Tomo IV). Irujo, M. de. Idatz Ekintza. Bilbo. 24,5 × 17. 498 p.

**Pays Basque d'hier et d'aujourd'hui, Le.** Laborde, P. Elkar. Donostia. 21 × 13,5. 381 p.

**Pelota, Pelotari, Frontón.** Pelay Orozco, M. Poniente. Madrid. 33 × 25,5. 131 p.

**Período del racionalismo, siglo XVIII, El** (fasc. 23). Areta, L. M. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 169–200 p.

**Pieza del Templo.** Aurteneche, C. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 73 p.

**Plan de asistencia Psiquiátrica y salud mental.** Elkar-lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 232 p.

**Primeras jornadas de Estudio sobre el Parlamento Vasco.** Elkar-lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 21 × 15. 243 p.

**Profundas transformaciones del siglo XX, Las** (Fasc. 25). Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 233–264 p.

**Raíces de religiosidad popular.** (Fasc. 12). López de Ocariz, J.J. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 169–200 p.

**Raíces en la Prehistoria.** (Fasc. 18). Baldeón Iñigo, A. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 9–40 p.

**Recetas de Cocina de Abuelas Vascas. Alava – Navarra.** (Tomo I). Castillo, J. 21 × 16. 256 p.

**Recetas de Cocina de Abuelas Vascas. Guipúzcoa – Vizcaya.** (Tomo II). Castillo, J. 21 × 16. 205 p.

**Ríos y Clima.** (Fasc. 3). Elkar-lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 73–104 p.

**Saioak. (Revista de Estudios Vascos).** Elkar-lanean. Precisa. Donostia. 24 × 17. 140 p.

**San Fermines, Los.** Azpilicueta; Domench. Egile-editore. 26,5 × 23. 118 p.

**San Sebastián y su área periférica.** (1.er Tomo). Gómez Piñeiro, J. C.A.P. Donostia. 29,5 × 21. 388 p.

**San Sebastián y su área periférica.** (2.º Tomo). Gómez Piñeiro, J. C.A.P. Donostia. 29,5 × 21. 389–797 p.

**San Sebastián y su área periférica. Mapas, planos y gráficos.** (3.er Tomo). Gómez Piñeiro, J. C.A.P. Donostia. 29,5 × 21. 232 p.

**Segundo certamen de relato corto.** Concejo de Santurce. 21,5 × 15,5. 129 p.

**Setas del país vasco – Euskal herriko zizak.** (13.ª Serie). (36 láminas). Aranzadi. C.A.M. Donostia. 21 × 15.

**Sobre historia y etnografía vasca. Estudios vascos XI.** Caro Baroja, J. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 320 p.

**Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Obras del Padre Larramendi.** (III). Tellechea Idigoras, J. C.A.M. Donostia. 21,5 × 16. 351 p.

**Sociedad de estudios vascos, La.** Estornés Zubizarreta, I. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 25,5 × 18,5. 300 p.

**Sociedades populares, Las.** Aguirre Franco, R. C.A.P. Donostia. 28 × 21. 70 p.

**Sociología de la salud. (Primeras jornadas de la Sociología de la salud).** Elkar–lanean. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 336 p.

**Substrato rocoso, elemento activo, El.** (Fasc. 4). Elkar–lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 105–136 p.

**Territorio y población.** (Fasc. 1). Barrio Olaso, B. del. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 9–40 p.

**Tortura y sociedad.** Elkar–lanean. Edit. Revolución. Madrid. 19 × 13. 267 p.

**Vías de comunicación y comercio.** (Fasc. 14). Galilea Martínez, F. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 233–264 p.

**Vitoria de principios de Siglo y sus pintores, El.** Peciña, M. D.F.A. Gasteiz. 22 × 15,5. 93 p.

**Vizcaya monumental.** Basas, M. Haranburu. Donostia. 30,5 × 21,5. 121 p.

**XIX, un siglo de conflictos, El.** (Fasc. 24). Elkar–lanean. C.P.A. Gasteiz. 30 × 21,5. 201–232 p.

**800 aniversario de los fueros de población de Bernedo y Antoñana. (Actos conmemorativos).** Elkar–lanean. D.F.A. Gasteiz. 25 × 18. 169 p.

**1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta Biztanleen zentsua. Etxebizitza. Censo de Población y Vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Vivienda.** Eusko Jaurlaritza. Estatistita–Zuzendaritza/U.Z.E.I. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 26 × 21,5. 218 p.

**1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta Biztanleen zentsua. Etxebizitza. Censo de Población y Vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Vivienda.** (Argitalpen laburtua. Edición reducida). Eusko Jaurlaritza. Estatistika–Zuzendaritza/U.Z.E.I. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 26 × 21,5. 28 p.

# «Etiopia»ren estiloaz oharrak

Jon Kortazar

Ezinezkoa da idazle baten estiloa deskribatzea, textu bat halako edo honelako idazlerena dela igerrerazten diguten ezaugarri minimoak identifikatzea, poesiak gugan sortzen duena azaltzea, poesia zentzu poetiko batez ulertzen ez badugu. Idazle batek honela edo horrela idazten duela konstatatzen dugu, era bateko zein besteko hitzak erabiltzen dituela edo ez dituela erabiltzen.

Horregatik, arriskutsua egiten zait idazle baten estiloa zein den idaztea; askotan, gogorregia, baldin sentitua, erdi–ikusi eta barruntatua mingarriki deslizatuko balitz; eta beti, airezko eta usainezko pinpilinpauxa den estiloa xedera artetik ihes egiten ikusten da.

Alferrikako lana litzateke, beraz, arrazoi «didaktikoak» tarteko ez balira.

Orain arte idatzi ditudan liburuei buruzko nere eritzietan (ez naiz kritika deitzen ausartzen), beti utzi izan dut estiloazko oharrentzat tokitxoren bat, hizkera erabiltzeko moduari buruzko berri laburrentzat. Berri eta oharrok urriak ziren, bistakoa denez eta norbaitek gogoratu didanez[1]. Honi eskertu beharko oraingo lan hau, kritika hori izan bait da lanari ekitera bultza nauena.

*Etiopia* hartu dut estiloari buruzko saio honetarako. Aspaldi irakurria dudan lana izateaz landa, biziki maite dut, eta nolabaiteko ezaguera batera heldua naiz: ez zait, ikuspegi honetatik, ezezaguna gertatzen *Etiopia*.

## I. «Etiopia» eta Europako literatura

### 1. Literatura literaturaren barruan

Gaur egungo literaturgintzan eta –kritikan maiz aipatzen den baliapide hau[2] argi nabari da B. Atxagaren *Etiopia*–n. Eragin batzu autoreak berak aipatzen dizkigu: Schow (37. or.), Lauaxeta (73. or.), Lizardi (75. or.), Rimbaud (75. or.), Mirande (97. or.), Etxahun (107. or.). Baliapide honen muina, noski, ez dago aipatze hutsean; literaturazko *erabileran* dago berritasuna. Idazle batzuk gugan sortu dutenari omenaldi bezala aipatzen da hainbat idazle eta pasarte. Literaturak gugan egindako zartadaren birsortze estilistikoa bilatzen da. Bestalde, ez da literatura bakarrik erabiltzen xede honetarako: edozein fikzio–motak balio du horrelako ispilu–efektua (fikzioa fikzioaren barruan), laberinto–efektua lortzeko. Horrela, zineari eta zine–aktoreei buruzko aipamenak garrantzitsuak dira *Etiopia*–n.

Beste aipamen batzu, berriz, ez dira hain ezagunak: zitatu gabe erabilitako hainbat pasarte eta ideia dago. Euskal erromantzeek eragin handia dutela esatean, liburuaren klabeetako baten aurrean gaudeke, agian. Nobela beltzari hainbat apelazio egiten zaio; XX. mendearen hasierako idazle bidaiarien detaileak lanaren giroa sortzeko erabili dira. Azken iturri biok expreski ere aipatzen dira (ik. Humphrey Bogart eta Daniel Hammett–enak): gehienetan, girotzeko erabiltzen dira, usain bat edo sortuz.

Gauza bera egin du Carlos Alvarez–ek, Espainiako poeta bat aipatzeko. Haren *Museo de Cera*–ren eta B. Atxagaren poemagintzaren artean badago paralelo bat edo beste, aski argia.

Amaitzeko, ez nuke Marcel Schow ahaztu nahi; honen zita nagusi bat dagoke *Etiopia*–ren oinarrian[3]. Esaldi hori, matazaren hari bezala, ideiaren sorleku bezala, kosmobisioaren zutabe bezala ageri da. Area desberdinetako bederatzi zirkuluk osatzen dute, azken batean, *Etiopia*.

Literatura, bada, erabili egiten da; gorago esan bezala, bi helburu argirekin erabili ere: fikzioaren barruan fikzioa sartuz, deso-

reka eta sorpresaren efektuak bilatzen dira; eta omenaldi–gisako bat lortzen da, maite ditugun idazleen giroak eta esaldiak birsortuz.

## 2. Irudia

Friederich–ek[4] hala diosku XX. mendeko lirikari buruz: «El acceso a la lírica europea del siglo XX no es cosa fácil, en cuanto ésta se expresa por medio de enigmas y de misterios... el lector sufre una experiencia que, incluso antes de que él se dé cuenta le aproxima extraordinariamente a un rasgo esencial de su lírica. Su oscuridad le fascina en el mismo grado que le aturde, y la magia de sus palabras y su aura de misterio le subyugan, aunque no acierte a comprenderlas». B. Atxagaren *Etiopia*–ri hurbiltzeko egokiak direla uste dut goiko hitzok.

Ez da poesia erraza, *irudian* oinarritzen den poesia bait da. Eta irudiaren ezaugarririk nabarmenenak hauek dira: maila abstraktuan, ekibokotasuna: irakurketa–posibilitate irekiak, esanahi bakarrik eza eta, azken batean, interpretazio–beharra; irudia ez bait da unibokoa, irakurleak osatu behar du irudiaren esanahia berak ematen dion zentzuarekin. Esan gabe doa, ulerpen–prozesua subjektiboa dela.

Bigarren, eta maila sentsitiboan, bisualizazioa, musikaltasuna eta beste balio sentsitiboak aportatzen ditu irudiak. Adibide batez azalduko dugu:

begira eginen berriro masustei

bezalako bertso batean, hor daukagu ikusmenaren agerpena («begira» aditzean eta «masusta»ren «more» epiteto kolorezkoan); musikaltasuna, aliterazioaz lortzen da (bokalikoa dugu hemen garrantzizkoa, lehen hiru hitzen bokalekin serie bat osatzen delarik); agian —oso dudazkoa da hau—, balegoke usaimenaren aipamenen bat ere. Nolanahi ere, eta hau da garrantzizkoa, irudi sinboliko askatu bezala funtzionatzen du textuan «masusta»k, eta irakurleak bere sentsazioak ditu.

Hirugarren: Zeinu linguistikoak, D. Alonso–k esaten duenez, gure afektibitatea ukitzen duten sinboloak dira; edozein adierazlek sortzen ditu gugan nolabaiteko «oihartzun afektibo» batzu. «Adierazle–sinbolo»etan badaude idazlearen gurari batzu: batak poemaren autonomiarekin du zerikusirik, besteak disonantziarekin; hau da: badago munduaren (errealitatearen) eta poemaren arteko zubi bat: «[Uso] un estilo inquieto, que trata de dislocar

cuanto sea posible la correspondencia entre los signos y lo designado»[5]. Zubi hori, irudiaren bitartez lortzen da adierazlearen aldetik; adieraziarenetik, berriz, irakurlearen oihartzun afektiboen bitartez. Horregatik, «el lector no se siente seguro, sino alarmado»[6].

Egoera larri batean daukagu, beraz, irakurlea. Horixe da, azken batean, *Etiopia*–k adierazi nahi duena: munduaren aurrean idazleak sentitzen duen ziurtasun–falta, dekadentzia, irakurleagan sorreraztea.

### 3. Idazlearen «nia»ren ausentzia

Honelako poesia idazten duenak ez digu bere nortasun, sentimendu edo errealitaterik deskribatuko. «Según una definición derivada de la poesía romántica (y erróneamente generalizada) la lírica suele ser considerada como el lenguaje del sentimiento, del alma personal... Precisamente es esa familiaridad comunicativa lo que el poema contemporáneo trata de evitar. Este prescinde de la humanidad en el sentido tradicional de la palabra, de la vivencia, del sentimiento y a menudo incluso del yo personal del poeta, el cual no participa de su poema como individuo privado, sino como inteligencia que crea poesía, como operador de la lengua, como artista que ensaya las distintas fases de la transformación de su fantasía soberana o de su irreal manera de ver una materia cualquiera e insignificante en sí misma»[7].

Honek ez du esan nahi errealitatearekiko loturarik ez dagoenik. Planteamendu bezala, ostera, poesia deshumanizatu batetara garamatza. Ezaugarri hauek, honela zehazten dira *Etiopia*–n:

1. Lirikaren ezaugarri nagusitzat hartu ohi dugun lehen pertsona gramatikalaren desagertzea.

2. Nolabaiteko tonu narratibo bat erabiltzea. Poemak ez dira narrazio, baina pertsonaia batzu daude, olerkariaren irudia ez beste izaki batzu.

3. Poetaren ofizioari buruzko eritziak.

## II. Europatik euskal literaturara

*Etiopia*–ren estiloak XX. mendeko Europako lirikarekin zerikusi handia duen arren, baditu, era berean, ezaugarri linguistiko

berezi batzu, B. Atxagaren obratzat identifikatzera garamatzatenak.

Lourdes Otaegik esana duen bezala, badago hemen hiztegi berezi bat, B. Atxagaren hiztegia. Azalkeria bat aipatzeko, B. Atxagak, orain arte behintzat, beti «gehio» idatzi izan du. Jakina, puntu honek ez du garrantzi handirik, baina ezaugarri identifikatzaile bezala, besteek beste balio du. Horrelakoetatik hasi eta *Etiopia*-k proposatzen duen Weltanschaung-eraino, badira Bernardok oso bereak dituen notatxoak.

### 1. Dramatikotasuna

«Edonon aurki genezake dramatikotasuna» (45. or.) esaldiarekin hasten da *Etiopia*-ko ipuin bat. Egia esan, dramatikotasuna ez da ezaugarri originala; Europako lirikatik datorkigu: «Puede decirse que la poesía moderna posee un dramatismo agresivo, que impera en la relación entre los temas o motivos, más bien contrapuestos que yuxtapuestos, como domina también en la relación entre éstos y un estilo inquieto, que trata de dislocar cuanto sea posible la correspondencia entre los siglos y lo designado. Pero este dramatismo determina también la relación entre el poema y el lector, provocando un choque, cuya víctima es éste último»[8].

Duen garrantziak justifikatzen du zitaren luzea. *Etiopia*-ren kasuan, aipagarria da bigarren pertsonaren erabilera, dramatikotasuna adierazteko; baina ez hori bakarrik, zeren B. Atxagak ere kontrajarpenean oinarritzen bait du bere poesia. Originaltasuna, kontrajarpenaren erabileran dago, zalantzarik gabe.

1. Poetaren ofizioari buruzko ironiak *Etiopia*-ren poesiak duen garraztasunari kontrapuntua jartzen dio. «Piolet poeta lirikoari buruz zenbait apunte» eta «Adrilugisa» (115. or.) ipuinek humorismoa kontrajartzen diote poesiaren seriotasunari.

2. Kontrajarpenaz baliatu izan da poemak egituratzeko: «Begira eginen berriro masustei», adibidez, baieztapen/ukapen kategorikotan mugitzen da. Ik., baita, «Kain, Abel».

3. Kontrajarpenak, azkenik, izen sintagmaren barnean ere agertzen dira, eta nahiko modu pertsonalean, nik uste. Estiloaren ezaugarri hau, izen eta izenondokoaren (zuzen nahiz zeharkako) artean mugitzen den indar batean ikus dezakegu. Adibidez: «herdoilaren tristezia» sintagman, konnotazio normaletik at dagoen elementu kontrastatzailea jarri zaio tristeziari; edo «esploradore nekatua»ren kasuan, *contradictio in terminis* bilakatzen da.

Adjektibazioaren arazo hau zabalagoa da. Ez dabiltza urruti sintagmaren ordenan egiten diren jokoak, hala nola hiperbaton bortitzak («ekilibrista bihotzek») eta izenondokoaren traslazioak («hire aho multiplikatuaren antsiak»).

Dena dela, kontrajarpena ez da dramatikotasuna sortzeko bide bakarra. Hor dago pertsonaien patetismoa: kontrajarpenez ez baino pilaketaz baliatzen da puntu honetan B. Atxaga. *Etiopia*-ko pertsonaia guztiak galtzaileak dira: bizitzak garaituak, ez indar ekonomikoak. Giroa hiritarra da, baina, poesia sozialarekiko aldea markatzeko, ez dauka industriala izan beharrik.

Lope de Agirre aipa dezakegu B. Atxagaren prototipotzat. Pertsonaia tragikoa, marginatua (ugariak dira pertsonaiak, Hammet-en nobela beltzetakoak gogoratzen dituztenak), ametsez beterik hasia eta jadanik ametsok, desilusio bihurtuz, hilobiratu dituena.

hibaiari so berripaper saltzailea
hitz ezezagunen hiztegi batean bezala
bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen.

Oroz gain, ordea, guzti honek irakurleagan sortzen duen tentsioa dago. Inoiz esana dut, barrokoa iruditzen zaidala *Etiopia:* ez bakarrik kontrasteen erabileragatik, ezta ziurtasun-falta orokorragatik ere; baizik, ziurtasun-falta horrek literaturaren mugak gainditzen dituelako, irakurlearen kontzientzia ziurtasun-faltaz jabetzera daramalako.

## 2. Oroimena

Oroimenari egindako erreferentziak garrantzizkoak dira poetika honetan: iragana oroimenari esker gaurkotu dezakegu. Eta iragana eta oraina gauza bera bilakatzen dira ikuspegi honetan. Gertatua maitasunez ikusten da.

Gai honi buruz, erdi ezkutuan argitara zuen B. Atxagak artikulu bat[9]: ez da aldizkari-modu hori artikuluari ongien doakiona, ez bait da ezagutu izan; nolanahi ere, artikulu horretan adierazten duenez, iragana maitasunez ikusten da; eta urrunketak idealizazioa sortzen du.

Agian, badago horrelako idealizaziorik honelako estilo batean: paralelismo, errepikapen, eufonia eta joskera zabala erabiltzen duen estiloan, zentzuen bidez sartzen den estiloan.

Estilo hau, izen sintagman oinarritua iruditzen zait, hau da:

izen sintagma luzearen matizazioan oinarritua. Hona adibide argia:

egun mudapen amaiezina infinitoa da

Ez da *Etiopia*–n agertzen zaigun lerrokada, baina bai bigarren bertsioa. Esaldiaren esanahia *(infinitoa)*, alderdi formalez, esaldiaren luzetasunez indartua agertzen zaigu.

Izen sintagmaren nagusitasunak aditzaren jabegoa apurtu du. Gogora dezagun ia tono narratiboan mugitzen den poetika baten aurrean gaudena: narratibaren indarra ahultzeko formula dugu izen sintagmaren nagusitasuna.

### 3. Atenporalizazioa

Aditzak mugikortasuna adierazten duen artean, izenak esentzia adierazten du. Ezagunak dira esentziaren eta existentziaren arteko desberdintasunak filosofian.

Zer esanik ez, esentziaren mailan dabilkigu *Etiopia*. Ez bakarrik izen sintagma delako nagusi, baizik aditzarekin egiten diren jokuengatik ere. Nire ustetan, honetan datza B. Atxagaren hizkera poetikoaren berrikuntza. Linguistikaren aldetik, konposatua izanik, problemak planteatzen ditu euskal aditzak: elementu gramatikal batek (aditz laguntzaileak) luzatu egiten bait du esaldia eta, erritmoaren aldetik, haren eduki semantikoa hutsa delarik, errepikapen ahularen arriskutan jartzen bait du.

Horrela, arrisku horretan ez jausteko, idazleek soluzio desberdinak bilatu dituzte: Lauaxetak, kasurako, aditz soila aukeratzen du; B. Atxagak irtenbide ugariak bilatu ditu: ez dira guztiak berriak (Xenpelar–ek erabiltzen zituen), baina berria da erabileraren ostean dagoena: kontzientzia poetiko argia eta arazo honi damaion irtenbide teknikoen ugaritasuna. Hona hiru:

1. Soluziorik soilena aditzaren desagertzea da:

Ainhoa, hile beilegi
ispilu ttipiaz orrazten.

Aditzaren faltak irudiaren betikotasuna, gelditasuna adierazten du. Erabilpide tekniko bezala, oso arrunta dugu elipsia, baina, kasu honetan, lorturiko gelditasuna dugu berritasunez jantzirik datorkiguna.

2. Bigarrena, hiperbatona dugu, aditz laguntzailea partizipioa-

ren aurrean jartzea: hizkuntzaren normak ezezko perpausetan agintzen duena baiezkoetan ere jarraitzea.

3. Zangalatraua: aditz laguntzailea lerro batean uzten dugu, harekin batera doan partizipio edo elementu lexikala indartuz horrela:

... ez ditun
aurkituko geroan

Esaldiaren indarra ukapenean biltzen da: hutsuneak, alde batean geratu den ukapena azpimarratzen du.

* * *

Artifiziala da, noski, lan honen amaiera. Pila bat arlo jorratu gabe geratzen da: metaforarena ez da garrantzirik txikienekoa.

*J. K.*

---

[1] LOLA: «Etiopiaz...», in: *Susa*, 2. zb., 13–19 or. Bada beste edizio bat *Xaguxarra* aldizkari literarioaren lehen zenbakian.

[2] Sarrionaindiak erabili du esaldi bera. Oker ez banago Auder–ek erabiltzen du (PARIS REVIEW: *Conversaciones con los escritores*, I, Kairós).

[3] SCHOWB, Marcel: *El rey y la máscara de oro*, Bruguera–Alfaguara, 1980, 43 or.

[4] FRIEDERICH: *Estructura de la lírica moderna*, Seix y Barral, Barcelona 1974, 21 or.

[5] id., ibid.

[6] id., ibid.

[7] id., ibid.

[8] id., ibid.

[9] ATXAGA, B.: «Oroimena...», in: *Egun on. Revista del Casco Viejo*, 1981. eko ekaineko zenbakia.

# Jaso ditugu

ENSUNZA, Martxel: **Alfabetatze zientifikoa (zenbakiak, unitateak, adierazpenak, eragiketak, esamoldeak, irakurketa),** U.E.U., Iruñea, 1983, 188 or., 24 × 16,5 cm.

CASENAVE HARIGILE, Junes: **Amikuze,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or., 23 × 15 cm.

MONTOIA, Xabier: **Anfetamiña,** Susa, Donostia, 1983, 80 or., 20 × 12,5 cm.

ELHUYAR KIMIKA–TALDEA: **Erreologiaren hastapenak,** U.E.U., Iruñea, 1983, 184 or. 29,5 × 20,5 cm.

IRAZABALBEITIA, Iñaki X. (Elhuyar Kimika Taldea): **Erresonantzia magnetiko nuklearra: oinarri teorikoa eta ariketak,** U.E.U., Iruñea, 1983, 232 or. 29,5 × 20,5 cm.

SAN MARTIN, Joan: **Erromanikoa Euskal Herrian,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

FERNANDEZ AGIRRE, K.: **Estatistikaren hastapenak,** U.E.U., Iruñea, 1983, 214 or. 24 × 16 cm.

ELKAR–LANEAN: **Eta zergatik ez?... Sigrid,** Susa, Donostia, 1983, 80 or. 20 × 12,5 cm.

HARITXELAR, J.: **Etxaun Barkoxeko,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

ELKAR–LANEAN: **Euskal dialektologiaren hastapenak,** U.E.U., Iruñea, 1983, 422 or. 24 × 16,5 cm.

GARATE, Gotzon: **Euskal elaberrien kondaira. (I). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko,** Gero, Bilbo, 1983, 162 or. 18 × 11 cm.

SETIEN, Jaxinto F.: **Euskal Herriaren Historia. (II).** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

URTZAINKI, Axun: **Euskal Herriko Geografia. (I). (Ingurune fisikoa).** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

EUSKO LEGEBILTZARRA. PARLAMENTO VASCO: **Euskeraz idatzitako erlijio–liburuaren erroldea (XVII–XX Mendea). Catálogo de libros religiosos escritos en euskera. (S. XVII–XX),** Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1983, 182 or. 22 × 16 cm.

ELKAR–LANEAN: **Gabonetako ikuskizuna. Acto para la Nochebuena,** Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1983, 240 or. 25 × 18 cm.

ELKAR–LANEAN: **Geologia 1 – Barneko geodinamika,** U.E.U., Iruñea, 1983, 312 or. 24 × 16 cm.

ELKAR–LANEAN: **Geologia 2 – Kanpoko geodinamika,** U.E.U., Iruñea, 1983, 592 or. 24 × 16 cm.

GOIKOETXEA MAIZA, Ion: **Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII (1696–1773),** Euskaltzaindia; Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1983, 214 or. 25 × 18 cm.

TRINTXERPE, Gorka: **Julian Gaiarre,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

KIMIKA PURU ETA APLIKATURAKO NAZIOARTEKO BATASUNA (IUPAC)/-ITURBE, Jazinto: **Kimika ezorganikoaren nomenklatura (1970.eko arauak),** U.E.U., Iruñea, 1983, 214 or. 24 × 16 cm.

MATAS, Jacint / AGIRRE, Esteban J.: **Liburu bat, Herri bat. (O.H.O.eko 7. kurtsoko ikasleentzat lagungarria.** Egile–editore, Errenteria, 1983, 122 or. 29,5 × 21 cm.

AZKONA, Antton: **Limnologia eta termodinamika Laukarizko urtegian,** U.E.U., Iruñea, 1983, 136 or. 24 × 16 cm.

KORTABITARTE, Sabin (Elhuyar Kultur Elkartea): **Makina elektrikoak (II). (Laborategi saiakuntzen ondorioak),** U.E.U., Iruñea, 1983, 115 or. 30 × 21 cm.

ZARATE AZKUNA, M.J.: **Matematika orokorra 1–1. partea,** U.E.U., Iruñea, 1983, 342 or. 30 × 21 cm.

SARRIEGI, Andoni (Elhuyar Teknologi Taldea): **Materialen erresistentzia,** U.E.U., Iruñea, 1983, 120 or. 26 × 48 cm.

ELKAR–LANEAN: **Miszelanea kimikoa,** U.E.U., Iruñea, 1983, 114 or. 29,5 × 21 cm.

ELKAR–LANEAN: **Moluskuak,** U.E.U., Iruñea, 1983, 364 or. 24 × 16,5 cm.

ZALDUA, Imanol: **Nafarroa zutik,** Gero–Mensajero, Bilbo, 1983, 95 or. 19 × 13,5 cm.

ELKAR–LANEAN: **Oja garaia,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

SETIEN, Jaxinto F.: **Posta eta postetxeak,** Gordailu, Donostia, 1983, 28 or. 23 × 15 cm.

ELKAR–LANEAN, **Sinonimoen hiztegia.** Egile–editore. Bilbo 1983, 207 or. 22,5 × 16,5 cm.

ELKAR–LANEAN: **Urte guztiak dira diferente. Narratiba 1984,** Susa, Donostia, 1983, 96 or. 20 × 12,5 cm.

PALAU, M.E./AGIRRE, E. J.: **Yeshua. Bizitza eta Mezua (O.H.O.eko 6. kurtsoko ikasleentzat lagungarria),** Egile–editore, Errenteria, 1983, 154 or. 29,5 × 21 cm.

KORTABARRIA ONAINDIA, Jaime: **Zoluen mekanika,** U.E.U., Iruñea, 1983, 172 or. 24 × 16 cm.

ELKAR–LANEAN: **150 mil años de prehistoria vasca. Gure herriaren lehen urratsak,** Excma. Diputación Foral de Alava, Gasteiz, 1983, 72 or. 22 × 23,5 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta biztanleen zentsua. Biztanleriaren egitura. Censo de Población y vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Estructura de la Población,** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 312 or. 26 × 21,5 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta biztanleen zentsua. Biztanleriaren egitura. Censo de Población y vivenda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Estructura de la Población. Edizio laburtua. Edición reducida,** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 32 or. 26 × 21,5 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitzen eta biztanleen zentsua. Biztanleria Aktiboa. Censo de población y vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Población Activa,** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 252 or. 26 × 21,5 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitzen eta biztanleen zentsua. Biztanleria Aktiboa. Argitalpen laburtua. Censo de Población y vivencia 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Población Activa. Edición reducida,** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 30 or. 25,5 × 21 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta Biztanleen zentsua. Etxebizitza. Censo de Población y vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Vivienda,** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 218 or. 26 × 21,5 cm.

EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA–ZUZENDARITZA / UZEI: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitza eta Biztanleen zentsua. Etxebizitza. Censo de Población y vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Vivienda. Argitalpen laburtua. Edición reducida.** Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 28 or. 26 × 21,5 cm.

# JAKIN

# DROGAK eta GIZARTEA

Soziolinguistika: Eibar-Zorroaga
Erdal liburuak Euskal Herriaz
ETB eta J. Caro Baroja
Manex Erdozainzi
Nora doa PNV?

Apirila
Ekaina

31

1984

JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13
Tel. (943) 271713